# ttipi-ttapa

**265.** zenbakia • 1999ko azaroak 4 • **XIX.** urtea



Andrey Urzelaieta

# Lamixine Antzerki Taldea, profesionalizazio bidean

Urrian Elizondo eta Beran aurkeztu du Lamixine Berako Antzerki Taldeak *«Done Jakuerantzako Bidean»* bere azken lana. Honela, Beran antzerki tailer gisara sortu zenak profesionalizazio bidera jo du. Santiago Bidearekin harremana duten herri guzietan antzeztea da euren asmoa, lehendabizi Nafarroan eta gero kanpoan. Horretarako, publikoa ere inplikatu nahi dute. *«Ohitura gaude deus egin gabe hartzaileak izatera, telebistetatik, antzerki lan arruntetatik... obra hau ikusteko publikoak zerbait jarri behar du bere aldetik: pertsonaien ondoan ibili, erromes kaparekin jauntzi... 150 kapa ditugu publikoaren artean banatzeko»*. Taldekideen ustez, *«Santiago Bidea oraingo Europa batuaren lehen adibidea izan zen bere garaian»*.

*Santiagoko bideari buruzko antzerkilana aurkeztuko dute Nafarroa osoan barna*

☞ 3




**28 Kirola:**
**Eduardo Eugi, Euskal Herriko lasto altxatzailerik onena**
Bi minututan hogeita bat altxaldi eman zizkion 45 kiloko fardoari Euskal Herriko marka berria jarriz. Azaroaren 28an eginen den errekorren jaialdian marka hobetzeko ari da orain lanean.

**4 Erreportaia:**
**Hostoekin neurtuko da landa etxeen kategoria**
Turismo Departamentuak atera duen araudi berriarekin, nekazal etxeak eta landa etxeak bereiziko dira, eta duten kalitatearen arabera hosto bat, bi edo hiru izanen dute.

**6 Gaurkotasuneko Gaia:**
**Piriniotako autobidea Erratzu eta Dantxarineatik?**
Intxauspe deputatuak errandakoak hautsak harrotu ditu. Erratzu eta Dantxarinean iritzia bildu nahi izan dugu.

**8 TTIPI TXARTELA**: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.




# Betiko P.V.C.

Ordoki Industrialdea • ARIZKUN
Tfnoa. eta faxa: (948) 45 32 59

## 4 arrazoi on PVC jartzeko




*Etxe berrietan eta zaharretan. Edozein itxiera, kaleria, leiho, atari...*

*Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe*





*BETIKOn kolore ugari ditugu, baita egur koloreak ere (haritza, kaoba, pinua...). Edozein etxe estilora egokitzen direnak.*

deceuninck WINKHAUS

**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe 948 453 259 telefonoan edo bisita gaitzazu**

---

**Bera.**
• Etxe bat berritzeko.
• Etxea 14.000 m²ko lur-eremuarekin.
• Bi pisu salgai.
• Pisua (igogailuarekin) **erosi** nahi da.
• 80 m²ko bajera salgai Eztegaran.
• 200 m² ko bajera salgai. 17 milioi.

**Lesaka.**
• Etxe elkar-atxikiak, orain egitekoak.
• Nabe-pabiloia, 400 m²koa, salgai edo errentan.
• Bajera salgai Erosle ondoan.
• Baserri bat 50.000 m²ko lur eremuarekin salgai.

**Etxalar.**
• Etxe elkar-atxikiak. Azkeneko biak.
• Harrizko etxea salgai, terrenoarekin, herrian bertan.
• Baserri batzuk, terrenoarekin edo gabe.

**Arantza.**
• Pisu mobleztatua salgai, arras polita, aukeran.
• Pisua salgai, garaje, soto eta ganbararekin.

**Igantzi.**
• Etxea salgai, lur-eremu zabalarekin.

**Sunbilla.**
• 57 m²ko bajera salgai, erabat prestatua.
• Baserria salgai, bere lur-eremuarekin.
• Lur-eremu eraikigarria salgai, herrian bertan.
• Pisu mobleztatua errentan emateko.

**Doneztebe.**
• Pisua salgai herrian, bizitzen jartzeko prest.
• 3.000 m²ko bi lur-eremu polit, eraikigarriak.
• Bajera batzuk salgai herrian bertan.
• Zine ondoan eraikitzen ari den azken pisua.
• Osasun Etxearen ondoan azken apartamentua.
• Udaletxe ondoan, azken bi pisuak, 120 eta 170 m²koak.
• Aparango 200 m²ko nabe-pabiloia errentan.
• 26.000 m²ko nekazal lur zelaiak salgai.

## A D O S

*Julian Izura Nuin*
**Telefonoak: 948 451 841 • 607.978 656**
e-mail: julizu@zaros.com
Parrokia 9, bajeran • **DONEZTEBE**

**Elgorriaga.**
• Pisua bere ganbararekin, berogailuarekin, erabat hornitua.
• Pisua bajera haundi batekin, arras rustikoa.
• Lur-eremu eraikigarria, erabat eguzkitsua.
• Borda salgai, lur-eremuarekin. Ongi kokatua.

**Ituren.**
• Azken pisu berria salgai.
• Lur-eremua salgai, etxea egiteko.
• Etxe bat lur-eremuarekin.

**Zubieta.**
• Etxe haundi bat salgai.

**Eratsun.**
• Etxe bat salgai.

**Lekunberri.**
• Pisu batzuk, lur-eremu bat eta etxe batzuk.

**Donamaria.**
• Lur-zati eraikigarriak salgai.

**Igurin.**
• Lur-eremu parea salgai, eraikigarriak.

**Urrotz.**
• Baserri berritua lur-eremuarekin.

**Beintza.**
• Lur-eremuak. Herritik hurbil.

**Labaien.**
• Lur-eremu eraikigarria, ongi kokatua.

**Legasa.**
• Bi lur-eremu. Eraikigarriak.
• Pisu parea salgai, merke-merke.
• Lur-eremua erosi nahi dugu, baratzea jartzeko.

**Mugairi.**
• Pisua salgai.
• Lur-eremu eraikigarriak salgai.
• Segiduan egitekoak diren pisuak salgai.

**Irurita.**
• Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko.
• 7.000 m²ko belagia salgai.

**Elizondo.**
• Pisu hagitz polita salgai Giltxaurdi karrikan.
• Pisu haundi eta berri bat Santiago karrikan.
• Pisu batzuk errentan emateko.

**Erratzu.**
• Etxe bat bizitzen jartzeko prest.

**Iruñea, Irun eta Donostia.**
• Zerbait erosi edo saldu behar baduzu, deiguzu konpromezurik gabe.

**Batzuk.**
• Karteran aukera gehiago ditugu. Kontratuak egiten ditugu. Bordak erosi nahi dira, ez du inporta egoera eta tokiak.

## LESAKA:

• 24 etxe elkar-atxikiak, orain egitekoak.



DATUAK..........

❖ *Urrian Elizondo eta Beran aurkeztu dute beren azken antzerki lana: "Done Jakuerantzako bidean".*

❖ *Santiagoko Bidearekin harremana duten herri guzietan antzeztea da euren asmoa. Lehendabizi Nafarroan, eta gero kanpoan.*

❖ *Obra honekin profesionaletara salto egiteko apustua egin du Lamixine Antzerki taldeak.*

❖ *Hala ere, Antzerki Tailerrarekin aitzinera segitu nahi dute, ahal baldin bada jende berria sartuz.*

❖ *«Santiagoko Bideak erlijioaren mugak gainditu ditu» diote, «eta oraingo Europa batuaren lehen adibidea izandu zen bere garaian».*

TESTUA ETA ARGAZKIA:
ASIER GOGORTZA

☞ **Lamixine Berako Antzerki Taldea**

# "Hutsetik hasten gara profesional mailan, ez gaituztelako ezagutzen"



«Helburua profesionaltasuna da, baina garrantzitsua bidea bera da» diote.

**ANTZERKI TALDE PROFESIONAL BEZALA ARITZEAK HORTAZ BIZIKO ZARETELA ERRAN NAHI DU?**

Ez. Honetaz aparte bakotxak baditu bere proiektuak. Gaur egun ezinezkoa da antzerki obra bakar batetatik bizitzea. Lamixinek etapa berri bat ideki du, baina Lamixine Antzerki Tailerrak aitzinera segitzen du.

**LAMIXINE BETI SAIATU IZAN DA PUBLIKOAREKIN HARREMAN BIDE BERRIAK BILATZEN. ORAINGOA DA IKUSLEGOARENGANDIK HURBILEN SENTITU ZARETEN ALDIA?**

Publikoa inplikatzea nahi dugu, bai, ez eserita egotea bakarrik.

Guk nahi dugu zerbait jasotzeko jendeak zerbait eman dezala trukean. Ohituta gaude deus egin gabe hartzaileak izatera, telebistatik, antzerki lan arruntetatik... obra hau ikusteko publikoak zerbait jarri behar du bere aldetik: pertsonaien ondoan ibili, peregrino kaparekin jauntzi...150 kapa ditugu publikoaren artean banatzeko.

**ZERGATIK AUKERATU DUZUE SANTIAGOKO BIDEA?**

Santiagoko Bideak erlijioaren mugak gainditu dituela uste dugu. Aitzina arrazoi desberdinak zeuden bide hau egiteko: batzuk soldata baten truke, bertze batzuk legearen zigorrak betetzeko (Suitzan adibidez adulterioa Santiago Bidea eginez ordaintzen zen)...

IX. eta X. mendeetan Europaren anaitzea gertatu zen bide honen inguruan. Lehengo erromesek Finisterre edo munduaren bukaerara joaten zirela uste zuten, eta beraz, berdin zitzaien bidaiakidea holandarra edo frantziarra izan. Orain Europa batuaren fenomenoa hainbertze aipatzen denez, anaitasuna, solidaritatea hartu dira pertsonaien ardatz gisa. Balore horiek lehen garrantzisuak ziren bezala orain ere badira, eta bihar ere izanen direla uste dugu.

**LAGUNTZA EKONOMIKORIK JASO DUZUE?**

Berako Udaletik jaso dugu hasteko behar genuen dirulaguntza, eta apostu interesgarria iduritzen zaigu.

Garrantzitsua da Iruñetik kanpoko taldeek bide profesionala aukeratzea, kultur mugimendua aski zentralizatua dagoelako gaur egun. Gu hutsetik hasten gara orain, hor barna ez gaituztelako ezagutzen. Ibilbide bat abiatu dugu obra honekin, eta sinbolikoa da Santiagoko Bidearekin hastea. Helburua taldearen profesionaltasuna da, baina garrantzitsua bidea bera da. Lehendabiziko pausua Elizondoko antzezlana izandu da, gero Berakoa...

*“Obra hau ikusteko publikoak zerbait jarri behar du bere aldetik: pertsonaien ondoan ibili, peregrino kaparekin jauntzi... 150 kapa ditugu publikoaren artean banatzeko.”*



Elizondoko Jaen etxea. Araudi berria indarrean sartzen denean, txalet itxurako landa etxeak pentsio bihurtuko dira.

# Hostoekin neurtuko da landa etxeen kategoria



***Aspalditik zegoen Nafarroako landa etxeentzat araudi bat egiteko beharra. Bezeroari kalitatezko zerbitzu bat eman nahi baldin bazaio, honek aitzinetik jakin behar du ordaintzen duen etxea nolakoa den. Helburu horrekin sortu du Nafarroako Gobernuak hostoen araberako sailkapena, eta hiru urteko epea dute etxeetako nagusiek sistema honetara egokitzeko.***

***Inguru honetako landa etxe gehienak hosto bakarra izanen lukete gaur den egunean, bainan gehienak bi hosto eskuratzeko helburua dutela erran digu Sagrario Goñik, Hiruak Bat elkarteko lehendakariak.***

TESTUA: ASIER GOGORTZA
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

Joan den abuztuaren 24ko datarekin Foru Agindu berria atera zuen Turismo Departamentuak. Agindu honen arabera, Nafarroako landa-etxeak 3 kategoria desberdinetan sailkatuko dira hemendik aitzinera. Hoteletan izarrak edo jatetxeetan sardeskak diren moduan, landa etxeen atarietan zuhaitz hostoak ageriko dira: bat, bi edo hiru hosto.

Horrez gain, bereizketa gehiago egin dituzte etxearen ezaugarrien arabera: batetik, nekazal etxeak eta landa etxeak desberdinduko dira hemendik aitzinera. Aziendak dituzten etxeek bakarrik hartuko dute nekazal etxe izena. Bertzetik, "logela-landa etxeak" eta "etxebizitza-landa etxeak" bereizi dituzte, jabeak etxean bizi diren edo ez kontuan hartuz.

Gainera, etxe kanpoko eta barreneko arkitekturari buruz ere hainbat arau finkatu ditu Turismo Departamentuak. Horrela, ohiko etxeen estetika errespetatzen ez duten etxeak pentsio izatera pasatuko dira zuzenean. Barrenetik, berriz, ekipamendua eta nekazal itxurako dekorazioa exigituko dute landa etxeetan.

Hiru urteko epea izanen da arau berri hauetara egokitzeko.

### Hiru hosto eskuratzea ia ezinezkoa

Hiru osto lortzeko baldintzak hagitz zorrotzak dira. Bertzeak bertze, 18 lagunendako tokia izatea eskatzen da derrigorrez, eta hori arras zaila eta garestia

da landa etxe batendako. Beraz, landa etxe gehienek bi hostorekin konformatu beharko dute seguraski.
Hala ere, ez pentsa bi hostoetako kategoriara ailegatzea erraxa izanen denik. Ondoko hauek dira bi hostoetara ailegatzeko oztopo edo traba haundienak: etxean larrialditarako irteera eta argirik ez izatea, eta zenbait kasutan, etxeraino-ko bidea asfaltatu gabe edukitzea. Lehendabiziko arazoa aisa moldatzen ahal da diru inbertsio ttiki bat egin ezkero, bainan pistak moldatzea, ordea, ez dago edozeinen esku. Oztopo honetaz solasteko, baita bertze zalantza batzuk argitzeko ere, Hiruak Bat elkarteko zuzendaritzak bilkura bat eskatu zuen Turismo Zerbitzuko arduradunekin. Baldintza hori betetzea ezinezkoa zela azaldu ondotik, pistak zolaberritzeko diru-laguntzak partituko zituztela erantzun zieten agintariek. Beraz, Nafarroako Gobernuak Herriko Etxeetara bideratuko ditu laguntza horiek, eta etxeetako nagusiek kopuru ttiki bat bertzerik ez dute ordaindu beharko.

## TURISMOAK AURTEN EMAN DITUEN ZENBAKIAK

### ■ Turismo Bulegoetan

| HERRIA | UZTAILA | ABUZTUA | IRAILA | DENETARA | NONGOAK GEHIENAK |
|---|---|---|---|---|---|
| BERA | 826 | 1.945 | 628 | 3.399 | Madril, Bartzelona eta Bizkaiakoak |
| ELIZONDO | 1.421 | 6.621 | 593 | 8.635 | Katalunia, Madril eta EAEkoak |
| BERTIZ | 2.177 | 6.278 | 2.513 | 10.968 | Katalunia, Madril eta Valentziakoak |
| SARA | 3.500 | 4.000 | 2.500 | 10.000 | Paris, Bordel eta Inglaterrakoak |
| SENPERE | 3.260 | 4.415 | 850 | 8.525 | |
| SENPEREKO AINTZIRA | 1.300 | 2.226 | -------- | 3.526 | |



### ■ Bertze toki turistikoetan

| NON | UZTAILA | ABUZTUA | IRAILA | DENETARA |
|---|---|---|---|---|
| LARUNGO TRENA | * San Jose egunetik orain arte | | | 350.000 |
| SARAKO LEZEETAN | * Urte osoan | | | 104.000 |
| URDAZUBIKO LEZEETAN | 3.540 | 9.909 | 2.913 | 16.362 |
| ZUGARRAMURDIKO LEZEETAN | * Urte osoan | | | 60.000 (gehienak Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Madril, Bartzelona eta Valentziatik) |
| BERTIZKO PARKEAN | 8.927 | 14.156 | 6.438 | 29.521 |

### Inguru honetan 180 landa etxe daude gaur egun

Inguru honetako landa etxeak bi elkarteren barrenean sartuak daude: Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Malerreka eta Bortziririetako etxeak Hiruak Bat elkartean, eta Leitzaldekoak Aralar elkartean (hemen barrenean Larraun, Basaburua, Beteluko etxeak sartzen dira, bertzeak bertze). Denetara 180 etxe daude eskualdean, 98 Hiruak Baten barrenean eta 17 Aralar elkartearen barrenean. Hoietaz gain, bertze 65 etxe daude elkartetatik kanpo.
Aspalditik zegoen landa etxeak sailkatzeko beharra, hori denek onartzen dute, bainan zenbait landa etxetako nagusik ez ditu begi onez ikusi eskatzen diren baldintzak. ■

## LANDA ETXEETAKO SEINALE BERRIAK



▲ Seinale berrien arabera, "Logela-landa etxea" izanen litzateke hau. Jabeak etxe berean bizi dira, eta behi horrek adierazten duenez aziendak dituzte etxean.



▲ Hau, berriz, "Etxebizitza-landa etxea"ren seinalea izanen da. Etxe guzia hartzen da errentan, eta hiru hostoko kategoria du kasu honetan.

☞ **Sagrario GOÑI** *Hiruak Bat elkarteko lehendakaria*

# «Guttieneko kalitatea emateko bi hosto beharko dira nere ustez»



**Zer iduritzen zaizkizu Nafarroako Gobernuak Landetxeentzat jarri dituen baldintza berriak?**
Guri arras zailak iduritu zitzaizkigun hasieran, eta eurekin solastera joan ginen. Problema haundiena pistak moldatu beharra zen, baserri batzuk nahiko bide txarra dutelako, eta diru aunitz gostatzen da hoiek moldatzea. Horretarako dirulaguntzak emanen dituztela agindu ziguten. Ikusi dugu zein diren moldatu beharreko pistak, eta orain Herriko Etxeek eskaera egin ezkero bideak moldatzeko dirua emanen diete.
Bigarren arazoa nekazal etxeak eta landa etxeak bereiztearena zen. Araudi berriak zioenez, nekazal etxeetan aktibitateak paratu behar zituzten bezeroek ikusteko. Horrekin ez geunden ados, abuztuan lan aunitz denean ezin baita aldiberean baserriko lanak egiten eta bezeroei erakusten aritu. Baina hori ere aldatuko zutela erran zuten.
**Hostoen arabera neurtuko da landetxeen kategoria.**

**Zaila izanen da hosto horiek lortzea?**
Hirugarren hostora ailegatzea bai, baina bezeroari kalitate minimoa emateko bigarren hostora ailegatu beharko genuke nere ustez.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
Internet:
http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa
e-mail:
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA. Presidentea: Pello Apezetxea. Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien. Zuzendaria: Aitor Arozena. Publizitatea: Kulturkari, S.L. Administrazioa: Amaia Goia. Erredakzioa: Aitor Arozena, Asier Gogortza. Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Martine Goietxe, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza. Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra... Inprimategia: Gertu. Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:
Hego Euskal Herria . . . .2.000 Pta.
Ipar Euskal Herria . . . . .140 Libera
Europa . . . . . . . . . . . . . .3.500 Pta.
Amerika . . . . . . . . . . . .15.000 Pta.

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Piriniotako autobidea Erratzu eta Dantxarinean barna?

## Trazatua ofiziala egin arte ezin dugu ja egiten ahal, gero hasiko gara mugitzen



Santiago IBARGARAI
Erratzuko alkatea

Oraindik gauza garbirik ez dakigu, baina trazatu hori ofiziala egiten bada, baztango alkatearekin bildu eta zerbait egin beharko dugu guk ere. Pisuko garraio guzia hemendik pasatzea gogorra izanen litzateke hemengo jendearentzat, gauden bezala ongi baigaude. Halere, horrelako obra handia egitea erabakitzen badute, guk ezin izanen dugu gauza handirik erran, seguraski. Inori ez zaio bidea bere etxe gainetik pasatzea gustatzen, baina indarrean heldu badira ezin izanen dugu ja egin. Ofizialki, erran bezala, ja ez dakigu. Nafarroako Gobernuak Ibañetatik pasatzeko asmoa zuela uste genuen, orain Intxausperen deklarazio horiek... Igual jendearen erreakzioa ikusten ari dira, ez dakit. Jendeak erraten dit zerbait egin beharko dugula, baina trazatua ofiziala egin arte ezin dugu gauza handirik egiten ahal. Gezurra baldin bada behatzak harrapatzen ahal ditugu tartean. Egitan horrela dela jakin eta gero egin beharko dira batzarreak, bilerak eta kontu. Hemendik egiten bada, Balleko Udalak mugitu beharko du, eta hor gure laguntza izanen du.

## Errepide berria egin baino lehen herritarren iritzia galdegin beharko lukete



David BIDAURRE
Urdazubiko zinegotzia

Dantxarinean ustezko errepide horrek izaten ahal duen eragina ez da errexa neurtzen. Gainera, oraindik ez dago garbi eginen den edo ez. Urdazubiko jende gehienak oraindik ez du horren berririk, beraz oraindik ez dago sobera kezkatua. Alde batetik, Dantxarinea turismotik bizi da eta bide horrek jende gehiago ekarriko luke hemengo bentetarat. Bertzetik, ordea, herri ttiki-ttikia eta lasaia da Urdazubi, nekazaria, eta horrelako trafikoak eragin kaltegarria izanen luke lasaitasun horretan. Nik lau lagunei errepide honi buruzko iritzia galdegin diet eta bi alde daude eta bertze bi aurka. Nik nahitaezkoa ikusten dut bidea egin baino lehen herri hauetako jendeari iritzia galdegitea, beraz, erreferenduma edo gisako zerbait egin beharko litzateke. Akaso, nik kontrako botua emanen nuke, bidea etxe ondotik pasatzea ez baita batere atsegina. Oraindik ez dago garbi bidea hemendik eginen den, baina pasatzekotan ere, Dantxarinearen gibeleko aldetik pasatuko da. Intxauspe asteazken honetan etortzekoa da Urdazubiko Herriko Etxera.

## Ez Erratzun barna eta ez Orreagan barna: autobide hori ez da beharrezkoa



Xabi OSPITAL
Erratzuarra

Egunkarian leitu nuenean Intxauspek errandakoa inpresio txarra hartu nuen eta ondoan, trazatuaren marrazkia Erratzu ondotik pasatzen zela ikusterakoan, arras alarmatue gelditu naiz: Proiektu horren arabera, Erratzu bidegurutze gisa gelditzen da, eta gero Iparla mendatea edo Izpegi mendatea zulatuko dute, tunel bat eginez, Arrosako trenbidearekin lotzeko. Kamioiek ezin dute Iparraldeko zenbait herrietatik pasatu, nonbait, eta merkantzia trenean pasatu beharko litzateke. Astakeri bat iruditzen zait honelako proiektua. Guk dugun lurralde eta zabaltasun ederrarekin, ekologia aldetik kalte handia eginen duela iruditzen zait. Zer ondoriok izanen dituen ez da errexa kalkulatzen, baina inguruarentzat eta jendearentzat ez du ondorio onik ekarriko. Hemen hau planteatu behar da: Nork agintzen du gisa honetako autobideak egitea? Ez ote da bakarren baten sakela betetzeko? Ez dut uste garapen ekonomikorako beharrezkoak direnik. Beraz, bai Erratzutik bai Orreaga aldetik pasatzearen aurka nago, baita gainerako hiru proiektuen aurka ere.

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328-133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
✎ Langile Autonomoak
✎ Nekazariak eta mendi-langileak
✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
✎ Lan-kontratutarako laguntzak
✎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
✎ Diru-laguntza ezberdinak
✎ Kontabilitateak
✎ IVA eta IRPF
✎ Errenta aitorpenak
✎ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
✎ Bideragarritasun planak

## IRAKURLEAK MINTZO

### Leitzako herriari eta Udaletxeari

Lehengoan adiskide kanpotar batzuk Nafarroa iparraldeko herrien ezagutzera eraman genituen. Ezkurratik goiti Leitzako mugara iritsi ginen, Usategieta mendilepoan larrazken hasi berria begi aitzinean genuelarik. Zein zoragarri!

Leitzako karrika zaharretan barna ibili ginen gero, eliza azpiko auzo zaharrean; eta espaloi eta bide egokiak ikusi genituen, etxe eraberritu ederrak, diru eta lan aunitz herriko bazterren apaingarri. Handik beheiti joan ginen, etxe artean ziraldoka jaisten den erreka mehar aldera. "Ur guti heldu da" erran zidaten adiskideek, Euskal Herrian ere idorteak gerta daitezkeela harriturik; "eta zein zikin dagoen!" gero segidan.

Izan ere, hala zegoen: plastikoak, traste zaharrak, zurezko kutxak, latak, botilak... Merkatu ttipia zirudien, baina okerreko plazan ordea.

Eta halaxe pentsatu genuen, alegia, etxeetako horma zuriak eta karrikak edertzeko hainbertze diru eman eta gero, denetan merkeena –erreka bazterrak, adibidez– txukun eta ikusgarri gordetzeko ahaleginik ere ez! Non dira legeak! non auzolanak!

A. MEDRANO
(IRUÑEA)

### Saharar herriarekin elkartasuna

Uda honetan Leitza, Areso eta Lekunberrira Saharako ume talde bat, –34 ume eta 2 begirale– etortzekoa zen. Egitasmo honek helburu bikoitza zuen: haur Sahararrek beraien herrian jaso ezin ditzaketen zerbitzuak jasotzeko aukera izatea alde batetik, eta Saharar herriaren egoera zein den ezagutaraztea eta elkartasuna adieraztea bestetik.

Lehenengo helburu hau ezin izan zen bete, eta, horren ondorioz, urriaren 21ean bilera bat egin genuen Nafarroan dauden Saharar delegatuekin, azalpenak jasotzeko. Umeak hona ez etortzearen arrazoia honako hau izan zen: Argeliako hegazkin konpainiak (Sahararrek erabil dezaketen bakarrak) ez zuen behar adina bitartekorik hainbeste ume kanpora ateratzeko.

Azalpenak eta arrazoiak jaso ondoren, zuen laguntzari esker jasotako diruarekin zer egin behar den eztabaidatu genuen eta hau izan zen aho batez erabaki genuena: Bildu zen diru guzti-guztia, hau da, 2.841.000 pta, hurrengo urterako gordetzea, aurtengo helburu berarekin.

Bilera honetan, urte osoan Saharar herriari elkartasuna adierazteko talde bat sortu zen, eta talde hau irekia izanen da. Parte hartu nahi izanez gero telefono hauetara deituz egin dezakezue (948 610 901 edo 948 610 617).

Eskaini eta adierazi duzuen laguntza eta elkartasuna dela eta, Saharar Herriarekin Elkartasuna taldeak berriz ere eskerrak eman nahi dizkizue.

'SAHARAR HERRIAREKIN
ELKARTASUNA' TALDEA

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapak** *bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

### Cederna-Garalurren asanblea orokorrari buruz:

Euskal Herritarrok taldearentzat penagarria da Nafarroako Eusko Alkartasuneko buruzagi batzuen aintzinako lotura eta inertziengatik Cederna-Garalur agentzian zuzendaritza demokratiko eta aurrerakoia jartzeko aukera alferrik galtzea.

Euskal Herritarrokek Jose Mª Aierdirekin (EAko Idazkari Nagusia) eduki dituen bilkuretan zuzendaritza adostu eta joera demokratiko eta aurrerakoi garbi baten alde apostu egin du, eta Cederna gobernatzeko programa-guttieneko batzuk izanen lituzkeen oinarrizko akordio bat bultzatu, beraz, oraindik ez dugu ulertzen akordio hori gauzatzeko ezezkoaren arrazoia.

Nafarroako iparraldean bizi den jendeak, soziologikoki eta politikoki abertzaleak eta preziski zonaldearen garapenerako abertzale eta aurrerakoitzat agertzen garenon konpromezua eta bulkaldia gehien behar duenak, ez dute Nafarroako eskuinaren, UPNko Gobernuaren interesen erranetara egonen den lehendakari bat merezi.

Lehendakariaren eta lehendakariordearen (Mikel Zoco, Zaraitzuko zerrenda herrikoi eta aurrerakoi bateko ordezkariaren) artean izandu zen 11 boto eskasen diferentziak argi erakusten du alderdi demokratiko eta aurrerakoien batasuna posible zela, EAren aldetik edo Aierdi jaunaren aldetik guttieneko borondate politikoa egon izan balitz. Gure ustez norbaitek azaldu beharko dio nafar gizarteari zergatik izanen den UPNko txontxongilo batek gobernatua zonalde aurrerakoienetako bat.

Dena den, Zuzendaritza Batzordean nahiz Cedernako Asanblean dugun indarra kontuan hartuta, Euskal Herritarrokek lurralde hauen eta bertako jendeen alde lan egiteko borondate guzia jarriko dugu.

EUSKAL HERRITARROK
(NAFARROAKO PRENTSA BULEGOA)

PRODUCTOS ARTESANOS
ERROTAZAR®
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

PUBLIZITATE AGENTZIA
Diario de Navarra · gara · Egunkaria · Diario de Noticias · COPE · Euskadi Irratia · Radio Irun · El Diario Vasco · SER · Txingudi Telebista
Zure publizitatea egunkari, irrati edo telebistetan agertzeko KULTURKARI bitartez duzu biderik errazena.
Kontsultatu bakoitzak duen tarifa.
informazioa:
☎ 948 63 11 88
E-Posta: kulturkari@euskalnet.net
Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA
KULTURKARI
publizitatea • zerbitzuak

55 ZERBITZU ETA SALTOKIETAN




# TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.

Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

☎ **948 63 11 88**

## Ibarburu erretegia

Iruña-Irun errep. 55. km

948 451762 • DONEZTEBE

Doneztebeko IBARBURU jatetxeak bi lagunendako bazkaria edo afaria irabazteko aukera ematen du TTIPI TXARTELA dutenen artean.




*Eguneko menua*

*Karta*

*Gosariak*

*Kinto bestak*

*Komunioak*

*Koadrilla afaria, bazkariak...*

*Astearte eta asteazken bazkalondotik aitzin itxita*



• Gogoratu astero Bordatxorako 6 sarrera zozketatzen direla.

## DESKONTUAK

### ARGAZKIAK

FOTO MENA ELIZONDO

DONEZTEBE • ELIZONDO
Tfnoak.: 948 58 01 55
948 45 08 25

- %10 merkeago argazkiak errebelatzea

### LENTZERIA

Deñe

Beheko Plaza • LESAKA
Tfnoa.: 948 62 75 14

- %10 merkeago lentzeriako artikuluetan

### PENTSUAK

MENDAUR PENTSUAK

Aparan • DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 18 45

- %5 merkeago zakur, katu... pentsuak

### ZAPATAK

ALDI-ROZAS

Knattonberri • BERA
Tfnoa.: 948 63 06 80

- %10 merkeago oinetakoetan

## DESKONTUAK

### LIBURUAK

LEGARRA

LIBURUAK
PAPERTEGIA
FOTOKOPIAK

Albistur, 9-11 • LESAKA
Tfnoa.: 948 45 03 33

- % 10 merkeago Liburu eta papertegian 1.000 Ptatik. goitiko erosketetan

NAFAR PRESS

LIBURUAK • PRENTSA
ESKOLA MATERIALAK

Jaime Urrutia, 43
ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 09 02

- % 10 merkeago Liburu eta eskola materialetan

**2 lagunendako bazkaria edo afaria**

zozketatuko da TTIPI TXARTELA dutenen artean. Zozketan parte hartzeko, deitu uztailaren 21a baino lehen 948 63 11 88ra.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Euskaldunon Egunkaria 99ko urriak 29

*«Egunero jan eta paseatzera ateratzen naiz. Eskulanik ez dut egiten ikusmena nekatzen zaidalako. Eskulanak egiten 20 bat emakume daude. Ehoziri lana, josi eta marraztu egiten dute Xorroxin irratia aditzen duten bitartean».*

**Irene LARRAMENDI**
ARRAIOZ, 87 urte
Nafarkaria
99-10-29

*«Bidelagun taldea sortu dugu zonaldeko zahar eta ezinduei laguntza emateko, baita horien zaindariei ere, beti lotuta baitaude. Adinekoak zaintzea zama handia da batzuetan, eta ez dute berendako astirik. Orduan, gure laguntzarekin berek denbora har dezakete».*

**Isidro Hergedas**
IRURITAKO APEZA
Nafarkaria
99-10-29

## 11 GALDERA LABUR



**Alejandro SAN MIGUEL**
**"Sanba"**
DONEZTEBE
Mendizale eta musikaria

- **Gitarra edo pioleta?**
- Orain pioleta.
- **Joaten ahal mendira zatorik gabe?**
- Joan, joaten ahal da, bainan ez da komeni.
- **Hurrengo mendia?**
- Ia Astazuetako trabesia egiten dugun.
- **Eta etorkizunean goitzea gustatuko litzaizukeen bat?**
- Noizbait Kilimanjarora joan nahi nuke.
- **Rock&Rolla edo patxanga?**
- Bi gauzak probatu ondotik, rockarekin gelditzen naiz.
- **Seme bat izaten duzunean... rockeroa ateratzen bazaizu?**
- Ba ederki, ni konten, eta aita baino hobea izan dadila.
- **Lehen Barón Rojo atsegin zenuen... orain?**
- Ez dira lehenagokoak bezalako taldeak gelditzen.
- **Rocka sendatzen ahal den eritasuna da?**
- Rock&Rolla ez da sendatzen, alderantziz...
- **Berriz ere ikusiko ahal dugu Zenzerock-en kontzerturik?**
- Zaila izanen da, lasai egoten ahal da jendea.
- **Feria egunetarako plan polit bat?**
- Euskal poteoa, ilar-jate ederra eta kopazo bat... hasteko.
- **Zer moduz doakio ezkon bizitza zu bezalako rockero zahar bati?**
- Ikaragarri ongi. "Como Dios".





egin zaitez harpidedun

**URTE OSOKO TARIFA (BEZ barne):**
Hego Euskal Herria 47.500 • Ipar Euskal Herria 59.000 • Espainia 47.500 • Europa 59.000 • Amerika-Afrika 145.000

**Izen-abizenak** ............ **N.A.N** ............ **Tfnoa:** ............

**Helbidea** ............ **Posta Kodea** ............ **Herria** ............ **Herrialdea** ............

**Ordainketa mota:** Bankua ❑ Taloia ❑ Transferentzia ❑ Giro postala ❑

(Banku bidez ordaintzekoak betetzeko) Banku edo aurrezki kutxa ............

Entitatea ❑❑❑❑ Sukurtsala ❑❑❑❑ K.D. ❑❑ Kontu zenbakia ❑❑❑❑❑❑❑❑❑❑

Titularra ............ Tfnoa.: ............ Helbidea ............

Harpidetza-orria bete eta bidali helbide honetara: **Baigorri Argitaletxe, S.A. • Portuetxe, 23 - 2.A • 20018 Donostia (Gipuzkoa)**

ERREPIDEAK

# Piriniotako autobidea Dantxarinea eta Erratzutik igaroko dela erran du Intxauspek

## Erratzutik Arrosara tunela zulatuko litzateke, proposamen honen arabera

TTIPI-TTAPA

Michel Intxauspek , RPRko deputatuak Pirinioak zeharkatuko dituen autobideari buruz irrati batean egindako adierazpenek hautsa harrotu dute mugaren bi aldeetan.

Intxauspek jakinarazi zuenaren arabera, Nafarroa Beheretik ez da autobiderik pasatuko. Trafikoa Dantxarineatik igarotzea proposatuko du Kontseilu Nagusiko Azpiegitura Batzordeak. Burdinbidez eginen litzateke trafikoaren bertze zatia, Baigorri eta Baionaren artean. Azaroaren 15ean erabakiko da proiektu honekin aitzina jo ala ez. Aitzinetik, Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko lehendakariarekin biltzekoa zen Intxauspe. *«Nafarrek onartuko dute merkeena delako, ingurumenaren aldetik arazorik sortzen ez duelako eta Bordelera eta Tolosara buruz zuzenena delako»* adierazi zuen.

Jean Michel Galant, autobidearen aurka dagoen Leia elkarteko kidea eta Azkarateko auzapeza ez da iritzi berekoa: *«Nafarroari ez zaizkio Baionarekiko lotura zuzenai interesatzen, jadanik baitauzka. Ainitzez ekialderago doan ardatza nahi dutela ulertu nuen auzapezen arteko bileran. Proiektu hau bururatzeko denek ados izan behar dute».* Autobide honen kontra manifestazioa burutu zen Donibane Garazin urriaren 23an, Leia elkarteak deituta.




Intxauspek errandakoaren arabera, gisa honetara eginen litzateke autobidea, bertze proiektuak bazterrera utziz. Euskaldunon Egunkaria

### ERRATZUN BI ZATITAN BANATUKO DA ERREPIIDEA

Erratzun bi zatitan banatuko da Iruñetik abiatu eta muga zeharkatuko duen autobidea, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren Azpiegitura Batzordearen proposamenaren arabera. Trafiko nagusia Dantxarineatik iraganen litzateke. Kamioiek Kanbo, Ezpeleta eta Ainhoa erditik zeharkatzea debekatua dutenez, hiru herri horien bazterretik bide berri bat eraikiko lukete eta Kanbotik Baionarako bidea lau lerrotara zabalduko.

Trafikoaren bertze zatiarentzat, Erratzutik Baigorriren iparraldera tunel bat zulatuko lukete. Kamioiak burdinbidez Baionara joateko plataforma bat xutik ezarriko lukete bertan.

### Almandozen laugarren karrila egitea 75 milioi gostako da

Asfaltos Biurrun S.A. enpresak 75'1 milioi pezetatan eginen du laugarren karrila Belaten, Almandozko tunela eta Maringo zubiaren artean. Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako Departamenduak prestatutako hasierako aurrekontutik %20'6 jautsi du prezioa enpresa horrek.

1995ean Arraitzko Bentatik Zozaia bitarteko tartea akautu zen, hiru karrilekin: bi bidea malda goitidenno-rabidean eta bakarra bertzean. Honela, Iruña-Behobia norabidean, kasik lau kilometrotan ezinezkoa da aitzintzea, gaur egun. Lan honekin, aitzintzea posible eginen duen laugarren karrilaeginen da, 1.760 metrokoa, egina dagoen plataforma probextuz.

EGUZKI
OSTATUA
*Era guzietako bokatak, hotzak eta beroak*
*Kaxulak*
*Bazkari eta afari bereziak enkarguz*
*Erretegia*
Legia, 39 - BERA - ☎ 948 631 012

OKANE
HARATEGIA · URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 · BERA

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
ERREKALDE ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

## BERA

# 300 aparkaleku gehiago daude Ibardinen ingurabideari esker

140 milioi gosta da obra, eta % 70a Nafarroako Gobernuak jarri du

ASIER GOGORTZA

Urriaren 16an inauguratu zen Ibardingo ingurabidea, Rafael Gurrea eta Jose Ignacio Palacios, Toki Administrazio eta Herrilan Administrazioko kontseilarien eskutik. Nafarroako Gobernuko ordezkariekin batera Josu Goia Berako alkatea egondu zen, eta Beratik Ibardinera doaien errepidearen egoera txarra aipatzeko probextu zuen agintarien bisitaldia.

Ingurabidea 140 milioi pezeta gosta da. Diru horren %70a Nafarroako Gobernuak jarri du, eta gainerakoa Berako Herriko Etxeak. Hala ere, jakina den bezala, Udalak hitzarmen bat sinatua du Ibardingo bentetako nagusiekin. Beraz, hoien gain joanen da 42 milioi horiek ordaintzea.

Orain arte udan izugarrizko trafiko nahastea sortzen zen kantinen parean, eta ez zegoen tokirik Lapurdiko aldetik goitzen ziren auto guzientzat. Hau izan da, dudarik gabe, ingurabidea egiteko arrazoi nagusia, bide bazterrean jarri diren 300 aparkalelu berriekin arazo hori moldatzea espero baitue bentetako nagusiek.



### Larunbat honetan akautuko dira Gazte Jokoak

Kuadrila bakotxak antzezten duen parodiarekin akautuko dira aurtengo gazte jokoak. Arratsaldeko 7etan eginen da proba hau Kultur Etxean, eta ondotik partehartzaile guziek afaria izanen dute Rikardo Baroja Eskolako jangelan.

Aurten 60 bat lagunek parte hartu du Gazte Jokotan, aitzineko urtetan baino puskaz guttiago. Antolatzaileek erran digutenez, «giroa ona izandu da, baina ez da bertze urtetako dinamikarik lortu, ez partehartzaileen ez publikoaren aldetik ere. Beharbada gogo falta izanen da, jendea nekatu egin dela-edo». Ikusi behar heldu den urtean Gazte Jokoak egiten diren edo ez.

### flash

**Soziolinguistika jardunaldiak**

Bidasoa Ikerketa Zentroak euskara eta ideologiari buruzko solasaldi sorta antolatu du hilabete honetarako. Hasteko, azaroaren 12an *"Euskara eta Nafar Foralismoa XX. mendean"* mintzaldia emanen du Fernando Mikelarena historialari beratarrak Gure Txokoan. *"Euskara eta euskal abertzaletasuna Nafarroan XX. mendean"* izeneko solasaldia etorriko da segidan, egun eta toki berean, Josu Txuekak emana. 18,30etan.

**Gasherbrumeko diapositibak**

Hasiera batean joan den ortziralean egitekoa zen emanaldia aste honetarako utzi du Gure Txokoa elkarteak. Ortziral honetan izanen da, arratseko 8etan, Iamotenean.

### Hasi berriendako antzerki tailerra

Lamixine Antzerki taldeko kide batzuk berriki estreinatu dute Beran *"Done Jakuerantzako bidean"*, euren lehendabiziko antzerkilan profesionala. Bide horretan segitzeko asmoa dute hemendik aitzinera, bainan Lamixineren Antzerki Tailerrak ere martxan segitukodu, eta jende berriaren bila ari dira gainera.

Beraz, antzerki munduan zerotik hasi nahi duen nornahirentzat ateak ideki dituzte aurten ere. Tailerrean parte hartzeko 948 630 789 telefonora deitu behar da.

### Labiaga ikastolaren 25. urteurreneko ekitaldiak

Azaroaren 10ean, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaria etorriko da Berarat "Osasuna eta Kirola" mintzaldia ematera. Altzateko ikastoleko Areto Nagusian izanen da Xabier Leibarren solasaldia, arratsaldeko 7,30ak aldera. Biharamunean, ortzegunarekin, Gasherbrum espedizioko mendizaleek diapositiba emanaldia eginen dute toki eta ordu berean. Ortziralean, berriz, Bernardo Atxaga idazle ezagunarentxanda izanen da. Kultur Etxean izanen da solasaldi interesgarri hau, ilunabar aldera.



GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxozgarbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua
BERA DESINFECCIONES
© 948630155
BERA

## LESAKA





**Goizean karrikaz karrika ibili ziren dantza taldeak, bakoitza bere ibilbidea eginez. Arratsaldean, berriz, talde guziak plazan eskaini zuten beraien emanaldia.** TTIPI-TTAPA TB

# Urriaren 24ko Dantzari Txiki Eguna arrakastatsua suertatu zen

## Lizarra-Garaziko akordioari buruzko mahaingurua ortziralean Arranon

AITOR AROZENA

Eguraldi ederra lagun zutela ospatu zen urriaren 24an Irain dantza taldeak antolatutako Dantzari Txiki Eguna. Arrazoi bategatik edo bertzearengatik, Igantzi eta Legazpiko taldeek ezin izan zuten etorri, baina halere ehundaka dantzari eta musikari izan ziren Lesakako karriketan. Lesakako bi taldeetakoekin batera, beraz, Berriozarko Txori-zuri, Lizarrako Larraintza, Lezoko Murixka eta Berako Gure Txokoakoak ibili ziren goizeko kalejiran. Bazkal ondoren, plazan bildu eta talde bakoitzak bere emanaldia eskaini zuen.

Irain eskolako Guraso Elkarteak, bertzalde, helduentzako dantza ikastaroa antolatu du. Azaroan hasi eta apirila bitarte luzatuko da eta jota, zortzikoa edo arinarina ikasteko modua izanen da astelehen arratsaldetan. Joan den urtean ere hamar laguneko talde bat aritu zen dantza hauek ikasten. Juana Aleman irakasleak aipatu digunez, *«behin oinarrizko dantzak ikasi ondotik, laraindantzarekin ere animatu ziren».*

### Mahaingurua eta kafe antzerkia Arranon

Ortziral honetan, azaroak 5, Lizarra-Garaziko akordioaren urteurrenaren inguruan solastuko dute Arrano elkartean, arratseko 7,30etatik aitzinera. PNVko Markel Olano, HBko Pernando Barrena, EAko ordezkari bat, ELAko Bittor Lekuona eta LABeko Txutxi Ariznabarreta izanen dira ekitaldian.

Larunbatean, berriz, arreko 7,30etan, *«Hitzegin dezagun sexuari buruz»* kafe antzerkia izanen da leku berean.

### Larunbateko omenaldiaren ondotik pailazoak ekarriko ditu Tantirumairu ikastolak

Tantirumairu ikastolaren 25. urteurreneko ekitaldien barrenean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izanen dira udal pilotalekuan, arratsaldeko 5etatik aitzinera. Herriko Etxearen laguntz jaso du ekitaldiak. Sarrerak aitzinetik salgai daude okindegian, 400 pezetatan. Egun berean 500 pezetatan salduko dituzte.

Ezin dugu aipatu gabe utzi, ordea, ikastolako lehendabiziko guraso eta ikasleei egindako omenaldia larunbat honetan egindako omenaldia. Pilotalekuan aurreskua eta bertsoak eskaini zitzaien eta gero, bertso-trama ederra eskaini zuten Egaña, Sarasua, Maia eta Elorza bertsolariek, Josu Goikoetxearen erranetara. Koxkontako afarian, berriz, berrehun lagunetik goiti elkartu ziren, bi jangelak betez.

## flash

**Euskara teknikoa ikastaroa**
Administrazioan lan egiteko euskara teknikoa eta sakontze ikastaroa emanen du Bortzirietako IKA euskaltegiak. Ikastaro laburra izanen da, klaseak astean behin bakarrik emanen baitira. Izena emateko Bortzirietako IKA euskaltegira deitu behar da, 948 637796 telefonora.

**Masaje ikastaroa**
Lesakako Herri Eskolak Udalaren laguntzaz antolatuta masaje ikastaroa hasiko da azaroaren 16an. Bi orduko sei saio eginen dituzte, astearte eta ortzegunetan, arratseko 7etatik 9etara. Txomin Irazoki izanen da irakaslea. Izena emateko Izarra okindegira joan behar da azaroaren 12a baino lehen eta 4.000 pezeta ordaindu beharko dira. Kontuan hartu behar da gehienez 12 lagun onartuko direla.

**Jone Fagoaga seigarren**
Italian jokatutako Munduko San Huberto ehiza txapelketan seigarren izan zen Jone Fagoaga. JB zakurrak izandako istripuak izan zuen zerikusirik horretan. Jone berak txapeldunak haina puntu lortu baitzituen.


Manuel Zamorano
Bernizadurak
Pintura orohar
689 042 671 • 948 637556
Bittiria, 37 • LESAKA

ANA janaridenda
Bittiria, 41 • 948637518
LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948627573 • LESAKA

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 948637791 • LESAKA

BITTIRIA HARATEGIA
948 627555
Bittiria, 43 • LESAKA

# ETXALAR

### Idorpea Etxalarlatsan

Ez da lehenbiziko aldia, Iruña eta Iruneko autobusaren esperoan egoiteko euri eta haizearen geriza beharra aipatzen dena. Nafarroako Gobernuari ere egin zaio lehenagotik eskaria, orain arte alferrik izan bada ere. Ea oraingoan lortzen den.

### Mediku kontsultarako ordua

Ospitaleko eta Anbulategiko kontsultetarako ordua paratu zuten, aspaldian. Eta ongi da. Bertzela, esperoan egon beharra nahi baino gehiago luzatzen ahal da. Orain, herri ttikietan ere, sistema berdina paratu digute, hemen ere konsulta ordua eta errezeta ordua aintzinetik galdetu beharra. Jendearentzat hobe den ikusi behar orain.

### Bortz bataio urriaren 24an

Aipagarria da, urte saila baitzen ez zela hainbertze haur egun batez bataiatzen. Olatz, Ugaitz, Xuban, Iker eta Markel dira haurrak.



**Etxeak zaharberritzen**

Etxe zaharrak berritzen lan franko egin da azken urteetan. Aurten burututakoen artean nabarmenenak Iriondoa eta Goienetxea dira, seguru aski.

# Bideei buruzko ordenantza plantatu nahi du Udalak

## Bertzetan egindakoak begiratuko ditu lehenbizi

PELLO APEZETXEA

Mendiko bideetako plan baten beharra ikusi du. Bertze aldetik, ordea, bideen erabilera ere ikusteako menigarri iduritu zaio, ibilgailuek egiten ahal dituzten kalteak-eta kontutan hartuta. Gaia zabal eta xeheki agertu eta lotuko dituen ordenantza egitea erabaki du, bertze herritan direnak begiratuz. Berako bideen ordenantzaren kopia ekarriko dute.

### Galtzerdi lantegiak nabe berria

Aspalditik zerbait aditua bagenuen ere, galtzerdi fabrikarako nabe berria egiteko asmoa agertu du, lehen Lorpen eta orain Industrias Savidai, S.L. izendatzen den enpresak. Eta, horretarako, Udal Plana aldatzeko galdegin du.

## flash

**Bideak moldatzeko laguntza**

Orain arte, tubo eta harriaren erdia ordaintzen zuen Udalak, brearena, berriz, %33a. Hemendik aintzinera, hau ere, erdia pagatuko du.

**Irratsaioak Landagain eskolan**

TTIPI-TTAPA hau hartzeko, hasiak izanen dira eskolan irratisaioak, Xorroxinen bidez, hondarreko urteetako antzera.

**Kultur Hamabortzaldia**

Azken urteetan bezala, kultur ekitaldiak izanen dira Sara, Azkaine, Bera eta Etxalarren, Azaroaren bigarren hamabortzaldian hasita. Lau herrietako elkarteak prestatuak dira. Xehetasunak hurrengo TTIPI-TTAPAn ikusiko dituzue.

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735



«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
✆ 948635290 ETXALAR

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
✆ 948 63 75 58

HARITZPE JATETXEA
✆ 948635235 948635038
GOSARIAK · BAZKARIAK · BOKATAK



Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

ELENA ENGLISH
✓ Matrikulazio epea zabalik
✓ Helduak (FIRST) eta haurrak
✓ Maila guztiak
Tel.: 670 433 157
LESAKA • ETXALAR

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

## ☞ IGANTZI

# Eduardo Eugi txapeldun Getxon, hogeita bat altxaldirekin

### Baratzondoko Zahar Etxean aste honetan hasiko dira jokoan

OSKAR TXOPERENA

Fardo-altxaketan bere nagusitasuna erakusten ari da Eduardo Eugi azken bolada honetan. Urriaren 17an Getxon jokatutako Euskadiko Txapelketan ere bera izan zen garaile, fardoari bi minutuz emandako 21 altxaldiekin.



Igantziko bestetan Eduardo Eugi lanean ikusteko aukera izan genuen denok, ez fardo altxatzen bakarrik, argazkian ageri den bezala, gurdiarekin itzulika ere baizik. Ez du sasoi makala. Oskar Txoperena

**Txapelketak Baratzondon**

Heldu den larunbatean hasiko dira Zaharetxean urtero antolatzen dituzten mus eta partxis txapelketak. 15 bikote lehiatuko dira musean larunbat arratsetan eta 10 partxisean igande arratsaldetan. Finalerdi eta finalak abenduaren 7an dira egitekoak, eta sari banaketa eta bazkaria, berriz, abenduaren 10ean. Bazkarian parte hartzeko abenduaren 3a baino lehen eman beharko da izena, 3.500 pezeta ordainduz. Liga abenduaren 2rako akautua izanen dutenez, txapelketa azkarra edo tximista eginen dute 4ean, hau da, egun berean hasi eta akautuko dena.

**Kultur egunetako erakusketa**

Ari da poliki-poliki Kultur egunen egutegia lotzen. Egitarau estua izanen da abenduaren 4tik 8ra bitartekoa. Jendea gauzak prestatzen joan ahal izateko, erakusketaren gaiaren berri emanen dugu: eskuz egindako laboreak. Biltokiren eskutan egoten da erakusketaren antolaketa, eta iaz bezala, aurten abenduaren 8an izanen da. Trapu zaharrak harrotu!

**Behar Bidasoak 2.900 kilo janari bildu ditu**

Ez genituen azkeneko alean Angolarako emandako laguntzaren datuak ongi paratu. Igantzin eta Arantzan 2.900 kilo janari bildu ziren eta ez 300 kilo guk paratu genuen bezala. Bi herrietako lagun koadrila polita bildu zen kamioiak kargatzera.

**Ikastaroak**

Guraso Elkarteak antolatutako euskara ikastaroetan hiru lagunek eman dute izena. Kopuru horrekin hastea nahiko zaila denez, euskara landu nahi duten lagunak hemendik animatzeko eskatu digute. Klaseak 2,30etatik 4,30tara izanen lirateke eta ez da gurasoa izan behar izena emateko. Animo!

Gimnasi ikastaroei, berriz, segida emanen diote aurten ere. Azaroarekin batera hasi dira eta astelehen eta ortzegun ilunabarretan bilduko dira eskolako gimnasioan. Honetan ere izena emateko aukera baduzue oraindik.


IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

FOTOKOPIAK
txuri beltzean
KOLORETAN
PLASTIFIKAZIOAK
ENKUADERNAZIOA
IRUDI
KULTUR ETXE AURREAN
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Zeztegaina 26 Eskuinekoa-Behea 31780 BERA
Tel-faxa: 948 63 15 21

CONSTRUCCIONES MECANICAS
BERRIZTUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, erreKtifikadorak
Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313


ALDO OSTATUA
LESAKA

## ARANTZA

# Kanposantua nola handitu behar den galdetu zaie herritarrei

Nitxo edo panteoien artean zer aukeratzen duten galdegin zaie

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko Etxeak etxez etxe bidalitako karta batean jakinarazten zen bezala, kanposantuan handitze lanak egin behar dira. Hori dela eta, Herriko Etxeak jakin nahi du nitxo edo panteoien artean zer aukeratzen duen jendeak, horren arabera egiteko lanak. Eskaerak egiteko epea aste honetan akautuko da, eta Herriko Etxean bertan egin ahal izanen da.



**Aurten ere ospatu da Baserritarren Eguna**

Kultur Egunei akabaila emateko Baserritarren Eguna egin da aurten laugarren aldiz. Besta egun berezia izan zen astelehenean herrian, Domisaindu egunarekin batera egokitu baita aurtengoan. Urtetik urtera barazki eta gure baserrietan egiten diren produktu gehiago azaltzen dira plazara. Artxibokoa

### Besta antolatu du Gazte Asanbladak abenduaren 18an

Herriko Gazte Asanbladak berriro ere antolatu duen bestaren berri zabaldu da herrian. Abenduaren 18rako prestatzen ari dira jaialdia eta oraindik nahiko abudo bada ere, badakigu zer izanen den ikusgai. Azken bileran erabaki zenez, arratsalde partean antzerkitxoak izanen dira. Horretarako, edozeinek bakarka edo taldeka prestatu beharko du nahi duen ikuskizuna. Ondoren, afari ttiki bat eginen da, opil jatea edo horrelakoren bat. Gau partean, oraindik zehaztu gabeko musika taldea etorriko da. Nahi duen guziak parte hartzen ahal du egun honetan, eta hemendik denei animatu nahi dizuegu.

## flash

**Denda berria**

Aste honetan irekiko da denda berri bat herrian. *Aldapa* izena izanen duen denda honetan, bate zere liburuak, egunkariak eta opariak izanen dira salgai. Ana Larretxeak irekiko duen denda hau, Martiseneko maldan dago.

**Orbela taldea larunbatean**

Larunbat honetan, azaroak 6, arratseko 8,30etan Orbela folk taldearen emanaldia izanen da, Nafarroako Gobernuak prestatutako Udazkeneko Biraren banean.

**Idoia Etxeberria UEMAko ordezkaria**

Idoia Etxeberria zinegotzia izanen da udal ordezkaria Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean.


ZALAIN
JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
© 948 631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

LEGARRA
Legarrea, 9 • © 948 637 030 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira


MARTIKO
Gure baserrietako produktuak
© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA


PAGOLA
TXISTORRAK BADU BEREZKO IZENA
948 630 054
Altzateko plaza, 2
BERA

## EZKURRA

# Dantza saioa eta pilota partidua antolatu dira igande honetarako

### Gure Txokoa dantza taldea arituko da Udazkeneko Biraren banean

TTIPI-TTAPA

Igande honetan, azaroak 7, Nafarroako Gobernuak antolatutako Udazkeneko Biraren kultur ekitaldia ailegatuko da Ezkurrara. Berako Gure Txokoa dantza taldeak emanaldia eskainiko du, eguerdiko 11,45ak aldera.

Ekitaldi hau aprobetxatuz, beste zerbait antolatzea pentsatu zuen Udalak eta kulturari kirola lotu dio. Honela, dantza saioaren ondotik, afizionatuen arteko pilota partidua ikusteko modua izanen da.

Alde batetik, Baleztena eratsundarra eta Mitxeo saldiastarra ariko dira, eta bestetik Goizueta goizuetarra eta Iruñeko Elizondo. Punta puntako pilotari afizionatuak direla kontuan hartuz, igande eguerdi polita pasatzeko modua izanen dute Ezkurran.



**Ageri denez, garai hobeak ezagutu ditu Ezkurrako eskolak. Adineko jendeak gogoratzen duenez, hirurogei mutiko eta beste horrenbeste neska izan ziren zenbait urtetan.**
Artxibokoa

### Ezkurrako eskola itxi da ikasturte honetan

Halere, denak ez dira berri onak Ezkurran, Ikasturte honetan eskola itxi baitute. Joan den urtean bost haur zituzten Haureta Lehen Hezkuntzan. Aurten, horietako batek adina bete eta Leitzara joan behar zuen DBH ikastera. Nafarroako Gobernuak ez du lau ikaslerekin eskola zabalik mantentzea onartu. Honenbestez, Ezkurrako neska-mutikoek Leitzara joan behar dute eskola hartzera, horien artean aurten hiru urterekin hasi den ikasle bat.

Lehen aldiz, beraz, Ezkurran ez da eskolarik emanen. Herri txikiak hustutzearen beste ondorio bat.

## MALERREKA

### Oihan enkantea Donamaria eta Beintza-Labaienen

Donamaria eta Beintza-Labaiengo udalek bi pago zuhaitz lote enkante bidez saltzeko asmoa dute.

Donamariako zuhaitz lotea Argibel inguruan dago eta guzira 2.063 pago ditu. 2.180 metro kubiko zur eta 385 metro kubiko egur xehe emanen dute. Lehendabiziko enkantean, hasierako prezioa 28.216.150 pezetakoa zen, baina proposamenik aurkeztu ez zenez, orain %10 jautsiko da prezioa.

Beintza-Labaiengo udalak, bere aldetik, Leurtza inguruan dagoen lotea atera du enkantera. 1.330 pagok osatzen dute lotea, 1.228 metro kubiko zur eta 316 metro kubiko egur xehe emanen dutenak. Hasierako prezioa 15.056.408 pezetakoa da. Proposamenak, azaroaren 10eko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.




EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

Ibarrola Mertzeria
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 - Doneztebe
948450463

BEINTZAko OSTATUA
✆ 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

CONSTRUCCIONES SALDIAS
ETXEGINTZA OROKORRA
Teilatu eta fatxada berritzetan espezializatuak
Pintura lanak eta gremio guziak
✆ 607 434397 • 689 701369 • LEGASA
NAFARROA GUZIAN ARITZEN GARA

## DONEZTEBE - SUNBILLA

# Baztan-Bidasoako areto futbol txapelketa onenaren edizio berri bat aurkeztu dute

### Aurten, Doneztebe eta Sunbillan jokatuko dira partiduak

PATXI IRIARTE

2000. urtean burutuko da zortzigarren urtez Baztan-Bidasoako areto-futbol txapelketa. Orain arteko onena izatearen itxura hartu du eta hori ez da batere errexa. Hogei taldek izanen dute lekua txapelketa honetan, bosna taldeko lau multzotan banatuak. Lehendabiziko faseko partiduak Doneztebe eta Sunbillan jokatuko dira, hilbeltzaren 2tik aitzinera. Azken txapelketetan partidu guziak Doneztebeko pilotalekuan jokatzen ziren, baina hau libre topatzea miraria da gaur egun: paleta, eskubaloia, aizkora, erremonte eskola… Polikiroldegia egiten dutenean arazo hauek moldatuko dira.



**Titi Ostatuak eta Kaifas Club taldeak jokatu dute azken bi urteetako finalak.**
Artxibokoa

#### AZAROAREN 20AN AKITUKO DA IZEN EMATEKO EPEA

Erran bezala, hogei talde ariko dira, baina dagoeneko hamaseik aurrez emana dute izena, beraz, bertze laurendako lekua izanen da. Azkeneko bi txapelketak irabazi dituen Titi ostatuarekin batera, Berako Errekalde ostatua, Arraioz, edo aurten konpetiziora itzuli den Legasako Xanpale taldea daude faboritoen artean. Txapelketa sortu zen herrira, Sunbillara itzuliko da aurten eta bertatik Fonda ostatuko taldeak ere parte hartuko du. Momentuan izena eman ez dutenen artean dago azken bi urtetako finalista, Kaifas Club taldea.

Aitzinetik falta diren lau taldeak apuntatzen ez badira, izen ematekoepea azaroaren 20an akituko da.

#### FINALA MARTXOAREN 5EAN DONEZTEBEN

Hasierako ligaxkaren ondotik, multzo bakoitzeko bi talde onenek jokatuko dute bukaerako fasea. Final laurdenetatik aitzinera partidu guziak Donezteben jokatuko dira eta finala martxoaren 5ean

### Bertso afaria azaroaren 20an Ulibeltzak elkartean

Azaroaren 20an, arratseko 9etatik aitzinera bertso afaria izanen da Sunbillako Ulibeltzak elkartean. Mañukorta eta Manolo Arozena ariko dira bertso kantari. Ulibeltzak elkartetik azpimarratu dutenez, ez da beharrezkoa bazkidea izatea afarira joateko. Txartelak salgai izanen dira herriko ostatuean azaroaren 17a bitarte.

### Gastroenteriti eritasunak Doneztebe eta inguruko haur aunitz kolpatu ditu

Joan den astetik, Doneztebe eta inguruko gurasoak nahiko kezkatuta daude. San Migel eskolako haur aunitz beheitikoarekin zegoela ikusi eta azterketak egin ondotik, gastroentiritiak jota zeudela adierazi zuten Doneztebeko Osasun Zentrotik. Haseran, San Migel eskolako eta herriko urak aztertu zituzten baina, nonbait, arazoa ez da urarena. Gainera, Elgorriaga, Ituren eta inguruko herrietako haurrak ere eritu zirela ikusi zuten gero.

Beraz, hau idaztekoan Osasun Zentroan oraindik ez dakite zerk eragin duen gastroenteriti-helderia.

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA
MENGHINI AKORDEOIAK
Angel Manuel Belio
AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU
Deskontuak akordeoiak erosterakoan
DOMIÑENEA Etxea
San Andres Karrika, 40
NARBARTE
© 943 - 61 50 55

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tel: 948 45 04 91

# ☞ ITUREN

## Aurtizko San Martin bestak, azaroaren 10etik 14ra

Pilota partidu ikusgarria izanen da egun haundian

**Asteazkena, 10**
**Arratsaldeko 8etan:** altxaferoa. Ondotik, Aurtizko txistulariak eta trikitilariak ibiliko dira karriketan barna. Gero, zopak izanen dira Aurtizko Ostatuan. **10etan**, gazteen afaria Ostatuan. Ostatuan berean dantzaldia izanen da JOXE ANGEL akordeolariaren eskutik

**Ortzeguna 11**
**San Martin Eguna**
**9etan** argi-soinuak txistulariekin. **11etan**, Meza Nagusia San Martin elizan. **1etan**, pilota partiduak Koianea-ttikia pilotalekuan. Lehenik Iturengo gaztetxoak ariko dira eta ondotik: Leitza eta Apeztegia, Haritz eta Almandozen kontra. Arratsaldean, dantzaldia JOXE ANGELekin. **9,30etan** auzo afaria soziedadean. Afal ondotik, bertsolariak ariko dira. Bertsolariek akitzen dutenean dantzaldia JOXE ANGELekin.



1970ko argazkian Irene Betenekoa, Joxe Angel Betenekoa, Joxe Mari ostatukoa, Martintxo Etxeberrikoa, Fermintxo Katxalenekoa, Patxi Etxeberrikoa, Karmelo Betenekoa, Luixito Katxalenekoa eta Anttonio tailerrekoa ageri dira.

**Ortzirala 12**
**Haurren Eguna**
Goiz eta arratsaldez, haurrendako jokuak. **7etatik 10etara** Ainara, Arkaitz eta Leire trikitilariek berotuko dute giroa. Gauez, dantzaldia JALISKO BAND taldearekin. Zopak banatuko dira Aurtizko Ostatuan.

**Larunbata 13**
Goizean argi-soinuak. **5etan** trikiti jaialdia. Ituren, Bera, Sunbilla, Sara, Labaien, Saldias, Baztan eta Leitzako trikitilariek parte hartuko dute. Antolatzaileak, Amaia Irastorza, Ainhoa, Ainara eta Arkaitz dira. Gauez JALISKO BAND taldea.

**Igandea 14**
Goizean argi-soinuak Fermin danbolin-jolea eta Makutso txistulariarekin. Eguerdian meza. **1etan** pilota partidua. Arratsaldeko **7etatik 10,30etara**, Mikel eta Ainara musikariak ariko dira. **10,30etan** besten akabaila.

### Ibilbide turistikoa antolatuko da

Herri inguruan, eraikuntza interesgarrien barna igaroko den pasealekua egiteko asmoa du Iturengo udalak. Bertzeak bertze, kisulabeak, teileria, labaderoa, eliza, Lasagako zubian barna igaroko da ibilbidea. Nafarroako Gobernuko Turismo Departamendutik milioi terdi pezetako dirulaguntza eman dute eta Udalak dagoeneko aukeratu du lan hauek eginen dituen enpresa. Gasteizko Galemys izanen da, 1.475.436 pezetaren truke bidearen diseinuaz eta seinalizazioaz –panel batzuen bidez– arduratuko dena. Publizidade liburuxkak ere argitaratuko ditu enpresak.

# ☞ MALERREKA

## Doneztebeko feriei buruzko gehigarria hurrengo alean

Doneztebeko feria eguna azaroaren 19an izanen dela kontuan hartuz, TTIPI-TTAPAK argitaratzen duen gehigarri berezia hurrengo alean, azaroaren 18an karrikaratuko denean azalduko da. Programaren xehetasunik ez dugu oraindik, baina beti bezala, herri kirolak tarte berezia izanen du. Arratsaldeko 5,30etatik aitzinera, Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren finala eta Euskal Herriko jubenilen txapelketaren finala jokatuko dira. Lehendabizikoan, Mikel Mindegia, Floren Nazabal, Antonio Senosiain, Antonio Jaunarena eta Jose Juan Barberena ariko dira. Bigarrenean, berriz, Javier Yabara, Arkaitz Iriarte eta Asier Larretxea arraioztarra ariko dira.



## Marcelino Santes... Zubietako onddo...

Guzira, berrogei bat kilo sartu...

Zubietako Isabelea etxeko Marcelino Santestebanek, bere bi anaiekin batera onddo kilo mordoxka bildu du ditu Zubietako mendietan. Argazkian ageri den kilo eta laurdeneko horrekin batera, lerro hauen azpian ageri den onddo mordoxka hori ere hartu zuen. Geroztik, zortzirehun

Lurra
Landa-lurraldeari buruzko aldizkaria • 17. zenbakia • 1999ko azaroa







EMIGRAZIOA

# EUSKALDUNAK AMERIKETAN

**2-9. EUSKALDUNAK AMERIKETAN:** Estatu Batuetan ikasten eta lan egiten dauden Garbiñe Elizegi lekaroztarra eta Alicia Aleman elizondarrak, eta Elkoko Euskal Astearen aitzakian joan zen Estitxu Arozena lesakarrak egindako artikuluekin, bertan bizi diren euskaldunen errealitatera hurbiltzen saiatu gara.

**12-13. KONTU ZAHARRAK:** Harginaineko Jean Battit eta Trixoiteiko Antonioren arteko parioa Senperen eta Leitzako Ibero dorreko kontuak.

**16. ELKARRIZKETA:** Chris Upchurch, euskaraz ikasi duen Estatu Batuarra.

# Bi baztandar Estatu Batuetan

**Euskaldunek Ameriketan izan duten eta duten bizimodua ezagutuko dugu hurrengo orrialdeetan. Hasteko, Baztango bi neska gazteren esperientzia azaltzen duten artikulu luzeak dituzu esku artean. Garbiñe Elizegi lekaroztarrak kasik bi urte daramazki lanean Kalifornian. Alicia Aleman elizondarra, berriz, iaz joan zen ikastera, beka bati esker. Emigranteen azken belaunaldia dela erraten ahal dugu. Ipar Amerikako bizimoduaren berri eta euskaldunek bertan duten gorabeherak azaltzen dizkigute bi artikuluetan.**



Tomas Alkorta artzaina, bere familia eta laguntzaileekin, Oregongo Battle Creek inguruan, 1919ko apirilean ateratako erretratoan.

Orain dela urte terdi Kaliforniara etorri nintzen. Nire izena Garbiñe Elizegi da eta lekaroztarra naiz. Kalifornia hegoaldean bizi naiz hiri txiki batean. Rancho Santa Margarita da bizi naizen hiriaren izena eta Los Angeles eta San Diegoren artean dago. Hiri hauetara ordu bateko bidea daukat kotxez. Hemen familia batekin bizi naiz, beraien bi haurrak zaintzen ditut goizetan, eta arratsaldetan eskolara joaten naiz. Erizaintza ikasten ari naiz eta beste bi edo hiru urte gehiago gelditzeko asmoa daukat. Gustora nago hemen eta oso esperientzia interesgarria izan da neretzat beste kultura ezagutzea. Halere, Euskal Herriko jendea eta giroaren falta sentitzen dut, batez ere familia eta lagunak.

Zergatik etorri nintzen? Hasieran lanean denboraldi bat pasa, diru piska bat aurreztu eta bidaiatzeko asmoa neukan. Bitartean ingelesa praktikatzeko eskolara joan nahi nuen. Hemen, Ameriketan sortua naizenez aukera ezin hobeak aurkitu nituen ikasteko. Hortaz, gelditzea erabaki nuen. Oraingoz oporretan bakarrik bueltatuko naiz karrera bukatu arte. Eguberrietan bi asteko joan behar dut bisitatzera. Chinotik 20 minutura nago eta hara aunitz joaten naiz Euskal Etxera. Centro Vascora ere maiz joaten naiz.

Nere gurasoek 12 urtez egin zuten lan jatetxe honetan. Han denbora asko pasatzen genuen nire ahizpek eta nik txikitan. Euskaldunak egunero biltzen dira Centro Vascon. Janaria euskaldun erara egin eta zerbitzen da. Igande goizetan pilota partiduak izaten dira, jatetxe ondoan dagoen frontoian, horren ondotik bazkaria eta gero musean aritzen da jende gehiena. Peio eta Monique Berterretxe dira Centro Vascoren jabeak, hauek ere Euskal Herritik etorri, diru piska bat aurreztu eta jatetxearen negozioan sartzea erabaki zuten. 28 urte daramate jatetxearen arduradun gisa.

*Estatu Batuetako gerra zibila akitu zenean ardia eta ardi larruaren eskaria igo zen. Orduan hasi ziren euskaldunak ardiekin lanean, gehienak etorri eta lehenengo urteetan artzain lanetan aritzen ziren. Californiako lurra publikoak gutxituz joan ziren eta ardiak ekialderuntz bidali behar ziren bertze lurren bila eta hauekin, noski, artzain euskaldunak ere.*

## Euskaldun emigrazioa

Nancy Zubirik idatzitako liburutik hartutako datuak erabili ditut: *«A Travel Guide To Basque America: Families, Feasts and Festivals»*.

Euskaldunen emigrazioari buruz informazio aunitz dago. Ni saiatu naiz ahal bezain ongi laburtzen. Amerikar kontinentera Cristobal Colonekin etorritako euskaldunak omen zeuden eta batzuk lehenago etorriak ere badaudela diote, baina ni ez naiz

hortan sartuko. Geroztik euskaldun aunitz etorri dira Hego Amerikara, hango abizenei begiratzea besterik ez dago. Halere, euskaldunen iparramerikako edo EEBBetarako etorrera beranduago hasi zen. Euskaldunak, beste europear asko bezala, 1850 aldera etorri ziren. 1850tik 1860ra arte ez ziren Californiatik atera. 1869an bukatu zuten EEBBak gurutzatzen zuen trenbidea. Euskaldunen inmigrazioa gehitu zen horregatik, New York-era itsasontzian etorri eta batzuk hor geldituko ziren, baina gehienak trena hartu eta mendelbaderat etortzen ziren. Orduan etorri ziren euskaldun gehienak mutil gazte ezkongabeak ziren. EEBB-etako gerra zibila bukatu zenean ardia eta ardi larruaren demanda igo zen. Orduan hasi ziren euskaldunak ardiekin lanean, gehienak etorri eta lehenengo urteetan artzai lanetan aritzen ziren. Kaliforniako lur publikoak gutxituz joan ziren eta ardiak ekialderat bidali behar ziren beste estatuetako lur publikoaren bila eta hauekin, noski, artzain euskaldunak ere. Lehenbizi, Nevada, Oregon eta Idaho aldera abiatu ziren Wyoming eta Montanara ailegatuz. Ohitura izan da familia edo lagunak ekartzea Euskal Herritik, hortaz, nahiz eta euskal probintzi guztietako jendea egon EEBBetan, Estatu ezberdinetan euskal probintzi berdineko jendea biltzen da gehienbat. Adibidez, Kalifornian nafarrak dira nagusi, gehienbat behenafarrak, Donibane Garazi ingurukoak. Bizkaitarrak berriz beranduago hasi ziren etortzen eta hauek Idahon kontzentratu ziren. Gipuzkoar, Lapurdi eta Zuberotarrak ez ziren sekulan multzo haundietan etorri. Euskaran ere nabaritzen dira gauza hauek. Californian iparraldeko euskara da nagusi, Idahon, berriz, bizkaitarra. Euskal Herrian bezala zaila egiten zaie batzutan Californiako euskaldunei Idahokoen euskara ulertzea, eta alderantziz. Euskaldun hauek, erran dudan bezala, artzai lanetan hasi ziren, urteak mendian pasatu ondoren ia inorekin kontakturik izan gabe aunitzek diru aski aurreztu ondoren etxera bueltatzen ziren, han



**1920 urtean, Nevadako iparraldean ateratako argazkian Urbano Pedroarena artzaina ageri da, ardiak eta bildotsak zaintzen.**

etxea erosi eta beste ogibide bat aurkitzera. Bertzeak, berriz, gelditu ziren, batzuk diruaren ordez ardiak hartzen zituzten lanaren truke, bere kontura aritzeko aski eduki arte. Bertze batzuk, euskaldun jatetxeak jarri zituzten edo okindegiak. Bertzeak joan ziren eta lantegiren batean edo baratzeak egiten hasi ziren lanean. Esnea eta behiekin aritzen direnak aunitz daude Chinon adibidez. Amerikaetara etorri ziren mutil gazte ezkongabe hauek Euskal Herrira bueltatzen ziren emaztearen bila. Aunitz ezkondu eta Euskal Herrian gelditzen ziren, baina bertzeak ezkondu eta bueltatzen ziren. Emakume aunitz joan ziren ardiak zeuden zelaietara.

Hauek, artzaien arropa garbitu, janaria prestatu... hirira joateko aski aurreztu arte. Behin hirira ailegatzen zirenean umeak hazi eta etxeko lanetan aritzen ziren aunitz. Bertze batzuk kanpoan ere lan egiten zuten, etxeak garbituz edo bertzeen haurrak zainduz.

## Baztan-Bortziriak-Malerreka-Goizueta eta Leitzaraneko euskaldunak

Inguruotako jende aunitz etorri zen Ameriketara, batzuk bertzeak baino beranduago. Aunitz bueltatu ziren baina bertze batzuk hemen gelditu ziren, hemen lan egin eta familia haundi bat osatuz. Gelditu ziren hauek eta beraien seme-alabak dira gaur egun EEBB eta Euskal kultura mantendu eta bultzatzen dutenak. Kontuan hartu behar da EEBBetan dagoen kultura ezberdina dela eta euskaldunak beren kultura bertze kultura honetan integratu dutela beraien azpi-kultura sortuz. Adibide aunitz daude. Nik batzuk aukeratu ditut. Nire osaba eta izeba **Goizuetatik** etorri ziren. Nere osaba, **Juan Loiarte, Goizuetako Paskoltzenekoa**, 1963an etorri zen Kaliforniara bere anaia eta bi lehengusuengana artzain lanetan aritzera. 1967a arte egon zen arditan. 1967an bueltatu zen Euskal Herrira. 1969an berriz etorri eta lantegi batean harrapatu zuen lana. Urte bat lanean pasatu eta 1970an Goizuetara itzuli zen nere izeba **Rita Loiarte, Goizuetako Aitaborro** baserrikoarekin ezkontzera. Ezkondu eta gero EEBBetara etorri ziren biak. Juanek lantegian segitu zuen lanean eta Ritak berriz haurtzaindegia jarri zuen etxean. Juan erretiratua dago orain eta Goizuetara itzultzeko asmoa dauka bizitzera. Ritak berriz haurtzaindegiarekin ja-

*Estatu ezberdinetan euskal probintzia berdineko jendea biltzen da gehienbat. Adibidez, Californian nafarrak dira nagusi, behenafarrak batez ere. Bizkaitarrak Idahon bildu ziren. Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberoakoak ez ziren sekula multzo haundian etorri.*

# Euskal Zentruak

Nik bi euskaldun zentruko lehendakariekin hitz egin dut. Bat, Southern California Euskaldun Club (La Puente-Los Angeles)eta bestea Chino Basque Club. Biak NABO (North America Basque Organization) kideak dira. NABO EEB-Betako euskaldun elkarte guztiak edo ia guztiak biltzen dituen elkartea da. NABOk mus txapelketa, pilota txapelketa eta NABOren konbentzioa egiten diru urtero. Konbentzioa urtero elkarte ezberdin batek antolatzen du eta beraz leku ezberdin batean egiten da urtero. Aurtengoa Renon (Nevada) izanen da. Eusko Jaurlaritzarekin harremanak dituzte. Joan den urtean trainera bat erosi zuten eta Eusko Jaurlaritzari oparitu zioten. Eusko Jaularitzatik dirulaguntzak ere hartzen dituzte.

## SOUTHERN CALIFORNIA EUSKALDUN CLUB

Aita Ezpeletek (apeza) eta beste 9 lagunek fundatu zuten 1946an euskal kultura mantendu eta bultzatzeko. Orain 40 bazkide ditu. Ez dituzte bazkide gehiago onartzen. Bi ekitaldi egiten diruzte urtean, Picnica eta mus txapelketa. Picnicak edozein euskal jai baten antza dauka. Goizean meza, gero zikirojatea, horren ondoren dantzariak eta gero dantzaldiak. Bazkide hauek antolatzen dute jaialdiak. Bazkide hauek ez dute urtean ezer ordaintzen. Gaur egun lehendakaria Dominique Etxeberria da, nekazaria da bere aita eta aitona bezala. Bere aitona, Domingo Etxeberria Luzaidekoa eta bera amona, Bernardine Irigoien Erratzukoa etorri ziren Euskal Herritik.

## CHINO BASQUE CLUB

Johnny Barcelon da lehendakaria. Hau ere, EEBBetan jaio den euskalduna da. Bere aita Luzaidetik etorri zen. Chino Basque Club 60ko hamarkadan sortu zen. Chinon euskal komunitatea haunditzen ari zen eta elkartearen beharra sentitzen zuten. Inguruan zegoen elkarte bakarra Southern Californiako Euskaldun Cluba zen eta honek ez zituen bazkide gehiago hartzen. Honek ateak ixten zituen bertze euskaldunentzat. Hortaz erabaki zuten beste elkarte bat sortzea. Hasieran ez zituzten emakumeak onartzen eta Iparraldeko euskaldunak bakarrik onartzen zituzten. Gaur egun, euskalduna den edozein onartzen dute. Sartzeko kuota bat ordaindu behar da eta gero urteroko kuota bazkide izateko. Club bakoitzak bere arauak ditu, baina NABOko partaide izateko arau konkretu batzuk bete behar ditu. Hiru urtero egiten dira hauteskundeak Chinoko Clubeko lehendakari eta mahaikideak aukertzeko. Hauek izango dira erabakiak hartuko dituztenak. Arazo haundi bat baldin badago asamblea orokorra egiten da eta bazkide bakoitzak bozkatzen du. Chino Basque Clubek bi mus txapelketa antolatzen ditu urtean. Bat NABOko (bazkidentzat bakarrik) eta bestea edozeinek parte hartzen ahal duena. Hilabetean behin bakarrik egiten da dirua irabazteko. Beste diru iturria Picnica da eta hau irailan egiten dute. Clubak dantzari taldea ere laguntzen du. Chinoko dantza taldea «Gauden Bat» elkarte autonomoa da, baina bai Chino Basque Club eta bai Southern California Euskaldun Clubek laguntzen die ekonomikoki. Gauden bat dantza taldeak dantzatzen du Picnicetan eta batzutan beste tokietara ere joaten dira dantzatzera. Gauden bat internetan orrialde bat jarri du EEBBko euskaldun guztiek elkarrekin kontaktatzeko *(HYPERLINK http://www.gaudenbat.com)*.

rraituko du Euskal Herrira joateko ordua ailagatu arte. Hiru seme-alaba izan zituzten, **Michael, John eta Arantxa**. Hiruek ederki hitzegiten dute euskaraz. **Michaelek** ikasketak bukatu eta terapeuta bezala egiten du lan psikiatriko batean. **John** gizarte laguntzaile gisan lan egiten du. Lan egiten duen bitartean irakaslea izateko ikasten ari da. **Arantxa** berriz ikasketak bukatu eta Euskal Herrira joan da bizitzera. Goizuetan bizi da eta ingelesa irakasten du. **Juanito Irigoien (arizkundarra)** 1968an etorri zen artzain lanetan aritzen, gero behiak jeizten aritu zen eta azkenean baratzeak egiten. Chinon bizi da bere emaztea **Marisol, Elizondoko Perotxena etxekoa eta alaba Isabelekin**. Isabelek euskal dantzak eraskusten die haurrei eta Gauden Bat dantza taldeko dantzaria da. Lanbidez moda disenatzailea da.

## NOKA

Chinon euskal abeslariak ere badaude. Orain dela hilabete batzuk diska atera zuten NOKA taldekoei elkarrizketa egin nien. Taldea nola sortu zen, bere arbasoen historia eta beraiek euskal kulturaren egoera nola ikusten zuten galdetuz. Chinoko hiru neskek osatzen dute NOKA taldea. Hiruak EEBBetan jaio eta haziak dira. Abesti guztiak euskaraz dira. **Andrea Miren Bidart, Begoña Etxeberria eta Cathy Petrissans** dira taldekideak. Abestiak idazten dituen pertsona batek Andreari ingelesez zinta bat grabatzen eskatu zion eta honek Begoña eta Cathyri berarekin kantatzea eskatu zien. Grabatzen ari zirenean euskaraz abesten hasi ziren eta jendeari gustatu zitzaion. Hortaz euskaraz jarraitzea erabaki zuten. Taldearen helburua emakumeei buruz diren euskal abestiak kantatzea da bereziki, abesti hauek ez galtzeko. Cathy Petrissans soziologiako profesorearen asistentea da Pennsylvaniako Clarion Universityn. Cathyren aita, **George Petrissans, St. Estebanetik** etorri zen 1954an. Bere anaiak hanka bat hautsi eta haren ordez artzain lanak egitera etorri zen. Bi urte beranduago behiekin hasi zen lanean eta negozio horretan jarraitzen du gaur egun. Bere emaztea **Maite Minaberri Oseskoa** gutunen bidez ezagutu zuen. 1961an Euskal Herrira bueltatu zen Maiterekin ezkontzera eta urte berean itzuli ziren Chinora. **Andre Bidartek** psikologia ikasi du. Bi aitonak ziren Euskal Herritik etorri zirenak. Bere aitaren aita **Ibarlatik** etorri zen 1937an behiak jeiztera. Bere amaren aita berriz **Azkaratetik** etorri zen 1937an artzai lanetan aritzeko. Biak Ameriketan jaiotako euskaldunekin ezkondu ziren. Begoña Etxeberria irakaslea da San Diegon dagoen University of Californian. Gurasoak, berriz, **Orabidekoak** dira biak. Aita, **Alejandro Etxeberria, Ansoneko bordan** jaio zen. Ama **Pilartxo**, berriz, **Arrosko bordan**. Txikitatik ezagutu dute elkar. Alejandrok 22 urte eta Pilartxok 19 zituztenean bikotea izatea erabaki zuten. Alejandro Kaliforniara etorri zen artzain lanetan aritzeko bere bi anaiak **Carlos eta Pablo** bi urte lehenagotik hemen ziren, eta hirugarren anaia Juanito hurrengo urtean etorri zen haiekin elkartzera. Alejandro ez zen luze egon artzain, behiak jeizten aritu zen gehienbat 1960arte. Orduan, Baztanera itzuli zen Pilartxorekin ezkontzera. Hasieran Euskal Herrian gelditzeko asmoa zeukaten baina Californiara itzultzea erabaki zuten. Alejandro bakarrik bueltatu zen eta Pilartxok paperak lortu eta gero 1961an etorri zen.

NOKAko partaideek diotenez, inmigrateen kulturak hiltzeko arriskuan daude baina euskal kultura berriz indartsu ikusten dute. Harritzekoa dena da, nahiz eta gaur egun Euskal Herritik inmigrazioa eskasa izan euskaldunak jarraitzen dute jaialdiak antolatzen eta hauetan parte hartzen. Hauek bultzatzen dute euskal kultura. Nahiz eta kultura guztietan bezala aldaketak izan euskal nortasuna indartsua da komunitate hauetan.

**Garbiñe ELIZEGI**

**ESKERRAK**
**Chino Basque Club, Southern California Euskaldun Club, Gauden Bat, NOKA taldea, NOKA taldea eta Ttipi-Ttapa aldizkaria.**

**Agur bero bat Ttipi-Ttaparen irakurle guztiei. Goraintziak lekaroztar guztiari eta eskuminak Goizuetarrei bereziki «tximista»tarrei.**

# *Ikasle eta langile Idahon*

**Joan den urteko abuztuaren 29an ailegatu nintzen Amerikarat. Han urte osoa pasatu dut beka bati esker, ikasten eta lan egiten. Han izan dudan esperientzia azalduko dizuet.**

Idahoko aireportu ttipi batetik ikusi nuen lehengo aldiz egon behar nuen herria eta eskualdea. Bero egiten zuen, eta udazken koloretaz ohartu nintzen segidan, eguzkiak erre baitzuen belai haundi horietako belarra. Arbol bat ere ez zen ikusten ahal, nahiz eta handik ordu batera Kanadarako bidean ikarragarrizko oihanak izan. Aireportu ttipi horretan ez nuen aunitz denbora egin, maletak dagoeneko galduak baitziren bidean eta deusere gabe abiatu nintzen egon beharreko logelara. Biharamunean aldatzeko arropa eta janaria erosi, eta arratsaldean maletak aurkitu nituen atearen aintzinean. Laketzeko epea hortan akitu zen.

## Idaho hotza da neguan

Hasi ziren klaseak, lanak eta ohartu gabe neguko koloreek txuriz estali zituzten belaiak. Idahon hotz haundia egiten du neguetan. Ez omen da izan negu bortitzena, baina baztandar batendako -20 graduetako hormak aski hotzak dira. Dena dela, Estatu Batuetan nik ez dut sobera astirik izan eguraldiari buruz arrankurak egiteko, lanak aintzin atera behar nituelakoz. Nire kasuan, Amerikanoak (edo hobeki, Estatu Batuarrak) langileak direla egiaztatu da. Nirekin lan egiten zuen Tailandiako adiskidea bizpahiru aldiz eritu zen, bere herrialdean ez baitute ezagutzen 25 gradu baino guttiagoko tenperaturik. Aldi berean, horrelako martxan eta presioarekin lan egiteko ez dira ohituratuak eta egitan gaizki pasatzen zituen elurra edo hormak botatzen zituenean. Tailandiako, Japoniako eta Mongoliako jendearekin lan egiten nuelakoz, suertatu da gehienbat hango jendeak eza-



Euskal artzainak Renora 1900 urte inguruan ailegatu ondotik ateratako erretratoa. Jarrita ezkerrean Tomas Dufurrena erratzuarra.

gutu ditudala. Lehenbizian harritzen ninduten gauzetara piskanaka-piskanaka ohitu nintzen eta azkenean pikantea jaten nuen errex, ixiltasunak ez zidan molestatzen eta haiekin ibiltzean pausu txikiak ematera egin nintzen.
Unibertsitatean bertze euskaldun bat zegoen, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle bat eta harekin solasean gustora egoten nintzen, biek astia genuenean. Zenbaitetan, han ziren bertze bi zaragozanoekin elkartzen ginen eta hainbateko irriak egin ditugu elkarrekin, beti umore onez egoten baitziren *«mañiko»* horiek. Abenduan Patxi eta Pako bueltatu ziren beraien lanpostuetara eta euskaldun bakarra geratu nintzen.

## Euskaldun gehienak Boisen

Idahon euskaldunak aunitz badira. Multzo haundiena Boisen, Idahoko hiriburuan, dago. Ni nintzen herritik zazpi ordutara dago Boise, kotxea ez duen pertsona batendako nahiko urruti. Gainera, Idahoko euskaldunak Bizkaia aldekoak dira gehienak, eta nik ez nuen familia bat ere ezagutzen Boisen. Behin, Patxiren bitartez jakin nuen gure eskualdeko familia bat bizi zela nahiko hurbil. Urrian John Etulainek Patxi eta niri gonbidatu zigun futbol amerikano partidu batera eta han azaldu zidan bere ama, sortzez **Amaiurko Prudentxi Iriarte** zela eta bere aita **Ziburuko Miguel Etulain**. Nire aita eta Prudentxi barrideak zirela eta han jakin behar! Prudentxirekin solas egin nuen telefonoz eta bai bere semeekin ere Internetez. Prudentxiren bertze seme bat, Daniel, ezaguna nuen Baztandarren Biltzarra egunetik eta **Dantxarineko Pello Bentarekin** lotura egin nuen, zeren han Prudentxik bi anai (Pello eta Hermenegildo) eta hiru iloba (Xabi, Patxi eta Pellito) baititu.
Azaroan Thanksgiving besta edo Esker Emate Eguna den asteburuan gonbidatu zidaten bere etxera eta familia osoa ezagutu nuen: Prudentxi eta Miguel senar-emazteak, Lisa, Linda, John eta Daniel haurrideak, eta Lisa eta Lindaren senarrak eta haurrak. Aspaldi ez bezain ederki jan nuen, Miguelekin kantatu, Prudentxirekin solas egin eta Danielekin eztabaidatu Euskal Herriko politikari buruz. Etulain-Iriarte familiak lotura haundia dute honekin eta maizkara etortzen dira familia bisitatzera. John Seattle Euskal Etxeko batzordean dago eta Danielek, berriz, Donostian egin zuen ikasturte bat. Seattle Euskal Etxeak orain dela 2 urte hasi zuen zonaldeko euskaldunak afarietan eta picnic-etan elkartzen. Estatu Batuetan diren Euskal Etxetatik berriena da. Batez ere, bigarren belaunaldiko euskal-amerikano gazte talde batek sortu zuen Seattle Euskal Etxea, haien artean Blas Uberuaga (Interneteko Basque Page web-orriaren sortzailea), John Etulain, Graciela Etxart, Jean Esnoz, eta abar. Udaberrian, Seattle Euskal Etxekoek afari bat antolatu zuten eta harat joan nintzen Prudentxiren familiak gonbidatua. Besta polita atera zen: paella izan genuen afaltzeko, dantzan aritu, eta musean aritzeko aukera ere izan zen.



Lekarozko Garbiñe Elizegi, Elizondoko Alicia Aleman eta Donamariako Amelia Lizasoain, Coloradoko Grand Canyon edo Kañoi Haundian. Ikasi eta lan egiteaz gain, turismoa egiteko astirik ere hartzen dute azken belaunaldiko euskal emigranteek.

## Eskualdeko jende aunitzekin solastu ahal izan nuen

Sortzez Baztan-Bortziriak-Malerrekakoak ziren batzuekin solastu nintzen. **Amaiurko Errekaldeko Juanita Hogan** EEBBetara ezkondu zen 1964an, bere senarra Otsondoko Base Amerikanoan ezagutu eta gero. Hiru haurride ditu eta Euskal Etxekoek antolatzen dituzten afari eta picnicetara maizkara etortzen da. Umore ederrean aurkitu nuen **Sunbillako Konsejoko Jose Rivera Manterola**, baita bere lehengusua **Konsejoko Juan Manterola Iriarte** ere. Jose eta bere andreak Nevadan dute jatetxe bat eta Seattlelerat hurbildu ziren bere lehengusua bisitatzera. Juan, berriz, artzaina, harakina eta nekazaria izan da. Afari horretan **Amaiurko Etxebereko Bordako Pedro Etchartekin** ere egon nintzen eta **Maritorena familiako** euskal-kanadar gazte batek, Davidek, pazientziaz azaldu zidan bere osaben istorioa. Kanada aldera etorri ziren gehienak oihanetan aritzen ziren eta gero Vancouverren aldean hasi ziren bere negozioak edekitzen. **Arantzako Barazabalekobordako Pancho Leiza Petrirena** eta bere alaba **Amanda** ezagutu nituen, baita **Arantzako Barazabaleko Fidel Mitxelena Taberna** eta **Osildekobordako Conchita Iturria Mitxelena**. Sorpresa haundia izan zen 86 urteko **Erratzuko Iturraldetxarreko Magdalena Goñi Galtzagorri** ikustea: kontent kontatu zidan bere bizia. **Irisarrikoa (Iparraldekoa)** zuen senarra eta Montanan bizi izan ziren aunitz urtez: lau alabak ha-

*Idahon euskaldun aunitz badira. Multzo haundiena Boisen, Idahoko hiriburuan, dago. Ni nintzen herritik zazpi ordutara dago Boise, kotxea ez duen pertsona batendako nahiko urruti. Gainera, Idahoko euskaldunak Bizkaia aldekoak dira gehienak eta nik ez nuen familia bat ere ezagutzen Boisen.*

▼

zi zituzten eta orain erresidentzia batean bizi da, bere alabatik nahiko hurbil. Nahi dionak postal bat igorri, hau da bere helbidea: *Galtzagorry, 2956-152nd Avenue NE #362, Redmond, WA, 98052.*

Azken momentuan ere, bertze baztandar batekin mintzatu nintzen, **Almandozko Dendarietakobordako Jose Inda Otegirekin**, konprenitu nuen maneran sekulan Baztanera itzuli ez dena. Seattle inguruan ikusi nituen euskaldunei buruz mintzatu banaiz, ez da hemen akitzen nire euskal-amerikar esperientzia. Idahoko herri txiki horretan nintzenean Garbiñe Elizegirekin egoten nintzen telefonoz. Baztanetik hitza emana genuen ikusiko genuela elkar, nahiz eta urruti izan bat bertzeatik. Eguberrietan aukera etorri zitzaigun: ni Los Angelesera erosi nuen billetea, abiona hartu, eta ixtantean, eguraldi goxoa eta besta dagoen alderat abiatu nintzen. Garbiñe eta biek izan genuen Eguberrietako bakantza eder-ederrak. Suerte haundiko neskak gara: Garbiñek Los Angelesen du familia eta nik San Franciscon dut osaba (**Jose Luis Arrastio**). Eguberri eguna pasatu genuen Los Angelesen, Garbiñen izebaren etxean, Urtezaharrekoeguna nire osabaren etxean. Urtezaharrean San Franciscoko Basque Cultural Center-en afaldu genuenetamahaian baginuen **Mugaireko Goñi bertsolaria, Sunbillako Miguel Ibarra, Elizondoko Felix Istilart** eta doikebe nire osaba **Jose Luis** eta bere emaztea **Erratzuko Miltzipeneko M. Carmen Del Hierro**. Eguberri eta urtezaharraren egunen tartean, Californiako kostaldea eta Yosemite ere ezagutu genuen.

## Baztan eta Malerrekako neskak Bakersfieldeko picnicean

Hori ez ba da aski, sei hilabeteren buruan izan nuen Kalifornia joateko bertze aukera. Oraingoan, Garbiñe eta **Donamariako Amelia Lizasoain Ariztia** zeuden Kalifornian eta Bakersfieldeko picnic-era joan behar zirela bertze euskal-amerikanoekin ospatzera. Maiatzaren hasiera zen eta ni sobera lanpetua nengoelakoz ez nintzela joan behar gaztigatu nien. Lana-lan, ba eritu nintzen eta azkenean ezin izan nuen epe bat bete eta nere planak akabo: egon beharko nintzen Idahon uztaila arte seurik. Pisket indartu nintzenean Birmaniako ezagun batekin hasi nintzen solasean eta eskeini zidan leku bat bere kotxean San Franciscora joateko. Orduan, tximista bezala baietza eman nion eta berriz Kalifornia alderat abiatu nintzen. Reno ezagutu, osabaren etxean egun bakar bat pasatu eta bigarren egunean izebarekin joan ginen bestara. Bakersfielden ikusi nituen Garbi eta **Amelia Lizasoain**. Arras besta polita atera zen picnic-a, hemengo pilotariek eta, aunitz jende gazte ezaguna ikusi genuean, **Idoia Salaburu, Maitesa, Lekarotzko Iturriria familiakoak, Antton Laxague**, eta abar... Handik Garbi, Amelia eta hiruak egin genituen planak Arizonako Grand Canyona ezagutzeko, eta hementxe dituzue geronen abenturaren argazkiak.

**Alicia ALEMAN**




**1990an, Bakersfielden Euskal Besta.**

**Bi artikulu hauen egileak: ezkerrean, Garbiñe Elizegi lekaroztarra eta eskuinean Alicia Aleman elizondarra. Eskermile zuen esperientziaren berri emateagatik.**



# «Euskaldunek lehentasuna dute, baina edozein etortzen ahal da Elkoko Euskal Etxera»



## Nicolas FAGOAGA

ELKOKO EUSKAL ETXEKO ARDURADUNA.

SORTZEZ LESAKARRA BADA ERE, BERROGEITA ZAZPI URTE DARAMAZKI NICOLAS (NICK AMERIKETAN) FAGOAGAK ESTATU BATUETAN. EZ DA GUTTI, BOST-SEI URTEREN BURUAN BERE SORTERRIRA ITZULTZEKO ASMOAREKIN JOAN ZELA KONTUAN HARTZEN BADUGU. FAGOAGAK ONGI LAKETU DU ELKO ALDEAN ETA FAMILIA ERE BERTAN SORTU DU. GUSTORA BIZI DA HAN SEME-ALABA ETA ILOBEKIN. ELKOKO EUSKAL ETXEKO ARDURADUNA ERE BERA DA. ESTITXU AROZENA BERTSOLARI LESAKARRAK ESTATU BATUETAN EGINDAKO EGONALDIA PROBEXTU DUGU, FAGOAGA ETA GURE INGURUTIK AMERIKETARA JOANDAKO BERTZE ZENBAIT LAGUNEN ESPERIENTZIAREN BERRI EMATEKO.

**Zer egiten duzue urte osoan Elkoko Euskal Etxean?**

Gazteak dantza taldean aritzen dira, entsaioak egiten. Bazkideentzako afariak izaten dira, mus txapelketa martxoan eta bertan bizi garen euskaldunak elkartzeko biltokia da Euskal Etxea. Ehizira joan eta handik ekartzen duguna kozinatu eta jan… gauza aunitz. Euskaldunak eta euskaldunak ez direnak ere etortzen dira. Batzutan, ezkontzaren bat ospatzeko eta alkilatu egiten dugu, baina euskaldunak du beti preferentzia.

**Besta haundia ere urtero izaten duzue, ez da hala?**

Bai, gure besta haundia izaten da uztaileko lehenbiziko larunbat eta igandean, urtero-urtero. Ortziral arratsean egiten dugu aperitibo gisako zerbait, dantza pixko batekin, bertsolariak, aizkolariak, harri jasotzaileak. Aurten Lesakatik etorri ziren trikitilariak… Larunbat goizean pilota partiduak izaten dira eta gero , hemen parade deitzen duguna, karrozen desfilea. Aurten bazen jendea pilaka bazterretik begira. Rodeoa egiten den lekuan dantza emanaldia izaten da. Aurten Boisetik, Ohiotik, Unamokatik etorri dira taldeak, Elkokoekin batera. Gero, herri kirolak, txingak eramaten, aizkolariak, sokatiran…

**Euskara solasten dute oraindik hemen euskaldunek?**

Batzuk bai. Ez da errexa. Atta eta ama euskaldunak izanik euskaraz egiten diote haurrari, baina eskolan hasten denean zailagoa da. Badakizu, Ingelesez egiten dute eta lagunak ere ingelesak dituzte… Zaila da kontzea, baina badira kasuak euskara ongi mantentzen dutenak. Nere alaba gazteenak berak ere ongi egiten du euskaraz. Bakarrik hark Donostiara joan eta Lesakan ikasi zuela. Nahiz eta hemen jaio eta bizi, aunitz oroitzen da Lesakan utzitako lagunetaz. Gu ere bai, noski. Urrun gaude

**Noiz etorria zara honat?**

Ni etorri nintzen orain dela berrogeita zazpi urte. Han lan gutti zegoen eta lau-bortz urte pasatzeko idearekin etorri ginen. Berrogeitazazpi urte pasatu dira eta bertan gaude, kieto! Halere joaten naiz, ez nik nahi bezain maiz, baina joaten naiz. Lehendabiziko aldiz bueltatu nintzenean, hameka urte nituen joan gabe eta gauzak aldatu ziren: fabrika egiten ari ziren. Baina geroztik joan naizenean ere gauza gehiago aldatu dira, pisuak egin dituzte, jende gehiago… Orain erdi jubilatua nago eta maizago joaten naiz, bost-sei aste pasatzera. Bost-sei asteren bururako, berriz Ameriketara etortzeko gogoa izaten dut. Neretzako hau da bizia, seme-alabak, haien umeak hemen ditut.

*«Ez da errexa hemen euskara mantentzea. Atta eta ama euskaldunak izanik euskaraz egiten diote haurrari, baina eskolan hasten denean zailagoa da. Badakizu, ingelesez ikasten dute eta lagunak ere ingelesak dituzte. Halere, badira ongi eusten diotenak.*

Testua eta argazkia:
Estitxu AROZENA

MALERREKAKO EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENA

**Euskara Batzordea mintzo**

Laguntzaile:
Nafarroako Gobernua
Hizkuntz Politikarako
Zuzendaritza Nagusia

# Gazteen artean euskararen erabilera gehitzeko abian dauden programen bilduma argitaratu nahi dugu

Euskararen Jarraipena II ikerketak adierazi berri digu ezen **euskararen erabileran gehien eragiten duen faktoreak euskaldunen dentsitatea, euskaraz eta erdaraz solasteko gaitasun erlatiboa eta euskararekiko jarrera direla.**

Nabaria da haurren artean euskaldunen dentsitatea goratu dela, eta euskararen erabilera ere nabarmentzen hasteko lehen urratsa (denak edo ia denak euskaldunak izatea) betetzen ari dela. Dentsitatearen gorakada hori hauspotu duena, batez ere, eskola izan da.

Erran berri dugun gisara, ordea, **euskararen erabilerak** bertze faktoreak ere (gaitasun erlatiboa eta jarrera) aldekoagoak eta sendoagoak behar ditu, eta, horretarako, **eskolak eta eskola ez den bertze hainbat erakundek ere eragin handia dute**. Eskema horrekin, haurren giza multzoan euskararen erabilera gehitzeko lanean dihardute udalek, ikastetxeek, euskara-elkarteek eta bertze anitzek.

Haurren giza multzoan lan egiteko ardatz horiek ongi definituak badaude ere, zalantza gehiago daude gazteen giza multzoan egin behar den lanari buruz eta lan hori egiteko moduari buruz. Adibidez:

– Zer egin gazteek euskara gehiago erabil dezaten eskolan bertan?

– Zer egin gazteek euskarari buruz dituzten jarrerak hobetzeko?

– Zer egin gazteak euskara erabiltzearen eragile eta protagonista ere izan daitezen?

– Zer egin gazteek eskolaz kanpo dituzten jarduerak euskalduntzeko?

– Nola aprobetxatu herrian dauden euskarazko baliabideak (herri-aldizkariak, aisialdiko taldeak...), gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko?

– Galdera horiek, edo antzekoak, euskararen erabileraz arduratutako pertsonak (irakasleek, teknikariek, dinamizatzaileek...) egiten ditugu.

Proiektu hau, galdera horiei erantzuna bilatzen hasteko saiakera bat da. Asmatzen hasi aitzinetik, egiten ari denaren berri izateko saiakera bat da argitalpen hau. Agudo karrikan izatea espero dugu.




## Euskarazko produktuen katalogoa

Hemen da, hirugarren urtez, euskarazko produktuen katalogoa. Zorionez, urtetik urtera euskarazko produktuak ugaltzen ari dira; gero eta eskaintza haundiagoa dago euskarazko bideo, musika, liburu, joko, etabarretan.

Azken bi urteotan katalogoaren bidez, produktu hauen berri eman nahi izan dugu. Aurten ere lehendik merkatuan zeuden produktu saldu eta interesgarrienez gain, urtean zehar merkaturatu diren produktu berriak agertu nahi izan ditugu.

Produktu hauen bitartez, seme-alabei aukera bikaina ematen zaie euskaraz jolasteko, irakurtzeko, bideoak ikusteko, musika entzuteko eta ordenagailuan aritzeko.

Etxean zein ikastetxean euskaraz bizitzeko aukera izan badute, orain ere eman euren aisialdian euskaraz gozatzeko aukera. Hori baita behar duten hazia euskarak izan dezan benetako bizia.





# Malerrekako Euskara Batzordea

Ekainaren 13ko hauteskundeen ondoren Udalak berriro osatu eta ordezkari berriekin solasteko aukera izan dugu. Irailean izan zen hauteskunde ondorengo lehen bilkura, bileran zehar euskararen egoeraren kezka azaldu zen nabarmenki. Egoera sozio-ekonomiko-demografikoak euskararengan duen eraginaz jardun ziren luze eta zabal. Goazen bada, solastutakoak laburbilduta hona ekartzera:

• Malerrekako herri ttikiak hustuz doaz, eskolak ixten segitzen dute eta gazteak ikastera zein lanera kanporat joaten dira. Berez bizilagun guttiko herriak ditugu eta gainera, herritarrak lan eske kanpora joaten direnean eremu erdaldunagoetara joaten dira.

• Euskaldunen kopurua eta euskarazko jarduerare kopuruak alderatuta desoreka handia azaltzen da. Etorkizunari begira gazteen euskararen erabilera baxua kezkagarritzat jo dute.

• Egoera formaletan euskara gutti erabiltzen denez, alfabetatzeko beharraz jardun ziren: erabilera idatzia sustatu behar delakoan.

• Euskara Batzordeko lehentasunak zehazterakoan:

1) GAZTEEN multzoa lehenestea erabaki zen; etorkizuna euren esku dagoelakoz.

2) Doneztebe izatea lehentasun osokoa: bizilagun gehien biltzen dituelakoz, pisu sozio-ekonomikoa duelakoz eta gaztelerak indar handia duelakoz.

3) Euskararen erabilera sustatzeari eman zaio lehentasuna: udaletxean, bake epailearekin, alkatearekin,... euskaraz solasteko eta edozein "paper kontu" egiteko euskaraz idazteko ohiturak sustatzeko.

• Haurrak euskara ikasten dutenez euskara "salbatua" dagoela pentsatzen duena bada. Informazioa hedatu beharra azaldu da, euskara eta munduko bertze hizkuntza guttiagotuen egoera ez baita lasaitzeko modukoa, bizi dugun "boom" kultural, teknologiko, etabar handi horren eraginaren aitzinean euskara zaindu nahi badugu gaiari kontzienteki heldu behar zaio.

• Orohar erdararen aldeko joera azaltzeko, inertzia, utzikeria eta kontzientzia falta, aipatu ziren faktore erabakior bezala.

• Bertzeen artean aipatu zen, euskara gaur egun bizirik bada etxeko esparruan zaindu delakoz izan dela. Gaur egun aldiz, etxeetako sukalde xoko anitzetan gaztelera erabiltzen da, gaztelerak hartu du betittik euskararen esparrua izan den espazio hau ere; erraterako, gurasoen artean gazteleraz jardutea arrunta da, nahiz eta seme-alabekin euskaraz jardun.

• Aipatu zen euskararen aldeko baliabideak inoiz baino indartsuago ditugula: komunikabide euskaldunak, Euskara Zerbitzuak administrazioan, Euskara Taldeak, ikastetxeen ekimena... eta Malerreka eskualde euskalduna denez borondate "pixko bat" aski dela euskaraz bizitzeko.

Puntu aipagarrienak bildu nahi izan ditut, nahiz eta hainbat aipatu gabe utzi. Euskara Batzordekidearen funtzionamendua zehaztu nahirik hileroko lehenengo astelehenean biltzea erabaki zuten eta 2000. urteko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Plangintza lantzen hasi dira, arestian aipatu bezalaxe gazteei, administrazioari, aisialdiari eta merkataritzari lehentasuna emanez.

Euskara Batzordearen izaeraz ere jardun ziren eta Euskara Batzorde idekiaren beharra azpimarratu zen. Udal Ordezkariak eta euskararen alde lan egin nahi duen herritarra bilduko lukeen gunearen beharra, alegia. Euskara sustatzeko herritarren partehartzea ezinbertzekoa denez, elkarlanaren bidez informazioa... koordinatzeko gune bilakatzea litzateke batzorde irekiaren funtsa. Nolabait, Malerreka guztiko euskaltzaleen indar-eragile guztiak koordinatzeko.

Beraz, hemen azalduta doaz Euskara Batzordekideen lan ildo eta hausnarketarako zenbait bide.

## Euskalkien erabilera Administrazioan

### Administrazioan euskalkiek lekurik ba ote dute?

Galdera hori erantzuteko, bi ikuspegi kontuan hartzea, bi maila bereiztea proposatu digu **Miren Azkarate** euskaltzainak, jarraian bere iritzia ezagutzeko aukera izanen dugu.

«Batetik, hizkuntzaren beraren atalak edo osagaiak; bertzetik, administrazioan aurkitzen ahal ditugun erabilera eremuak. Bigarren puntu honen argitan zehaztu beharrekoa da administrazioan eremu hagitz desberdinak aurkitzen ahal ditugula. Autonomia Erkidego osorakoak (Eusko Jaurlaritzako edo Nafarroako Gobernuko testuak), lurralde bakoitzekoak (Foru Diputazioetakoak) edo herri-mailakoak (udaletakoak) behintzat erraz bereizten ahal dira. Zenbat eta eremua zabalagoa izan, orduan eta zorrotzago eutsi estandarrari, ahalik eta forma hedatuenak aukeratu, elkar ulertzea erraztuz. baina zenbat eta eremu ttikiagorako izan testua, orduan eta aukera gehiago euskalkiko edo azpieuskalkiko formak erabiltzeko, bai morfologian, zein hiztegian edo joskeran. Eta hiztegi-kontuetan, sistematikoki aukeratzen ahal ditugu, Gipuzkoako, Bizkaiko Lapurdiko eta Nafarroako formak.

Ahoz ere, zenbat eta eremu mugatuagoa izan administrazioguneak, orduan eta errazago euskalkia (ia) bere osotasunean erabiltzea.

Azkenik, lanpostuaren mailak ere badu zer ikusia: erantzukizun handiko edo maila garaiko lanpostuek hizkera zainduagoa erabiltzea eskatuko lukete, bai ahoz eta bai idatziz. Maila apalagokoetan, ostera, askoz errazago izanen da euskalkiaz baliatzea».

# Nafarroako bizilagunen hizkuntza gaitasuna




**Oharra:** Zirkuluen tamaina eremu bakoitzeko biztanleriaren araberakoa da.

Iturria: 1996ko soziolinguistikazko inkesta

Nafarren artean hamarretik bat (%9,4) elebiduna da, hamarretik bertze bat (%9,8) elebidun hartzailea, eta gainontzeko gehiengoa (%80,6) erdaldun elebakarra. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, hizkuntza eremu euskaldunak ezaugarri bereziak ditu Nafarroako gainerako tokien aldean.

Eremu euskaldunean, biztanleriaren erdia baino gehiago (%57,6) elebiduna da, eta gutxiengo bat (%2,3) euskaldun elebakarra; elebidun hartzaileak %7,4 dira eta erdaldun elebakarrak herena (%32,7).

Eremu mistoan, ordea, biztanle gehienak (%81,6) erdaldun elebakarrak dira. Elebidun hartzaileen portzentaia %13koa da, eta elebidunena %5,4koa.

Eremu ez-euskaldunean, ia biztanleria osoa (%93,2) erdaldun elebakarra da. Elebidun hartzaileen portzentaia adierazgarria da (%6) eta ia ez dago elebidunik (%0,8).

Ikus dezagun honen grafikoa goiko aldean:

# Nola bete «instantzia» bat Herriko Etxean?

Ez dela erraza! Nola euskaraz, hala erdaraz. Hori lana ematen duena! Bai bada, "instantzia" betetzeaz ari gara. Zirujau ospetsu batek ere hala aitortu zuen lehengo batean: "*Cada vez que voy a la Administración salgo con un complejo de inútil… porque soy incapaz de rellenar un impreso*". Hor dago bada, koska; edo hobeki errateko, hutsunea! Gai honi buruz Jexux Eizagirre-k izan duen esperientziaren bidez, badu zer erran:

"*Izan ere, huskeria bat erreklamatzera joan eta berehala zapla erantzungo dizu funtzionarioak:* "Orri hau behar duzu". *Eta jakina, burua majo hautsi behar, orriko hutsuneak, zein baino zein enigmatikoagoak, egoki beteko badituzu. Bestala, igoal esango dizu irriño batez,* "egizu berriro, papera gaizki bete duzu eta". *Esan nahi baitu hutsuneetako enigma ez duzula asmatu*".

Etxea berritu nahi duzula edo Juaneseneako gela bat eskatu edo dirulaguntzaren bat eskatu edo jarri dizuten multa erreklamatu? Euskara Zerbitzuko ereduetatik kopiatu eta "eskabide-orria" tita batean egina; eta eskaera amen batean egina. Etxeko euskarak beti balio du.

Bada paper kontua erdaraz egiten duenik, "euskara berria" ez dakielakoan, edo erdaraz hobetoxeago moldatuko delakoan. Batzutan hala gertatuko da, baina gehienetan ez. Gertatutakoa idatziz kontatu behar baitugu eta euskaldunak solasturiak garenez, zailtasunak sortzen zaizkigu idazteko sasoian; ikus dezagun Udaletxera paper konturen batekin joandako baten anekdota -Jexusek azaldutakoa-:

"*Ainbat denbora dala, larogeitasei urteko amakin jun nitzan anbulatoyoa, belauneko miñakin ibilli ezinda zeolako, radiografik ateatzea. Nik ustet autua ondo utzi nula, baña berriz jun giñanian gruak eamanda zeon. Kamioyak eoteko lekuko raya ikuitzen ziola esantzun aguazillak, baña ni eno baiezkun (bai aurretik ta bai ondorenian nahiko leku zeon). Orduan gruana kobratu ziaten ta ez gutxi, amak daki zenbat, baña multaik etxiaten aipature iñ. Esantziaten asko sentitzen zutela oi iñ biarra (ama ibilli ezinda ikusi zutenian). Ta oaiñ berriz bost milla pezta? Eztet uste bidezkua danik. Besterik gabe, barkamenaren esperantzan*".

Adituek diotenez, gertatutakoa kontatzea da argudiorik eraginkorrenetakoa. Gainera, kontatzeko moduak ere ba omen du konbentzitzeko indarra. **Udaletxeko paperen bat ulertzen ez baduzu, deitu lasai Euskara Zerbitzura (948 451746).** Argibideak emanen dizkizu eta.

Izan ere, gauzak behar bezala idatziz gero, edozeinek ulertu behar duela dirudi. "*Irudia da ordea, ez izana*" erranen luke Axularrek. Udaleko zenbait prozesu konplexuak dira, idatziz adierazteko eta "komunikazio naturala" da azalpenak emateko modurik egokiena: telefonoz bada ere. "*Hamaika arrazoi udaletxeari euskaraz egiteko*".

# Malerrekako IKA Euskaltegiak egoitza berria













Euskaltegiak, bere ibilbidean hamabortz urte bete dituenean, bertze urrats bat eman izan du: leku aldaketa. Hamar urte "Bliesena" lantegia izan zen lokaletan igaro ondoren, hauek utzi eta Doneztebe erdian, Eliza parean, dagoen pisu batera mugitu behar izan du. Helburuak betikoak izanik, jende helduarengana ailegatzea, hain zuzen ere, eta gehienbat eskolatik kanpo dagoena, espero dezagun kokapenak gehiengoari erraztea, herri erdi-erdian baitago.

## Eskaintza zabala behar

Urteak pasatu egiten badira ere, euskararen munduak, hainbat eta hainbat behar izaten segitzen du; batzuk ohikoak, ALFABETATZEA, gero eta behar handiagoa baita euskaraz behar bezala idatzei eta irakurtzekoa; EUSKALDUNTZEA, euskaraz solasten ez dakitenez arlo guzietan integratzeko beharrezkoa dutena eta zer erranik ez EUSKARA TITULUA gizarteak hala aginduta, ezinbertzekoa baita lanen bat lortzeko lasterketan. Aipatutakoaz gain, badira urtez urte sortzen diren beharrak eta euskaltegiak, ahal duen neurrian, beti ere, erantzun behar diena, bertzeak bertze bertako euskararen lanketa, hitanoa edo hiketan aritzeko formak, Euskaltzaindiaren (Euskararen Akademia) arauak ikastea, erdararen eraginez barra-barra erabiltzen diren modu okerrak, ea, ea...

## Euskaltegia IKA koordinakunde barrenean

Euskaltegia aipatzen dugunean, argi utzi behar da ez dela zentro aislatu eta bakarrik funtzionatzen duen zerbait; Malerrekako Euskaltegia IKA koordinakundean baitago eta honek proiektu amankomunak eramaten ditugula erran nahi du. IKA euskaltegiak 10. urteurrena bete dute aurten eta aipatzekoa da sortu zenetik, Araban bikoiztu egin dela ikasle kopurua, 1.200 izatetik 2.400 izatera pasatuz. Nafarroan ere gorakada garrantzitsua eman dela erran behar da, 800 ikasle izatetik 1.200 izatera pasatu baita, honetarako zentro berriak ere irekiz. Ikasle kopururik handiena Iruñerrian biltzen bada ere, gure eskualde honetan, Malerreka, Bortziriak eta Leitzaldeak duten garrantzia ezinbertzekoa da, urtean zehar 300 ikasle bilduz.

## Ikasteko metodoetan ahalegin bereziak

Urte hauetan zehar, lan handia egin da ikasteko metodoari eta alfabetatze-euskalduntzearen hobetzeari dagokionean, argitalpenak eginez, EGA liburua, komikian, grabaketak, ea...

Aipatutakoaz gain, ezin ahaztu urtero uda partean burutzen diren udako barnetegiak, hiru hilabetetan zehar hainbat ikasleri erantzuten baitzaio, urtero bataz bertze 300ren bat.

## Ekonomikoki euskaltegia defizitarioa da

Euskaltegiaren funtzionamenduarekin segituz, ezin ahaztu ekonomiari dagokion puntua, gauzak ez baitira gehiegi aldatzen. Hemen erran behar diru iturriak hiru direla: Nafarroako Gobernuak ematen duena, ikasle eta klase orduko 102 pezeta (iaz 1.519.344 pezeta); Mankomunitateak bere gain hartzen duena, aurrekontuaren arabera (iaz 1.312.500 pezeta) eta ikasleek ordaindu beharrekoa (iaz 975.000 pezeta). Kontutan hartu egoki funtzionatzeko 600 pezetakoa dela ikasle-orduko kostoa, eta erditsua dela jasotzen dena, norberak atera ditzala ondorioak.

Aintzinera egin behar denez, berriz ere lanari ekiteko prest azaltzen da euskaltegia eta urteetan zehar egin duen bezala edozein herritan taldea sortuz gero erantzunez; ez da ahaztu behar euskaltegia Donezteben bada ere, herri frankotan eman direla klaseak, hala nola Sunbillan, Legasan, Narbarten, Zubietan, Elgorriagan, Iturenen, Donamarian, Saldiasen... Eta jendearengan ahalik eta gehien hurbiltze asmo horretan, hain ezagunak diren Etxetik Plazara proiektuak, aldizkaria nola irratsaioa izan direla.

Mende berriaren atarian, 2.000 arrazoi baino gehiago izan ditzagun euskarak behar duen errekonozimentua izan dezan. Har itzazu astean 4, 6 edo 8 ordu eta gure hizkuntza hobeki ikasteaz gain, ongi pasatuko duzu, eta jende berria ezagutuko duzu ere.




Jexux Goñi oronoztarra, Estitxu Arozena eta Xabier Euzkitzeren artean, Oihane Enbeita eta euskal jatorriko bertze zenbait bertsolarirekin batera, Renoko Euskal Astean egindako jaialdian.

# Amerikanua eta bertsolaria?

Horixe zen, sortzez oronoztarra den Jexux Goñiri nahitanahiez luzatu beharreko galdera: Ameriketan eta bertsolari, nola da posible hori?

*«Gu etorri ginen handik eta handik ekarri ginuen bertsotarako garra* –dio Goñik–. *Gero, hemen hasi ginen Euskal Etxeetan bertsoak kantatzen. Gero apez batzuk etorri ziren, Elizagarai eta, haien idea zen mezan bertso pare bana kantatzea. Martin Gurutchet ezagutu nuen orduan eta herrietatik eta deitzen hasi ziren saioak elkarrekin egiteko eta bertso txapelketa ere antolatu zen».*

Antolatu ez ezik, txapelketaren irabazle Jexux izan zen eta Estatu Batuetako bertsolarien txapelduna dela erraten ahal da, horrenbertzez. *«Hala erraten dute. Duela hamalau urte egin zen eta orduan txapeldun izan nintzen. Orain ez da txapelketarik egiten, baina saioak egiten ditugu, hamalau-hamabortz lekuetan. Zerrikume-jatea edo ahuntz jatearen aitzakian berrogeita hamar bat lagun biltzen gara ostatuetan. Martin eta biek ibiltzen gara gehien bat».*

Euskal Herrian dexenteko sona izan zuen joan den urteko Kilometroak Gipuzkoako Ikastolen besta zela eta, itsasoz gaindi egin zen saioa. Euskal Herriko bertsolariak Tolosako tabladu gainean zeuden bitartean, Jexux eta bertze batzuk Ameriketab ari ziren. Gaur egungo teknologiari esker, bapatean aditzen ziren itsasoz bi aldetako bertsoak. Jexux Gustora gelditu zen esperientzuarekin. 1964an joan zen eta dagoeneko itzultzeko gogoa du: *«Etxea han egina dut eta hemen erretiratzean bueltatuko naiz. Hemen gustura nago, baina bakarrik bizitzeko, soltero, hura hobea da. Lana egiteko hau nahiago dut, toki hobea da eta gehixeago ere irabazten da. Tarteka itzuliko naiz. Solteroendako tristea da hau, familia egin dutenak bere aldetik segitzen baitute. Lehen bai, Euskal Etxeetan herri bakoitzeko 30 bat artzain baziren, orduan bazen umorea, baina orain ez da horrelakorik. Orain etortzen diren euskaldunak ez dira artzainak izaten normalean».*

# 44 urtez sorterrira itzuli gabe

Abel Mendegia lesakarra 1951. urtean joan zen Ameriketara artzain. Bere hiru anaiek ere bide bera egin zuten, baina Abelek 44 urte egin zituen herrira itzuli gabe. Ez da harritzekoa, beraz, herria eta senideak erabat aldatuak ikustea. *«Arditara etorri nintzen, han ez baitzen batere lanik. Zortzi lagunetik batendako izanen zen lana. Berrogeita lau urtez ez nintzen bueltatu Lesakara eta orain, lau urtez hiru aldiz joan gara. Aunitz aldatu da hura dena, lehendabiziko urtean herria ez nuen ezagutzen eta arrebak ere ez nituen ezagutzen. Orain ez dut harat bizitzera bueltatzeko intentziorik: etxea hemen dut, andrea hemen dut...».*




Abel Mendegia lesakarra, emaztea eta Estitxu Arozenaren artean.

NEKAZARITZA

# *Bortz traktoreetatik lauk ez dute ITV errebisioa gainditu Nafarroan*

**Seguritatea ziurtatu eta Nafarroako nekazal munduaren inguruko aferak ordenatu eta kontrolatzea izan ziren Nafarroako Gobernuak ezarritako helburuak traktoreen ITVa martxan jartzerakoan.**

Joan den abenduaz geroztik herriz herri ibili den inspekzioak denetara 21.828 errebisio egin ditu, hauetatik %18,5ak bertzerik ezin izan duelarik pasa inspekzioa. Gainera, espero zen datu bat zihurtatu egin da, traktore eta nekazal ibilgailuen errolda ez dagoela inolaz ere eguneratua. Baina bertze daturik ere erakutsi digute inspekzioaren ondorioek, Erratte baterako aztertutako ibilgailuetatik 5.332k ez zuten inoiz inolako paper edo agiririk eduki edo 5440k ez zituzten beharrezko paper eta agiri guziak. Horrela inspekzioa pasa zuten ibilgailuen erdiak bakarrik ez zuten inolako arazorik izan.

Bere aldetik, Industria departamentuak azterketa teknikoen kanpainaren hagitz balorazio ona egin du, nahiz beraien hitzetan oraindik goiz den makinariaren benetako kopurua zenbatekoa den jakiteko. Izan ere, lehenbiziko emaitzak aztertuz zera ondoriozta daiteke, nafarroako ibilgailuen %45ak bertzerik ez duela pasa azterketa eta bertze pare bat kanpaina beharko direla datu errealak ezagutzeko.

Gainerakoan, argiztapen edo seinalizazio arazoak izan dira atzera bota dituzten ibilgailuen gehiengoak, hiru laurdenak, erakutsi dituen akats nabarmenenak. Zerbitzuko freno edo balazta ez edukitzea, ispiluak, neumatikoen egoera txarra edo direkzio arazoak izan dire nabarmendutako bertze zenbait akats.

Baina dagoeneko industria departamentua bigarren kanpaina martxan paratzeko bidea egiten hasi da. Aitzinekoan bezala RUV Revisiones de Navarra eta TUV Rehinlad Navarra enpresak arduratuko dira azterketak eramateaz baina zenbait berritasun gehituz:




Lehenbizikoa: Ez dire dokumentazioaren aitzineko azterketarik eginen. Bakarrik homologatutakoei egindako aldaketak gordeko dira.

Bigarrena: Zertifikazioari dagokionez, orain arte lehenbizikotik atzera botatako ibilgailuen nagusiek bi motako agiriak erakusten ahal zituzten, orain tailerrekoak bakarrik izanen du balioa

Hirugarrena: Traktoreek eramaten dituzten erremolkeak, auniztan kosetxadorak edo antzekoak eramateko erabiltzen direnak, matrikulatu beharko dira, hemendik aintzinera trafiko zuzendaritzak ezbaititu luzapen bezala hartuko, ibilgailu bezala baizik.

Momentuz eta gauzak aldatzen ez badira aurtengo traktoreen ITVa pasatzeko kanpaina iaz bezala urte bukaeran hasiko da.

NEKAZARITZA ZENTSOA



## *Nekazaritza Zentsoa berritzen ari da Estatistika Institutu Nazionala*

Aurten nekazaritza zentsoa egin behar da. Eskatuko den informazioa, hau izanen da: aziendak, zenbat lur erabiltzen den belagietan, baratzetan edo arboladietan, erabiltzen den makinaria, langileen kopurua, produkzioaren komertzializazioa, etabar... Nekazariek, nahitaez, lagundu behar dute informazio hau ematen. Lan estadistikoa denez, emandako datuak sekretupean egonen dira.

Zentsoarekin lortu nahi dena zera da: gaur egungo nekazaritzaren egoera ezagutzea eta aurreko zentsoarekin konparatuz (azkenekoa orain dela hamar urte egin zen) izan diren aldaketak ikustea. Estadistika Institutu Nazionala arduratzen da lan honetaz eta Herriko Etxera joan behar da.

• PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIO






ARRANTZA

# Bakarrik 21 izoki arrantzatu dira Bidasoan sasoi honetan

**Hogeita bat izoki bertzerik ez dira atera aurten Bidasoako uretatik, iaz baino hamabortz gutiago. Azkeneko bortz urtetan beheiti egin du arrantzatutako aleen kopuruak, baina arrantzaleen ustez ez dago kontaminazio arazorik Bidasoan.**

Urteko lehen izokia Jose Esteban Telletxeak atera zuen apirilaren 14an. 5'4 kilo pisatu zituen eta kiloko 30.000 pezeta ordaindu zituen Iruñeko Hartza jatetxeak. Bigarrena atera orduko hilabetea baino gehiago pasatu zen, maiatzaren 19an arrantzatu baitzen. Ustez, bi hilabete onenetan, hau da, maiatza eta ekainan lau ale bertzerik ez ziren atera.

Harrapatutako hogeita bat izokietatik, Jose Gabriel Artolarena izan zen haundiena, 6'8 kilorekin. Ttikienak berriz, bi kilo pisatu zituen.

Hauek izan dira izokiren bat atera duten arrantzaleak: Juan Miguel Errandoneak hiru; Sebastian Gainza, Jose Esteban Telletxea eta Fermin Enerizek bi; eta Jose Gabriel Artola, Andres Urzelaieta, Jose Mari Gainza, Ernesto Gainza, Bautista Itxasa, Gregorio Urzelaieta, Jose Manuel Larrañeta, Benjamin Correa, Jose Luis Lopez, Angel Manterola, Juan Mari Manterola eta Pedro Rodriguezek bana.

Endarlatsa inguruan atera dira izoki gehienak, sei *Los Cincuenta* izeneko putzuan, lau Nazas-Montoiako turbinetan, bertze horrenbertze Nazas inguruan, bi Kaiako ur-korrontean, bi Endarlatsako turbinetan eta bertzea Artxabal inguruan. Historikoki 35 arrantza-putzu izan dira Bisasoan, Biriatuko Lamiarriatik hasi eta Unbordiraino, Lesakako Bereautik goiti. Azken urteotan, ordea, dozena erdi bat putzutan bertzerik ez da izokirik atera.



Beraz, izoki gutiago eta arrantza-putzu gutiago, baina arrantzaleek ez dute uste Bidasoan kontaminazio arazorik dagoenik. Adituen ustez, inoiz baino garbiago daude urak. Halere, N-121-A errepidean egiten ari diren lanak eragina izaten ahal dute Bidasoan, bere garaian Belateko tuneleko lanek izan zuten bezalaxe. Obra hauetatik ateratzen den hautsa errekaren hondoan pausatzen da eta arrainendako janaria desagertarazten du. Hau, ordea, aldi baterako arazoa izanen litzateke eta ez da ezkor izateko arrazoirik.

**BIDASOAN KAINABERAZ ATERITAKO IZOKINAK**

| | |
|---|---|
| 1965 | 158 |
| 1966 | 324 |
| 1967 | 150 |
| 1968 | 110 |
| 1969 | 135 |
| 1970 | 74 |
| 1971 | 47 |
| 1972 | 155 |
| 1973 | 108 |
| 1974 | 31 |
| 1975 | 102 |
| 1976 | 91 |
| 1977 | 90 |
| 1978 | 41 |
| 1979 | 37 |
| 1980 | 30 |
| 1981 | 17 |
| 1982 | 0 |
| 1983 | 35 |
| 1984 | 16 |
| 1985 | 8 |
| 1986 | 40 |
| 1987 | 49 |
| 1988 | 42 |
| 1989 | 16 |
| 1990 | 27 |
| 1991 | 22 |
| 1992 | 59 |
| 1993 | 59 |
| 1994 | 59 |
| 1995 | 49 |
| 1996 | 47 |
| 1997 | 38 |
| 1998 | 36 |
| 1999 | 21 |

ABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK •







ABELZANTZA



## Esne kupoa behin betirako uzteko kanpaina hasi da

Esne kupoa uzteko kanpaina berri bat hasi da. Iaz bezala, aurten uzten diren kupoekin fondo bat osatuko da heldu den urterako. Hortikan, kupoa haunditu nahi dutenek hartzeko moduaizanendute, aurten egin den bezalaxe. Esne kupoa betirako utzi nahi duenak abenduaren 1a baino lehen eskatu behar du. Indemnizazioei dagokienez, gaur egun duten kilo kupoaren arabera aldatuko da. Honela, 25.000 kilotik goitiko kupoa dutenendako kiloko 50 pezeta ordainduko da eta 25.000 kilotik beheitiko kupoa dutenendako, berriz, 60 pezeta kiloko. Tramitea hau egiteko Nekazal Bulegoetara joan behar da.

KONTU ZAHARRAK

# *Harginaineko Jean Battit eta Trixoiteiko Antonioren arteko parioa Senperen*

Euskaldunak betidanik ukan du parioak egiteko usaia. Senpertarrak ere ez ziren ez labur gelditzen. Hala, aintzinako batean, aipamen haundia ukan zuen Santsin zenaren parioa argitaratu ginuen, 50 urtekin Larrun Mehaineko Bordatik Santsinenara pausatu gabe 50 kilo erematea. Gaurkoak ere ez zuen entralekoa ukan: Arginaineko J. Battit [1] orgetan idi parearekin eta Trixoteiko Antonio oinez zoin laisterrago Senpereko plazatik Amotzeko Uhaideko zubiraino.

Gertakari huni buruzko xehetasunak ukaiteko Harginaineko etxeko semea den Frantxoarekin mintzatu gira, berak aski hurbiletik bizitu baitzuen pario hori.

**Zer karietarat egin zen pario hori?**

Estakulu guziak on ziren parioak egiteko. Merkatu egun batez, gure aitazenak belarra plazarat eramaki zuela, idi parea sorkan ari zitzaion, gazteak baitziren eta ez arras heziak. Gure aita zena, joka, xixtaka, pusaka, elgar trebeska emanez entseiatu zen idi gazteak trebatzen baina hain xuxen, Trixoteiko Antoniok ikusi zuen.

Zuraideko arrobian elgarrekin lan egiten baitzuten, Antoniok ez zuen aita zirikatzeko okasione bat galtzen: *«Ba, bai politak tuk animaliak, ederxkoak tuk, behiak doi doia xutik atxikitzen».*



Harginaineko Frantxoa idi parearen aitzinean



Harginaineko Jean Battit



Trixoteiko Antonio

Maiz trufatzen zitzaion gisa hortako ateraldiekin eta azkenean parioa luzatu zion. Baietz berak oinez Senpereko plazatik Amotzeko Uhaideko zubirainoko bidea, gure aitak idiekin baino fiteago egin.

**Noizkoa da parioa?**

Istorio honek bederen 45 bat urte ditu. Gaur gure aita zenak 91 urte izanen zituen eta parioa egin zutenean 50 bat zituen. Antoniok zerbait gehiago, zahartxeagoa zen.

**Eta zer pariatu zuten?**

Ongi oroitzen naiz, diru ainitz jokatu zuten. 100.000 libera, gaurko 20.000 libera berri.

**Nola iragan zen parioa?**

Parioa astelehen baterako finkatu zuten. Bezperan, eskuineko idia eri zuelako, aitak 10.000 liberen truke parioa urratu nahi izan zuen. Antoniok ezetz, izaitekotan doblea eman beharko ziola eta parioa egin zuten. Astelehenean, nik ereman nituen idiak plazarat eta biak oinez etorri ziren lanetik. Abiada Kako harakin zenaren zubiaren paretik egin zen.



Mattin Garat

Zuzenez idi parea, zaldiak bezela, uhalekin lotu beharko zuketen baina legeari ez zioten kasurik egin eta hola-hola abiatu ziren, gurea orgetan eta Antonio oinez. Idi parea laster eman zen trostean, gazte gazteak ziren, jakina. Eskuineko idia eri egonez, parean egoiteko, nahiko xixtako eta makil ukaldi hartu zituen, larrua odoldu artino. Laisterketa osoan aintzinetik joan nintzen, bizikletez, nere gibelean beti idi parea trostean eta hari segika Antonio. Antoniok Gaztanbideraino segitu zuen, baina han amor eman zuen. Nik ahal bezala geldiarazi nuen idi parea. A ze komeria! Idiak uztarriarekin lotuak errestaka ureko aldera bihurtu nituen eta han gelditu ziren, hatsa hartua.

**Erran izan da berriz uztartzeko zernahi kostatzen zitzaizuela eta idi parea okertu zitzaizuela.**

Ez, ez, nahiko prestuak ziren. Hamar urtez gure etxean egon ziren. Batzuetan largoan emanta lasterka abiatzen ziren. Itzainik gabe errex eskapatzen ziren.

**Diote ere eskolako haurrek biper egin zutela lasterkada ikusteko.**

Ez dakit, bainan bortz kantoinetan sekulako jendea bildu zen eta bidera ere ateratu ziren ikusteko.

**Harginaineko familiatik lasterkari eta pilotari haundiak ateratu dira, ez?**

Hameka ginen ta etxean! Hiru urtez segidan Larrungo itzulia egin izan dut. Nere lehen itzulian bigarren egin nuen, bigarren itzulian bidez tronpatu ginen anaia Xan eta biak eta laugarren egin ginuen. Eta azkenean, 1961ean, 25 urtekin, sasoi hoberenean irabazi nuen.

Eta anaia Mattin trinketean buruz buruka lau aldiz Frantziko txapeldun izan zen, 1971, 74, 77 eta 80an. Biranazka bi aldiz, 71 eta 78an eta plaza laxoan behin, 1970ean. Eta azkenik, lau aldiz, beti trinketean, munduko txapeldun 70, 74, 78 eta 82an.

Nahiz eta pario guzietan bezala, galtzaile bat eta irabazle bat baden Trixoteikoak eta Harginainekoak, lehen bezala, arras ongi ereman ziren.

**Joana MENDIBURU**

(1) «Bulloa» ezagunago ainitzentzat

KONTU ZAHARRAK

# Leitzako Ibero dorreak moldatzeko premia larria du

**Idatzi hinekin Ibaero parajeko baserria, dorretxea, ola eta zubiak dauzkaten moldatzeko premiak azaldu eta lehenbailehen lanari ekiteko deialdia egin nahi nuke. Ibero, Goizuetatik hiru kilometrotara dago, Urumea ibaiaren beztarrean, Leitzako lurretan. Paraje ederra eta dotorea da, aspalditik bere eskutik utzia, huntza eta itozurak garaile direla.**



**Zenbat istorio Iberoko paretatzar hauen artean gertatutakoak!**

Gaur, bereziki, Iberoko dorrearen gain zehazkizun eta gogorapen batzuk azaldu nahi ditut hemen. Etxe hau nabarmen azaltzen da besteen artean. Harrizko pareta haundiekin eta lau ixuriko teilatuarekin. Goizueta inguruko eremuetan badira beste hiru etxe lau ixurikoak eta errekondoko bide gurutzetan kokatuak: Axurako Etxegorria (Zumarreztan), Alduntzingo jauregia eta Arranbideko benta. 1396.eko idatzi zarretan irakurtzen da *"El Recibidor de las Montañas recoge el vigésimo anual de los ferrones de: Arteaga, Ibero, Zibola, Alcaso, Alduncin, Elama garaia, Elama yuso, Asura, Ollin, Lombardola, Aranola, Arrambide..."*. Ikusten dugunez, denbora batean burnia eta erreminta egiten ziren ola zaharretan ere eraikitzen zirela honelako etxeak.

Mendez mende, zenbat istorio Iberoko paretatzar hauen artean gertatutakoak!. Gure izaeraren sustraiak diran gertakizun asko, noski. Harri hauek paratu zuten gizon emakumeek pareta handien babesa behar zuten. XIV. mendetik hasi eta orain ehun urteraino hortarako erabili izan da dorre hau. Gaizki egileak sumatu ordu jendeak sartzen ziren beren aziendarekin dorrearen magalpean eta barrenen egoten ziren etsaia aienatu arte. Denbora latzak izan ziren hemen ere, XV. mendekoak, Nafarroako erreinuak bizitako azken urte haiek. Hona nola 1430. urtean, Gaztelarrak Gipuzkoatik Goizuetako ingurura sartu eta dena ohostu eta erre zutenean. Baita ere, denbora txarrak eta miseri gorrikoak XIX. mendeko urteak frantzesen eta karlisten hiru gerrateak. Herri hauetara karlistak egun batean pasatu eta ondoren atzetik liberalen gudarosteak etortzen ziranean. Batzuk eta besteak asetzeko gauza guztiak exkas zituztelarik eta herritarrei ehunkako janari-razioaren "eskean" ibiltzen zirenean.

*Bost ehun urtez babesleku bezala erabili da Iberoko dorrea. Gaizki egileak sumatu ordu jendeak sartzen ziren beren aziendarekin dorrearen magalpean eta barrenean egoten ziren etsaia aienatu arte.*

Denboraren poderioz honelako etxe gehienak boteak izan dira eta beren paretarriak aprobetxatuak jauregiak eta baserri berri, lasai eta erosoagoak egiteko.

Iberoko dorrearen jatorria bertako historian aztertu genezake. Badakigu 1381.eko urterarte Bera, Arano eta Goizuetako lurraldeak Nafarroako Erregearen "realengo"ko lurrak zirela eta Oñateko Kondearen eskuetan utziak eta urte hartan bertan Orreagako Kolegiataren eskutara aldatuak. Oñate bertan bada beste dorre-etxe bat Iberoko honen antza haundia daukana.

Azkenik, eta hasierako hitzetara bueltatuz, esan behar dut penagarria iduritzen zaidala batezere teilatuaren gaurko egoera txarra. Hemen etxeak teilatutik hasten dira hondatzen. Hezetasunak egurra usteltzen du eta teilatuak eta barrenak lurreratzen dira. Orain dagoen moduan ez du asko gehiago iraungo. Iberoko ingurune osoak merezi du luze gabe moldaketa on bat. Hamakina tokitan nahiko lukete honelako aberastasun historiko eta kulturala bertan eduki.

J. ETXEBERRIA

NEKAZARITZA



Idorteak esne behi eta haragitako behien sektorean izan du eraginik handiena.

# Idorteak kalte handia sortu die abeltzainei

**EHNE baserritarren sindikatuak egindako txostenak azaltzen duenez, uda honetako idorteak Euskal Herrian abeltzantza sektorea kaltetu du, esne behiak, haragi behiak eta artzantza, gehien bat. Guzira, 6.500 milioi pezetako –260 milioi libera– galerak eragin ditu.**

Belar bazkaren ekoizpena aunitz urritu da, eta mendi larreak ohi baino arinago agortu dira. Nafarroan, belar bazkaren hirugarren ebakialdia erabat galdu da, baita bigarrenaren zati handi bat ere. Halere, Gipuzkoan baino gutixiago. Hektarea bakoitzeko, 2.000 kilo belar idor galdu da banaz bertze, Hektareako 30.000 pezeta –1.200 libera– gastua sortuz, guti goiti beheiti. Nafarroan 34.500 Hektarea belagi daudela kontuan hartzen badugu, diru galera 1.035 milioi pezetakoa –41'4 milioi libera– izan da. Honi, mendi larretako 600 bat milioi pezetako –24 milioi libera– galerak gehitu behar zaio. Izan ere, larre hauek abuzturako agortuak zeuden Nafarroako zati handi batean. Honela, zenbait bailaratan beheiti egin dute aziendak bazken bila (normalean baino hilabete lehenago) edo, bertzenaz, azienden elikadura osatzeko janaria erosi behar izan dute abeltzainek.

*Hektarea bakoitzeko 2.000 kilo belar idor galdu da banaz bertze, Hektareako 30.000 pezeta inguru. Nafarroan 1.035 milioi pezeta galdu dira belarretan.*

Hau gutti ez balitz, zenbait baserri, putzu edo edan lekuetan urik ez zegoenez, aziendendako ur-zisternak ekarri behar izan dituzte zenbait lekuetan.

Galera guzi hauek saihesteko, Nafarroako EHNE sindikatuak laguntza eskariak luzatu dizkio Nafarroako Gobernuari. ■

## Idiazabal Kontseilu Arautzailerako hauteskundeak azaroaren 17an

Idiazabal Kontseilu Arautzailerako hauteskundeak azaroaren 17an, goizeko 9,30etatik arratsaldeko 6etara eginen dira. Botua emateko hiru mahai izanen dia, bat nafarrentzat, bertze gipuzkoarrentzat eta bertzea bizkaitarrentzat. Nafarrei dagokienez, Lekunberriko laborategiko mahaira joan behar dute.

Idiazabal Jatorrizko Izenak burutzen dituen bigarren hauteskundeak dira. Lehendabizikoak 1994an egin zirenez, berez, 1998an egin behar ziren, lau urterako baliobaitute. Halere, 1998. urte bukaeran Nafarroako Nekazal Ganbarako hauteskundeak zirenez, aurten arte gibeleratzea erabaki zen.

Idiazabal Jatorrizko Izenaren Kontseilu Arautzailean produkzio arloko sei ordezkari daude (gaztandegiei esnea ematen dioten artzainak, alegia), hiru Nafarroatik eta hiru Euskadiko Elkarte Autonomotik eta gasnagintza arloko bertze sei ordezkari (2 gasna egiten duten artzainak eta 4 gaztandegi industrial) daude.



## BARATZE XOKOA

### GOMENDIOAK

**UDAZKENEKO LANAK**

**Izurriteen kontrako tratamenduak**

Garai hau, arboletan lehenengo tratamendua emateko tenore ona izaten da. Olio minerala erabiltzea komenigarria izaten da, horrela egon daitezken izurriteak uxatuko ditugu. Xomorroak erortzeko dauden ostoetan egoten dira, negua pasatzeko. Gisa honetako olioak, intsektuarekin kontaktoan jartzen direnean bere gorputzean hedatzen dira, itto arte. Bigarren tratamendua neguaren bukaera bitarte uzten ahal da, udaberriko lehen kimuak atera baino lehen. Honela, lehenengo tratamenduarekin hil ez direnak edo tratamendua egin eta gero arbolera etorri diren xomorroak hil eginen dira.



# EGUTEGIA Azaroa-martxoa

**BARATZEAN**

**1.- Erein**
- Espinakak, baratzuriak, tipulak, endibiak, alkatxofak, babak eta baratze ilarrak.

**2.- Landatu**
- Aza, azaloreak, porruak, alkatxofak ...

**LORATEGIAN**

**1.- Erein**
- Primaberak, pentsamientoak, alheliak, udaberriko patatak: nartzisoak, tulipanak, crocusak...

**2.- Kimatu**
- Hondatuak dauden adarrak, bai frutaletan eta bai lorategiko arboletan ere.

**Kimatu**

Landareak eta arbolak negurako prestatu behar dira. Honela, zuhaitzak eta zuhaixkak dituzten adar idorrak edo aurtengo egurraren gainean loratuko direnak kimatze lana behar dute. Kendutako kimu horiek, bertze landareak sortzeko balio dute. Negu hotzak gaizki aguantatzen dituzten zuhaitz edo zuhaixkei, lurrean dauden ostoak eta belar idorrak pilatu bere inguruan.

**Garbiketa**

Baratzea garbitzeko momentua iritsi da, azken uzta bildu eta landareak ateri. Ateratako hondakin guzi horiek *compost*-a egiteko balio dute.

**LANDAREAK BIRLDANDATU? ILARGIA ILGORAN**

Illargiak eguzkiaren distira botatzen du. Nahiz eta eguzkia baino motelagoa izan, ohiturak dioenez ilargiaren argia lurrean hobe sartzen omen da, honela zelula berritzea bizkortu egiten da. Hori dela eta, landarearen hazitzearekin zerikusi duten lanak eraginkorragoak izanen dira ilargia ilgoran dagoenean. Honek, landare guziendako balio du: bai zuhaitzek baita barazkiek ere eragina sumatzen omen dute. Halere, salbuespen bat dago eta hori patata duten landareak izanen litzateke. Hauek ilbehera nahiago dute.

OIHANGINTZA



Prozesionaria ez da pinadiak kaltetzen dituen izurrite bakarra.

# *Izurrite berri batek pinadiak kaltetzen ditu*

Azken aldi honetan, adin gutzietako pinadiak gorritzen eta idortzen ari dira leku batzuetan. Batez ere, udahaseran (ekainan) izandako ekaitz gogorrek jotako lekuetan gertatzen ari da. Orduko kazkabarrek eta haize gogorrek basoak eta plantazioak kaltetu zituzten, hainbat zuhaitz eta adar botaz. Pinuak ahulduta gelditu ziren eta hori aprobetxatuz, *Diplodea Pinea* izeneko onddo batek erasotu die. Onddo honek gorritu eta idortzen ditu pinuak. Izurrite honek ez du zerikusirik prozesionariarekin. Lehendik ere ezaguna zen, baina inoiz ez zuen aurten bezala jo.

Arrisku batzuk sortzen ahal ditu izurrite honek. Alde batetik, udazken honetan pinadi aunitz mozteko arriskua dago eta horrek eragin kaltegarria izanen luke zuraren prezioan. Bertzetik, sute arriskua ere handiagoa da.

Eritasuna, kimatzeak sortzen dituen zaurietatik hedatzen da batzuetan, beraz, kimatzen dugunean kontu haundia izan beharko dugu. Behin pinua eritzen denean, zuhaitza moztea eta hondakinak erretzea da komenigarriena.

PRENTSARI BEGIRA

# *Altxorra Berdabio baserriaren ondoan?*

Diotenez, Berdabio baserriaren ondoan dagoen kobazulo batean urrea dago lurperaturik. Itxura batean, altxor hori mehazulo batean dago eta bertatik Berdabioko oilarraren kantua entzuten ahal da. Horrelaxe aitortu omen zuen kantak famatu egin zuen Trabukok. Manuel Lekuonak Aita Barandiarani erranzionez, pertsonai honek txanpon faltsuak egiten zituen mehazulo horretatik ateratzen zuen urre-mineralarekin. Horrekatik atxilotu eta preso hartu zuten. Espetxean hil zen, mehazuloa non zuen inorri errangabe. Trabukoren bizilagun batek jakin zuen sekretua, egun batean haitz artetik ateratzen ikusi, eta jakinahiak bultzatuta, leku beretik sartu baitzen. Kobazulo bat topatu zuen eta lurrean, pikotza eta aitzurra zuen saski bat. Mineral puska bat atera zuen pikotzarekin. Bertze lagun bati eraman zion, mehazuloa non zegoen erranen ziola hitz emanez. Egun batzuren buruan, ordea, gaixotu eta hil egin zen eta adierazpen hau bertzerik ez omen zuen egin: «Kobazuloaren ahotik Berdabio baserriko oilarraren kantua aditzen da». Erraten dutenez, Erroilbideren oinean ere –Aiako Harrietako haitzetako bat– urre garbiko mehategi bat dago. Axalaxalean dago eta egunero, Portuberri baserriko ardiek mutturarekin ukitzen omen dute urrea. Baina inork ez du oraindik topatu. Gizaseme batek izan omen zuen sekretuaren berri eta urre horrekin txanponak egin eta bere alaba Baionako merkatura joaten zen erostera. Beraz, badakizue, igande batean mendira ateratzen bazarete, badakizue non begiratu...



Berdabio baserria

(Mugalari, Gara)

AZKEN ORRIALDEKOAK



**Xareta Eguna ospatu dute aurten lehen aldiz**

Ainhoa, Sara, Urzadubi eta Zugarramurdiko herriak biltzen dituen Xareta elkarteak bere lehen besta eguna ospatu zuen. Inguru horretako bi ikerlarieri omenaldia egiteko probextu zen. Ainhoako Martin Elso zenak lan handia egin zuen genealogi historiatzaile gisara eta Urdazubiko Juan Agirrek Urdazubi eta monastegiari buruz hainbat ikerketa egin ditu Nafarroako Artxibotan. Kari hontarat, Manex Bergararen bertso xorta eta R. Idiart-en olerkia bildu ditugu.

Urdazubiko plazan bildu gare hemen
gaur lau herri kemen
erreberritu nahiz zonbait orroitzapen
Euskal Herria den
gure Lur Amaren
Ixtorioaren
zaintzaileak garen
sort lekuaz aberats pobre izan arren.

Arbaso burasoen aire lur uretan
mendi zelaietan
Euskalduna bizi da anaiki xaretan
gauazko lanetan
besta kiroletan
muga bi aldetan
Euskadin denetan
bizi da ta biziko menderen mendetan.

Euskaldun haurrideak kide eta lagun
Bihar nola egun
Aiten aitek utziak begira dezagun
guziek dakigun
ezin dela nihun
sortze etorkizun
hoberik ezagun
Lur Amaren zaintzeko bat egin dezagun.

Manex BERGARA

Sara eta Zugarramurdi
Ainhoa ta Urdazubi
Xaretako lur eder hori
bat eginak hemen gaindi
lauek osotu batasuna
betikotzat izan bedi.

R. IDIART

# «Euskal kultura aztertzeko modurik onena Euskal herrira bizitzera joatea da»



## Chris UPCHURCH

RENOKO TRIKITIXA ETA TXALAPARTA JOLEA

RENOKO ASTE NAGUSIAN TOPATU NUEN CHRIS UPCHURCH, SAN FERMINETAN OHIKOA DEN ARROPAZ JANTZIA. BIXTAZ EZAGUN NUEN, LESAKARA ETORRI IZAN DENEAN IKUSIA. RENOKO GAZTE HONEN ABIZENA EUSKARARA ITZULIZ GERO ELIZAGOIEN EDO GIXAKO ZERBAIT IZANEN LITZATEKE. EZ DU EUSKAL JATORRIRIK ORDEA. HARRIGARRIA DIRUDIEN ARREN, TRIKITIXA ETA TXALAPARTA JOTZEN DITU. RENOKO DANTZA TALDEKO PARTAIDEA DA ETA EUSKARA GARBI BATEAN MINTZATU ZAIGU.

**Ze lotura duzu Euskal Herriarekin? Ba al duzu Euskal jatorririk?**
Ez, ez dut Euskal jatorririk, baina hemen lagunak ditut Euskaldun familia dutenak, eta beti Euskal Herria ezagutzeko interesa izan nuen, nahiko txikitatik. Azkenean joan nintzen Euskal Herrira, euskara ikastera eta kultura ikastera.

**Eta Euskal Herrian non ibilia zara?**
Ba, leku askotatik, egia esan. Ibili nintzen Donostian, Lesakan, Ondarrun, Bilbon eta orain Zumaian nago, bizitzen gelditzeko intentzioarekin, paper arazoa moldatuz gero.

**Eta Lesakan noiz izan zinen?**
Bueno, bi aldiz egon naiz Lesakan, lehengo aldia orain dela sei bat urte izan zen eta joan nintzen hiru hilabeterako eta barnetegian nengoen euskara ikasten. Gero garai hortan ere Beran pasatu nuen ia ia hilabete bat. Eta gero joan nintzen berriro hiru urte geroago eta berriz hiru hilabeterako Lesakara.

**Eta zer iruditzen zaizu gure zonaldea?**
Oso polita da, eta hain polita da, ama etorri zenean, Bilbon bizi nintzenean, ba eraman nuen Lesakara ikustera.

**Zerk erakarri zaitu gehien Euskal Herritik, hara joateraino ko erabakia hartzeko?**

*«Nik ez dut euskal jatorririk, baina lagunek bai eta txikitatik izan dut Euskal Herria ezagutzeko interesa»*

Jendea, bizitzeko era, paisaia, lasaitasuna... dena izango da. Jendea oso jatorra iruditzen zait. Lagun asko egin ditut han eta jarraitu nahi dut nere euskararekin eta euskal kultura aztertzen eta ikasten. Hori egiteko modurik onena Euskal Herrira joatea dela iruditzen zait.

Estitxu AROZENA

Lurra
Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria
Argitaratzailea: **Lurra** Kultur Elkartea • Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA **Ale honetan parte hartu dute:** EHNE Nafarroa, Garbiñe Elizegi, Alicia Aleman, Estitxu Arozena, eta beste zenbaitzuk.
**Maketazioa eta erredakzioa:** Aitor Arozena. **Inprenta:** Gertu
**Tirada:** 7.100 ale **Lege gordailua:** NA-966/1998
Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## HAUTESKUNDEAK



### Zerrendak aurkeztu ez ziren udal eta kontzejuetako hauteskundeak azaroaren 28an

Ekainaren 13ko udal hauteskundeetan zerrendak aurkeztu ez ziren herri eta kontzejuetan hauteskundeak eginen dira azaroaren 28an. Malerrekan, Oizko Udal agintariak aukeratuko dira egun horretan. Oizko Alkartasuna aurkeztu da. Oskar Ilarregi izanen da zerrendaburu eta Alberto San Miguel, Luis Mari Mindegia, Jose Luis Anso eta Javier Ariztegi izanen ditu zerrendakide.

Narbarteko kontzejurako ez da zerrendarik aurkeztu, beraz Nafarroako Gobernuak aukeratuko du legealdi bukaera bitartean herria zuzenduko duen batzordea.

## BERTIZ

### Erakargarri turistikoei buruzko ikastaroa egin da Bertizen

Erakargarri turistikoei buruzko ikastaroa burutu zen joan den astean Bertizko Jauregian. Bertizko Turismo Partzuergoak bereziki landa etxe, hotel, camping edo orokorrean turistekin lan egiten dutenei zuzendutako ikastaro honetan, Nafarroako errekurtso naturalei buruzko ikasgaiak izan zituzten lehen bi egunetan, urriaren 26 eta 27an. Hori bai, zonaldeko errekurtsoei garrantzi gehiago eman zioten eta ibilbide historikoa ere egin zuten.

Azkenegunean, urriaren 28an, egun osoko eskurtsioa egin zuten, Bertizko jaurerria (lorategia, azalpen zentroa), Baztango miradorea, Bozateko Santxotena museoa eta Urdazubi eta Zugarramurdiko lezeak bisitatu zituzten.


Rural**FlexiFondo** Inbertsio Plana

**Unit Linked**



**Fondoa aldatu nahi duzunean eta zerga gastuetatik ihes egin.**

**Orain**, irabazteko guziak dituzu errentagarritasunaren, malgutasunaren, eta zerga aurrezpenaren lasterkaldian. Rural***FlexiFondo*** Inbertsio Plana Izeneko Unit Linked produktu berriarekin. Zure inbertsioen kontrol handiagoa izateko modu eder bat.

Inbertsio Fondo sorta anitz batek osatzen du Rural***FlexiFondo.*** Horien artean zeronek aukeratzen duzu zure beharretara egokien moldatzen dena edo gure adituek aholkatuko dizute, hori bai, nahi duzunean, inolako zerga kosturik gabe, Inbertsio Fondoa aldatzeko aukera izanen duzu.

Gainera, Rural***FlexiFondorekin***, Bizitza Aseguruen* abantaila fiskalak aprobetxatzen ahal dituzu, %70a bitarteko zerga salbuespenak lortuz. Aldaketa kopuru mugagabea izanen duzu eskura eta hasierako guttieneko diru-ekarpena 500.000 pezetakoa bertzerik ez da. Eta lehendabiziko hilabetetik aitzinera, berehalako likidezi osoa edo partziaia izanen duzu.

Rural***FlexiFondo*** Inbertsio Planarekin, beti abantailarekin eginen duzu laster.

Aseguruaren hartzaileak inbertsioaren arriskua ere bere gain hartzen du.
*Rural *Flexifondo*. Rural Vida S.A., de Seguros y Reaseguros-ekin kontratatutako bizitza asegurua da.
Nafarroako Rural Kutxak, Rural Vida S.A. de Seguros y Reaseguros-en agente gisara lan egiten du.

www.cajarural.com/navarra

NAFARROAKO RURAL KUTXA


an,
zaile fina
rten bere etxean

gramoko bat ere hartu du. Etxean, ama kontserbak egin eta egin jartzen omen dute (ia berrogei kilo sartu dira aurten). Hori bai, Marcelinok gogoratzen duenez, asko ibili eta aurkitu dituzte onddoak. Bertze afiziorik ez dutenez (ehizia edo) denbora dutenean onddo biltzera joaten dira Santesteban anaiak.

## ☞ ARANO

# Herriaren Alde taldeak gobernatuko du azaroaren 28ko hauteskundeen ondotik

### Hogeita bostik hogeita hamabost urte bitarteko bost gaztek osatuko dute udal berria

**ESTEBAN AROZENA**

Joan den ekaineko udal hauteskundetarako zerrendarik aurkeztu ez zenean, Herriko Etxea hutsik geldituko ote zenaren beldur ziren aranoar asko. Urriaren 25a arteko beste aukera bat ematen zuen legediak, eta honi, ez diote pasorik eman herritarrek. Herriaren Alde izena daraman taldeak hartuko baitu bere gain hurrengo lau urteetan, Arano gobernatzeko ardura, azaroaren 28an eginen diren udal hauteskundeen ondotik.

Hautagai bakoitzak zerrendan hartzen duen lekuaren arabera, Iñigo Larrea Perurenak beteko duela dirudi Victor Gasconek utziko duen hutsunea, Hernanin lan egiten duen gazte hau baitago lehenengo postuan. Juanito Leonet, Kontxi Claver, Ixiar Loiarte eta Joxemi Muñoz datoz ondoren, denak hogeita bostetik hogeita hamabost urte artekoak.



**Herriko Etxearen beheko aldean dagoen Kontzejua tabernaren etorkizunarekin kezkatua dago Udala. Taberna hartzeko egindako deialdiari ez dio inork erantzun momentuz.** Artxibokoa

### Suroko bidea eta Kontzejua

Laister Udaletxea utziko duen korporazioak herritar askok ederki estimatuko duten obra baten gestioa egina du dagoeneko, Suro auzoko bidearen konponketa, hain zuzen. Ezustekorik ez bada gertatzen, hurrengo asteetan ekingo zaie pista honen zolaberritzelanei.

Hala ere berri guztiak ez dira onak Gasconek zuzentzen duen taldearentzat, kezkatu samarrak baitaude Kontzejuaren etorkizunarekin. Esther Legarretak ez omen du tabernarekin jarraitzeko asmorik eta herritarrei udalak luzatutako deialdiari inork ez dio erantzun.

Dagoeneko bigarren epe bat ere ireki da, eta oraingoan edozeinek (aranoarra edo kanpotarra izan) izanen du bere eskaintza aurkezteko eskubidea. Etxebizitzari eta tabernari udalak jarri dion errenta urteko 350.000 pezetakoa da. Eskariak lehenbailehen aurkeztu behar dira.

## ☞ ARESO

# Plaza ez da moto edo autoekin jostetan ibiltzeko

### Halaxe dio Udalak argitaratutako bandoak

**JUANA Mª SAIZAR**

Udalak bandoa zabaldu du: Orain dela gutxi berritu eta pintatu duten plaza pilotan aritzeko dela eta ez moto eta kotxearekin jostetan ibiltzeko edo bertan aparkatzeko.

Bestalde, Zaborren zinegotziak lanetako hondakinei irtenbidea bilatu dio. Ilunbe inguruan bota behar dira teila eta adreiluak, behin ere ez alanbreak, burnia, iltzeak eta uraren kanaloiak. Hondakin hauek, teila eta adreiluak alegia, berreskuratu eta pistak berritzeko edo mendi bideak egiteko zola bezala erabiliko da.

Zabor desberdinak behar diren tokian jartzea, herriak garbi edukitzea, kaleak, errekak, mendiak... ingurugiroaren barne sartzen diren gaiak dira eta ez da kontzientziazio falta dugulako, heziketaren hutsune nabaria baizik.



**Gezurra badirudi ere, pilota plaza pilotan aritzeko dela gogorarazi du Udalak.** Artxibokoa

### Belakuko bidea zolaberritu

Belakuko bidea zolaberritzeko lanak emateko lehiaketa deia egin du Udalak. Hasierako aurrekontua 2.189.892 pezetakoa da (BEZ barne) eta proposamenak azaroaren 26a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan. Behin lanak emanda, bi hilebeteko epea izanen da bukatzeko.

## LEITZA



Iñaki Salbarredi zenaren alargunak eta amak lore sorta bana jaso zuten, aldageletan dagoen oroitarria erakutsi aurretik.
Diario de Noticias

# Iñaki Salbarredi omendu zuten futbol zelai berriaren inaugurazioan

67 milioi pezetako gastua egin da Arkiskil zelai berrian

JOSEBA AZPIROZ

Urriaren 16an zabaldu zen ofizialki Arkiskil futbol zelai berria. Bi denboraldi etxetik kanpo aritu ondotik, Aurrerako futbolariak Leitzan bertan ikusteko modua izanen da orain. Inaugurazio ekitaldian, omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion Iñaki Salbarredi «Zili», Aurrera elkarteko lehendakari izandakoari. Alargunak eta amak lore sorta jaso zuten eta aurreskua dantzatu zen.

### Elikadurari buruzko hitzaldiak

Azaroaren 3an eta 17an, arratsaldeko 5etan, Aurrera K.E.an, elikadurari buruzko hitzaldiak izanen dira. Lehenengoan, Silvana Huegun dietistak elikadura osasuntsuaz hitz egin du. Bigarrena, elikagai transgenikoaz izanen da eta EHNEko Mikel Lasarte eskainiko du. Hirugarrenean berriz, Izargain psikologo taldeko kide batek anorexia, bulimia eta bigorexiaz hitz eginen du.

### Estazioko auzo berriko errepidea

Udalak, estazio inguruan eraikiko den auzo berriaren errepidearen urbanizazio obrak adjudikatzeko lizitazio deialdia zabaldu du. Kale hau, igerilekuetatik estazio aldera doan bidea zabalduz eginen da. Kontratuaren aurrekontua 87.570.730 pezeta, BEZ barne da eta lanak egiteko epea, sei hilabetekoa. Proposamenak azaroaren 17ko eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu beharko dira.

## flash

**Ipuinak kontatzeko ikastaroa**
Euskara Zerbitzuak eta Guraso Eskolak ipuinak kontatzeko teknikak ikasteko ikastaro bat antolatu du. Azaroaren 3. eta 4. asteetan izanen da eta Jose Mari Karrerek zuzenduko du. Gurasoei zuzenduta dagoen ikastaroan parte hartzeko, antolatzaileengana zuzendu behar da.

**Nafarroako Rallya**
Azaroaren 13an, larunbata, Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatutako "VII Rallye Navarra" froga eginen da. Iruñean hasi eta Irurtzun barrena Leitzara etorriko dira, Saldias barrena Iruñera bueltatzeko.

**Lizentzia fiskala**
10,8 milioi bilduko ditu Udalak aurtengo Lizentzi fiskalaren zergarekin. Lizentzi fiskala ordaintzen duten 216 entrepresa edo langile autonomoak hilaren azkena arte dute ordaintzeko epea.

**Larreak erretzeko baimenak**
eskatu daitezke jadanik. Eskaerak egiteko epea datorren urteko martxoaren 15ean bukatuko da eta baimendutako mendiak erretzeko berriz, apirilaren 15ean.

**Asketa Abesbatzek**
(bi taldeek) emanaldia eskainiko dutezineman azaroaren 20an, 8etan. Kultur Taldeak antolatzen du kontzertua.

**GAZTELU ITURGINTZA**
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

**ttipi-ttapa**
*7.100 harpidedun, 25.000 irakurle*
Zure publizitatea etxe xoko guzietan
✆ 948 631188

**iruñampleo** grupomplea
Leitzaran aldeko enpresa baterako behar dira
**Langileak**
Interesatuek Curriculum Vitae bidali helbide honetara: **Iruñampleo**. Imaz Anaiak, 9 - 1º esk. 31002 Iruñea edo 948 212 674 tel.era deitu. irunampleo@cempresarial.com

## ☞ BAZTAN

# Hirurteko Planean hamalau lan sartzea eskatu dio Balleko Udalak Gobernuari

### Eguberritako sei plater berri egiteko ikastaroa eginen da bigarren urtez

TTIPI-TTAPA

Arizkun, Berroeta, Elizondo, Gartzain, Elbete, Lekaroz, Oronoz, Irurita eta Anizen egin beharreko lan batzuen proiektua 1997-99 Hirurteko Azpiegitura Plangintzan sartzea eskatu dio berriro Balleko Udalak Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamenduari. Lehendabiziko aukeraketan ez zituen Gobernuak lan hauek kontuan hartu eta Udalak berriz ere sartzea eskatu du.

Ur-hornidura eta saneamendu sareen berritzea eta gero bideak zolaberritzea eskatu da Berroeta, Arizkun (bigarren fasea), Elizondo, Elbete, Gartzain (Iturriotzea, Elixemendi eta Ikusmendi inguruan), Lekaroz (Uharte, Oharriz eta Arrazkazan auzoetan), Aniz eta Iruritan. Berroetako herrigunekozolaberritzea eta Oronozko Sagualde auzora sartzeko bidea zabaltzea ere eskatu dira. Bideei dagokienez, Elizondoko Beartzun auzokoa eta Iruritako Arrixuri zubia moldatzea eskatu da. Azkenik, Arlako ur-sarea egitea eta Arizkungo Ordoki auzoko ur-hornidura sarearen berritzea eskatu du Udalak.

#### Eguberritako sei plater berri

Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuak *«Eguberritako sei plater berri»* izeneko sukaldaritza ikastaroa antolatu du bigarren aldiz. Ikastaroa Elizondoko Urpe elkartean izanen da azaroaren 8, 15 eta 22an, hirurak astelehenarekin, arratseko 7etatik 9ak artio. Irakaslea, gan den urtean bezala, Dani Arriada azpilkuetarra izanen da. Prestazen dituzten platerrak ikasleek beraiek dastatuko dituzte.

Matrikula 2.500 pezetakoa da eta izena lehenbailehen eman behar da. Argibideak eta izen ematea Baztan Balleko Etxean.

#### Kirol instalazioetako dirulaguntzak

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak, kirol instalazioetan egin beharreko inbertsioetarako dirulaguntza batzuk eman ditio Balleko Udalari.

Elizondoko polikiroldegiko teilatua moldatzeko 3.672.676 pezetako aurrekontua dago eta Institutuak 920.000 pezetako laguntza emanen du. Elizondon gimnasioa egokitzeko 2.905.292 pezetako aurrekontutik, 725.000 pezeta emanen ditu Kirol eta Gazteriaren Institutuak. Oronoz-Mugairiko Segundo Anaia pilotalekua moldatzeko, azkenik, zazpi milioi pezeta emanen dute Iruñetik. Lanaren aurrekontua 22.861.521 pezetakoa da.

#### Arraiozko saihesbidea

Arraiozko saihesbidearen lanak bisitatu zituen urriaren 25ean Jose Ignacio Palacios, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabidetako kontseilariak. Lanak heldu den udaberrirako akituko omen dituzte.



#### Kirikoketa bestaren ohitura berreskuratu da aurten Baztanen

1920. urteaz geroztik lehen aldia da kirikoketa besta egiten dela Baztanen. Sagarra bildu ondotik egiten zen besta hau eta *Kirikoketa Jo ala jo* taldeak berreskuratu du ohitura. Xabier Torres, Patxi Larralde, Iñaki Obregozo, Oianko Garde eta Iñaki Telletxeak osatzen dute taldea. Beraien helburua urtero besta egitea eta sagardo denboraldian jotzea da. Ezkil jotzeaz, musika, bertsoak... denetik izan zen kirikoketa bestan.


JATETXEA
✆ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 948 580313
ELIZONDO


BAZTAN ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

ARGIBEL OPTIKA
✆ 948 581 391
Santiago 62 - ELIZONDO
Aukera zabala
☛ Anteojoak
☛ Lentillak
☛ Audifonoak
☛ Errebisioak

☞ BAZTAN

# Adinekoak eta eriak zaintzeko prest dagoen jendea bildu nahi du Bidelagun elkarteak

## Baztango jendearen %23a hirutan hogeita bortz urtetik goitikoa da

TTIPI-TTAPA

Asti librearen zati bat adinekoak eta eriak euren borondatez zaintzen aritzeko prest dauden pertsonak bildu nahi ditu Bidelagun elkarteak. *«Gure helburua, beharra duten adinekoak edo eriak eta beraien senideak laguntzea da»*. Laguntzaile hauen bila kanpaina bat hasi dute Baztango elkarte honetako kideek. Otsailean sortu zen elkartea eta momentuan, Elizondoko Osasun Zentroko Ana Cariñena eta Bernardette Mihura erizainek, Javier Azpiroz eta Isidro Herguedas, Elizondoko Santiago elizako eta Iruritako apezek eta Maria Jesus Arregik osatzen dute.



**Bi kilotik goitiko onddoa hartu du Elizondoko Bautista Irisarrik**
Joan den urriaren 12an, Elizondoko Bautista Irisarrik, 2'300 kiloko onddo beltza harpatu zuen Orabidean.

### LAU BAZTANDARRETIK BAT ADINEKOA DA AZTERTETAREN ARABERA

Adineko jendeak Baztango populazioaren %23a osatzen du, Bidelagun elkarteak egindako azterketaren arabera. Kopuru hau, Nafarroako altuenetakoa da. 1.900 adineko hauetatik, 200 lagunek etxean osasun asistentzia behar dute. Batzuetan, familiakoek beraiek zaintzen dituzte. *«Kasu horietan gure lana bikoitza da, eriari ez ezik erizainari ere lagundu behar baitugu»* dio Ana Cariñenak. Bidelagunak elkartea Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin ari da lanean eta Nafarroako Gobernuaren eta Balleko Udalaren dirulaguntzen menpe dago. Elkartearen lana hiru arlotan banatuko da: famili giroan, adinekoari konpainia eginez eta zaintzaile gisara aritzen direnei lagunduz. Bertzetik, Elizondoko Joaquin Iriarte erresidentzian eta Benito Menni ospitalean lan eginez eta, azkenik, bolondresen beraien formakuntza landuz. *«Garrantzitsuena, urtero eginen diren sesioen bidez emanen zaien formakuntza izanen da. Gainera, beraien lanari segimendua egin eta laguntza eskainiko zaie»*. Gisa honetako esperientzia mendialdeko herrietan egiten den lehen aldia da. *«Lehendabizikoa denez ez dakigu nola aterako zaigun»* dio Ana Cariñenak. *«Ez dugu lan hauetarako bereziki prestatua dagoen jendearen lekua bete nahi»*.

Bolondresak biltzeko kanpainak azaroaren 21a arte iraunen du eta izena emateko Bidelagunak elkartearen telefonoetara (948 580094 edo 670 406919) deitu behar da.

### ▼ flash

**Herrietako musika Arizkunenean**
Joan den igandean Aragoiko Orquestina del Fabirol folk taldeak eskainitako kontzertuarekin hasi zen Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxeko emanaldiak. Larunbat honetan, azaroak 6, Senegalgo musika ezagutzeko modua izanen da Yambar taldearekin eta heldu den igandean, azaroaren 14an, Bide Ertzean Tolosako folk taldea etorriko da. Emanaldi guziak arratseko 8etan dira.

**Nafarroako Ardoaren Kofradia**
Urriaren 24an Elizondon egindako ekitaldian, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea den Peio Salaburu arizkundarra Ohorezko Kofrade izendatu zuen Nafarroako Ardoaren Kofradiak.


ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK
Zaldubi Poligonoa • ✆ 948 580 562 IRURITA





BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Beti baserritarren zerbitzurat
Tel.: 948 453 310 - Faxa: 948 453 375
Ordoki Auzoa · ARIZKUN

## ☞ URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

# Inguruko telebista eta irratien seinalea hartzeko lanean ari da Urdazubiko Udala

Agerraldeko antena, aldiz, kendu egin nahi du

MARGARI ETA KORO

Agerraldeko antena deustarako erabiltzen ez dela eta itxusi egiten duela kontuan hartuz, Urdazubiko Udalak antena kentzea eskatu dio Nafarroako Gobernuko Telekomunikazio Zerbitzuari. Izan ere, Nafarroako Gobernua da antenaren jabea. Eraberean, Urdazubi eta Zugarramurdiko bizilagunek laster TTIPI-TTAPA TELEBISTA eta Xaloa telebista ikusi eta Xorroxin Irratia aditu ahal izateko, Airtel Móvil, S.A. enpresarekin harremanetan jarriko da Urdazubiko Udala. Airtelek antena bat jarria du herri lurrean eta zerbitzu horiek lortzeko aukera aztertu nahi da.

Bertzalde, Urdazubiko Udalak 50.000 pezetako dirulaguntza eman dio TTIPI-TTAPA Fundazioari, hamabostekaria herriko 90 etxetara igortzearen truke.



Agerraldeko antena kentzea eskatu dio Urdazubiko Udalak Nafarroako Gobernuari, itxusi egiten duela eta. Artxibokoa

### Dantxarineako kuarteleko argia

Dantxarineako kuarteleko transformadoretik Olaburua, Anduregia eta Olaberria baserrietara eta Juan Mari Mihuraren granjara argindarra sartzeko aukera dagoenez, Larunbe ingeniariarekin harremanetan jarriko da Urdazubiko Udala. 1997-1999 Hirurteko Azpiegitura Planean lehenbailehen sartzeko aukera aztertu nahi da, eta posible ez balitz, proiektua egin 2000-2002 Plangintzan sartzeko.

### TTIPI-TTAPAK 10.000, OSTIELAK 70.000 ETA GURE IRRATIAK 100.000 PEZETA ZUGARRAMURDIN

Zugarramurdiko Udalak, bere aldetik, 10.000 pezeta eman du hamabortzero TTIPI-TTAPA aldizkaria 83 etxetara igortzeko. Urtean 24 aldizkari egiten direla kontuan hartuz, Zugarramurdin jasotako aldizkari bakoitza bortz pezetatan baloratu du Udalak.

Ostiela aldizkarian behin agertutako publizidarearen truke, ordea, 70.000 pezeta ordaindu ditu Udalak. Aldizkari honetan, Koro Irazokiren *«Zugarramurdiko sorginak»* idazlana ageri da. Komunikabideetako kontuekin segituz, Gure Irratiari 100.000 pezetako dirulaguntza eman dio Zugarramurdiko Udalak.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



Maderas GOMEN

☛ Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
☛ Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
☛ Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
☛ Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ✆ 948 580 645

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

✆ 948 63 11 88

## SARA

# Jendetza haundia hurbildu zen herrirat AEK Egunean

### Sarako Gau Eskolak aste honetan hasi ditu klaseak

ANA MARI, MARTINE ETA FRED



**Bistan denez, plazak gainezka egin zuen aurkezpen ekitaldian.**
Euskaldunon Egunkaria

AEK Eguna, gure mintzairaren aldeko besta haundia, urriaren 24an ospatu da Saran. Antolatzaileak izigarri pozik agertu dira jende kopuru haundia (hamar milako bat) hurbildu baita AEKri bere sustenguaren erakusteko eta bide beretik ipar Euskal Herrian euskarak eta euskara sustatu nahi duten erakundeek jasaiten duten mespretxuaren salatzeko. Ezin zen denbora hobeago bat igurikatu eta horrek, bixtan dena, bestaren arrakastaren arrazoinetarik bat izan da. Animazio guziak behar bezala iragan dira, eta denek antolakuntzaren seriostasuna azpimarratzen zuten. Antolatzaileek nahi lituzkete manera batez edo bestez laguntza ekarri duten guziak eskertu, jende frango lanean aritu baita eta beren laguntza baliosarik gabe ezinezkoa izanen baitzen holako besta bat antolatzea.

Bertzalde Sarako Gau Eskolako klaseak azaroaren 3an hasiak dira eta diotenaz, oraino ez omen da berantegi izenen emateko. Ez da dudarik lehen klaseetan AEK Eguneko kantua ikasiko dutela (norbaitek ezagutzen ez balu!), Manex Bergararen hitzak oroitaraziz:

*Argi haundirik gabe, bagare hameka*
*Gehienetan gabiltza, dudan ilunbeka*
*Gaur egun hemen dugu, gurekin AEK*
*Euskaldunak agertu, ez ibil gordeka*
*Eta euskara erabil, ahoa beteka.*
*Euskaraz, jauntzi hadi eta haugi lasterka*

*Euskara da batzuentzat, hizkuntza lehena*
*Aiten aitek mendetan zaindu daukutena*
*Beste batzuentzat aldiz berreskurapena*
*Edo osoki ere ikasi dutena*
*Zaindu dezagun gurea den dena.*
*Jauntzi hadi eta haugi ez izan azkena.*

*Herri huntan gehienek, mintzatuz erdara*
*Maizenik gure euskara doa errekara*
*Euskararen beharra, zabalduz plazara*
*Bultzada bat ematen saiatuko gara*
*Elgarrekin joanez AEK Egunera.*
*AEKz jauntzi hadi eta haugi Sarara.*

### Errugbi taldea ongi ari da

Nahiz eta errugbi sasoina ez ongi hasi (lehen hiru partiduak galdu dituzte), iduri du Sarako errugbilariek bidea zuzendu dutela. Azken bi partidak irabazi dituzte: Kanboren aurka errexnagusitu ziren, 5 eta 38ko emaitzarekin. Animaniako zelaian ere ziburutarrak menperatzea lortu zuten (11 eta 6). Balentri haundia erakutsi zuten, Ziburuko zaleak saratarrak baino ainitz gehiago zirela kontuan hartuz.

Ondoko bi partidak etxean jokatuko dituzte (urriaren 31n jokatutakoa eta azilaren 7an, azkeneko hau Lesperonen aurka, multzoko lehenbizikoa). Basurdeek zaletuen laguntza behar izanen dute irabazteko.

### Zahar eta gazte elgarrekin, kantuaren bidez

Sarako hiru eskoletako haurrek, ikastola, publiko eta pribatukoak kantatu dute Zahar Etxean dagoen jendearentzat. Urriaren 22an, ortzirala, arratsaldeko 3etatik 4,30ak arte, haur andana batek kantatu du kiroldegian, aire ederra, itsas untzi baten buruz. Ondotik krakada egin dute, bai gazteak eta bai adineko jendeak ere.

Agian, heldu den urtean, berriro esperientzi hori gertatuko da Zahar Etxean diren jendearentzat, hor bederen anima dezatela…

### Ostatu itxia

Azilaren 7tik 27a arte Herriko Etxeko edantegiaren ateak etxiak izanen dire. TTIPI-TTAPAK eskuratzen ahalko dira Herriko Etxean azilaren 17tik goiti.

### Zirimolan hamabortzaldia

Zirimolan kulturtaldearen (Azkaingo Altxa Lili, Berako Gure Txokoa, Etxalarko Altxata eta Sarako Gaztetxea) hamabortzaldia sei hilabetez prestatze lanetan ari ondoren laister hasiko da. Aurtengo gaia etxeak eta bizitzak izanen da.

Lehen ekitaldia argazki rallya azilaren 13an Azkaingo Biltokian iraganen da (xehetasun gehiagorentzat ikus 27. orria). Ondoko TTIPI-TTAPAN Saran antolatuko diren ekitaldien berri emanen dizuegu.



SOULE
Hileta artea
Tfnoak: 948 453444 • 608. 779903
ARIZKUN


HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
64310 SARA • Tél. 05 59 54 25 19

## EZKONTZAK

**Jesus Mª Baraibar Gogorza** eta **Yolanda Dominguez Perurena**, Leitza eta Cistiernakoa (Leon), irailaren 18an.
**Juan Jose Goikoetxea Etxeberria** eta **Miren Josune Sagastibeltza Ezkurra**, Leitzakoak, irailaren 25ean.
**Iñigo Elizegi Erbiti** eta **Mª Idoia Albistur Huizi**, Goizuetakoak, urriaren 16an.
**Victor Alvarez Erbiti** eta **Inmaculada Oieregi Sola**, Iruñekoak Almandozen, urriaren 2an.
**Jose Javier Sagardia Buil** eta **Rosa Mª Altzuarte Inda**, Narbarte eta Almandozkoa, urriaren 9an.
**Juan Mª Ormart Burgete** eta **Teresa Arraztoa Alkasena**, Elizondokoak, urriaren 9an.
**Juan Angel Aleman Oiaregi** eta **Mª Concepcion Azkarraga Iribarren**, Iruritaeta Azpilkuetakoa, urriaren 16an.
**Luis Mª Maritorena Huarte** eta **Patricia Muñoz Amorena**, Leitza eta Elizondokoa, urriaren 23an.
**Jose Mª Mikelarena Telletxea** eta **Mª Carmen Ariztegi Mariezkurrena**, Iturengoak, abuztuaren 28an.
**Ignacio Gabriel Vazquez Ezeizabarrena** eta **Idoia Manterola Iturria**, Irungoak Iturenen, irailaren 18an.
**Jean Bernard Leizagoien** eta **Marie Thérèse Gorosurreta**, Sarakoak, urriaren 16an.
**Juan Carlos Garro Dozagarat** eta **Itziar Unsion Beltran**, Berakoak, urriaren 23an.

## JAIOTZAK

**Eki Etxandi Andueza**, Arraiozkoa, urriaren 16an.
**Araceli Jimenez Etxeberria**, Doneztebekoa, urriaren 10ean.
**Andrea Mindegia Iribarren**, Doneztebekoa, urriaren 19an.
**Oihana Berasategi Artieda**, Berakoa, urriaren 16an.
**Rakel Lanz Urtxegi**, Berakoa, urriaren 22an.

## HERIOTZAK

**Juan Antonio Huizi Salaberria**, Goizuetakoa, urriaren 16an, 86 urte.
**Martina Balda Oriozabala**, Elizondon, urriaren 13an, 89 urte.
**Juan Francisco Ibarra Astiz**, Zigakoa, urriaren 14an, 78 urte.
**Mª Antonia Iriarte Barrenetxe**, Elizondokoa, urriaren 18an, 87 urte.
**Mª Pilar Garcia Bernal**, Erratzukoa, urriaren 18an, 87 urte.
**Ildefonso Larratxea Ariztia**, Lekarozkoa, urriaren 21ean, 88 urte.
**Jose Ariztegi Sanzberro**, Etxalarren, urriaren 15ean, 80 urte.
**Marie Baptiste Larzabal**, Sarakoa, urriarem 14an.
**Jojo Agirre**, Sarakoa, urriaren 16an.

MENDIALDE
Jatetxea
AMAIUR • © 948453060

BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK
Mendituri, 1 • ELIZONDO • © 948 580373 • 608 776176

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 63 08 99 - BERA

GORENERA
Giza-Eskubideen alde egiteko, Amnesty International mundu guztian zabaldurik dago. Eta 1998ko urritik, JUANITO OIARZABAL mendizaleari esker, munduko egoitzarik gorena dugu: SHISHA PANGMA (8.027 metro), Tibeten.
EMAN ZURE IZENA!
Zurekin, giza-eskubideak gorago eramango ditugu.

803 kutx. • 48080 BILBO
465 kutx. • 20680 EIBAR
Lizarra Pilotalekua • 31200 LIZARRA
2.180 kutx. • 31080 IRUÑEA
1.109 kutx. • 20080 DONOSTIA
334 kutx. • 01080 GASTEIZ
Amnesty International



ttipi-ttaparen laguntzarekin

# Argazki Rallya eginen da azaroaren 13an Azkainen

## Zirimolan Kultur Hamabortzaldiaren lehen ekitaldia izanen da

Larunbat huntan zortzi, hau da, azaroaren 13an eginen da Azkainen Argazki Rallya. Azkaineko Altxa Lili kulturelkarteak, Berako Gure Txokoa elkarteak, Etxalarko Altxata elkarteak eta Sarako Gaztetxeak antolatutako Zirimolan Kultur Hamabortzaldiaren lehen ekitaldia izanen da rally hau. Gaia ere eman diete antolatzaileek argazkilariei: «Etxeak eta bizitzak».

Sariketa honetan izena emateko goizeko 9etatik 10etara joan behar da Azkaingo Biltoki elkartean. Helduek 60 libera edo 1.500 pezeta ordaindu behar dute eta gaztetxoek 20 libera edo 500 pezeta. Eguerdiko 1ak arte izanen da argazkiak ateratzeko modua eta gero pintxoak eta aperitifa banatuko dira.



Etxeak eta ingurunea gaia izanen dute argazkilariek Azkainen.

Azaroaren 27an, Azkaingo Martzenea gelan sari banaketa eginen da. Hori baino lehen, parte hartu duten argazkilarien diapositibarik onenak proiektatuko dira. Ondoren laburmetrai-arratsa izanen da toki berean.

Arestian aipatutako elkarteetaz gain, Etxalar, Bera, Azkaine eta Sarako Herriko Etxeek, Berako Goiko argazkidenda, Patxi Laskarai argazkilariak, Euskal Kultur Erakundeak eta Eusko Ikaskuntzak lagundu dute rally honen antolaketan.

## 2000. urteko Hatsaren Poesia Eguna prestatzen hasi dira Senperen

Aurtengo martxoaren 21ean, berrogei olerkariekin ereman den Hatsaren Poesia bestaeguna, oraino, datorren 2000garren urtean berospatu nahi da, berritz ere olerki bilduma bat argitaratuz (bilduma hau, gero, Euskal Herriko Bibliotekarat dohainik zabaldua izanen da). Ikusiz zoin laster iragaiten diren egunak, Hatsa elkarteak oraitik beretik galdegiten die poesia idazten duten guzieri (izan diten ezagutuak edo ez), bilduma hortan parte hartzea, beren zonbait olerki (bat eta lau artean) eta argazki bat igorriz norabide huntarat:

*Hatsa Elkartea*
*Oxtikenea*
*Fr64310 Senpere*

Egintza guziek epe edo muga bat dutelakotz, behar beharrezkoa litaike idatzien igortzea abendoaren 15a baino lehen.

# Munduko musikak entzungai Elizondoko Arizkunenean

## Larunbat honetan Senegalgo Yambar taldea ariko da

Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, munduko folk musika ezberdinak ezagutzeko zikloa hasi da igande honetan, Aragoiko Orquestina del Fabirol jazbandarekin.

Larunbat honetan, ziklo honetako talderik bitxiena aditzen ahal da, Senegalgo Yambar taldea, hain zuzen. Yambar taldeko musikariek, beraien dantzen, kanten eta, batez ere, danborren erritmoen bidez, «Griot», aintzinako jakinduriaren erakustaldi bat egiten dute. Horrela, ikusentzuleek, Senegalgo Wolof kulturaezagutuko dute, aitzinako kultura bizigarri horren ohiturez gozatuz.

Igandean zortzi, azaroaren 14an, Bide Ertzean euskal folk taldea etorriko da. Udaberrian karrikaratu zuten tolosar hauek «Zure minari» izeneko diska. Honakoan, Jose Luis Otamendiren poemak bildu eta musikatu egin dituzte. 1998ko talde berri gustokoena izan zen Bide Ertzean, Euskaldunon Egunkariak egindako inkestan.

Balleko Udaleko Kultur Zerbitzuak antolatutako emanaldiok arratseko 8etan izanen dira Arizkunenean.


Bide Ertzean taldeak azaroaren 14an joko du

**DATUAK..........**

❶ *Eduardo Eugik lasto altxatzen Euskal Herriko marka berria ezarri du: bi minututan 21 altxaldi eman zizkion zazpi metroko altuerara 45 kiloko fardoari.*

❷ *23 urte ditu eta 16 zituenean Nafarroako txapeldun izan zen lehen aldiz. 1994an eta 1995ean ezik, urtero izan da herrialdeko txapeldun.*

❸ *Euskal Herriko herrialde arteko txapelketan ere garaile izan da azken bi urteotan.*

❹ *Azaroaren 28an Betelun eginen den errekorren jaialdian marka berri bat egiten saiatuko da orain.*

TESTUA: AITOR AROZENA
ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

☞ **Eduardo EUGI** *Igantziko lasto-altxatzailea*

# "Lasto altxatzen jendeak uste duena baino teknika gehiago behar da"

Getxon jokatutako Euskal Herriko herrialde arteko txapelketan lasto altxatzen azkarrena izan zen Eduardo Eugi igantziarra. Gibelean utzi zituen Bizkaia, Gipuzkoa eta bertze herrialdetako ordezkariak eta horretaz gain, 21 altxaldirekin errekorra hobetu zuen. Joan den urtean ere txapelketa hau irabazi zuela kontuan hartuz, herri kirol honetan Nafarroa, Euskal Herriko eta kasik, munduko onena dela erraten ahal da. Pilota hartu eta frontoira joatea edo baloia hartu eta ostikoka hastea errexa da inguru honetan. Lasto altxatzen hastea, ordea, ez da edonork hautatzen duen kirola. *«Igantzin Luis Mari Zelaieta eta Miguel Angel Etxarte hasi ziren Irisarriko Argata baserrian entrenatzen. Nik hori aditu, probatu eta gustatu zitzaidan. Hamasei urte nituen orduan. Hiruek entrenatzen hasi eta udan Nafarroako txapelketan atera ginen eta nik irabazi nuen txapela»* dio Eduardok. Geroztik, Nafarroan bederen gehien bat igantziarrak dira kirol honetan aritzen direnak. *«Azken urteotan Ultzamatik ere ateratzen hasi dira. Halere, Nafarroako txapelketan zazpitik bortz igantziarrak ginen».*



«Azkeneko urteotan, Nafarroako txapelketan aritu garen zazpi lagunetatik bortz igantziarrak izan gara».

Udako erakustaldiak eginez eta Euskal Herriko herrialde arteko txapelketa prestatzen egindako lana eta lortutako gorputzaldia aprobetxatu nahi du orain Eugik, azaroaren 28an eginen den errekorren jaialdian marka berri bat eskuratzeko. *«Hagitz zaila ikusten dut, baina saiatuko gara. Hilabete exkax falta da eta hain ongi gaudenez, egurra emanen diogu fardoari, ea hogeitabigarrena egiten dugun».* Txapelketak prestatzeko astean hiru lau aldiz entrenatzen du etxe ondoan prestatua duten polean eta udan, astean behin edo bitan, kasik astebururoko erakustaldietaz gain.

> *❝Udako erakustaldiekin eta Euskal Herriko txapelketa prestatzen lortutako gorputzaldia probextu nahi dut errekor berria egiteko.❞*

### «INDARRAZ GAIN, TEKNIKA ERE BEHAR DA»

Indarra garrantzitsua izanik, ez da kirol honetan behar den gauza bakarra, Eduardo Eugiren ustez. *«Ez da dena indarra, ezta pentsatu ere! Gehien bat teknika behar da. Bertze aldetik, petxua ere egin behar duzu arnasa ongi hartzeko».* Igantziko bestetan egindako erakustaldian gurdi proban Nafarroako txapeldunari irabazi bazion ere, ez du bertze kiroletan hastea pentsatu oraindik Eugik. *«Momentuz honetan bakarrik ari naiz, baina etorkizunean nork daki, igual bertze batetan hasiko naiz. Zertan ez dut erranen, oraindik neronek ere ez baitakit».*

# Arkiskil futbol zelai berria estreinatu zuten urriaren 16an Leitzan

■ Iñaki Salbarredi lehendakari zenari omenaldia eskaini zitzaion

■ 67 milioi pezeta erabili dira futbol zelaia egiten

Urriaren 16an zabaldu zen ofizialki Leitzan Arkiskil futbol zelai berria. Modu honetan, Aurrera elkarteko zortzi taldeek etxeko partiduak herrian jokatu ahal izanen dituzte. Azken bi denboraldietan Lekunberrin eta Iruñerrian jokatu behar izan dute Aurrerakoek.

Inaugurazio ekitaldian, udal ordezkariekin batera, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate Departamenduko eta Kirol eta Gazteriaren Institutuko ordezkariak ere izan ziren.



Aurrera elkarteko futbol taldeek ez dute kanpora joan beharko hemendik urrera **etxeko** partiduak jokatzera. Diario de Noticias

Futbol zelai berrian 67 milioi pezeta gastati dira, lurra erosi, zelaia egin eta aldagelak eraikitzeko. Kopuru horretatik ia 20 milioi aldagelak egiten erabili dira.

Aurrera elkarteko talde ezberdinaren ondotik omenaldia eskaini zitzaion Iñaki Salbarredi, trafiko istripuan hildako lehendakari ohiari. Alargunari aurreskua dantzatu eta lore sorta eman zioten dantzariek. Udalak aldagelen aurrealdean egindako plaka ere agertu zen.

## BOTE pronton

**Joxe Javier Taberna**
Asegarceko pilotari lesakarra, lau terdiko txapelketatik kanpo utzi zuen joan den astelehenean Ansotegik. Tabernak 10-22 galdu zuen Gernikan.

**Javier Errandonea**
Errandonea II.k ezustekoa ederra hartu du, Asegarce enpresak kontratua ez berritzea erabaki baitu. Lurraren Egunean anaiarekin batera aritu beharra zen, baina kontratua larunbatean akautzen zitzaionez, jaialdia aldatu behar izan zuen enpresak.

**Aizkora**
Nafarroako lehen mailako eta Euskal Herriko jubenilen txapelketen finalak jokatuko dira Doneztebeko ferietan.

# Unai Barazabal Nafarroako txirrindulari erregularrena

Embalajes Clavijo Challengearen saria jaso du azpilkuetarrak



Unai Barazabalek julian Clavijoren eskutik jaso zuen bere saria. D.Noticias

Unai Barazabal, Caja Rural taldean ari den 20 urteko txirrindulari azpilkuetarrak, denboraldi honetan afizionatu mailan aritu den txirrindulari erregularrena izan da. Horren erakusgarri, Embalajes Clavijo lantegiak antolatutako Challengearen saria jaso du. Nafarroako 72 txirrindulari afizionatuei eman zaie puntuazioa, Euskaldun Sarian (41 proba) eta Lehendakari txapelketan (27 proba) lortutako sailkapenen arabera. Egun bakarreko proba hauetan 25 lehendabiziko postuetan sartzen direnei ematen zaie puntuak eta Barazabalek lasterketa guzietan lortu du punturen bat, martxotik hasi eta iraila bitarte. Horretaz gain, Oñatin irailaren 26ko proba irabazi zuen. Azpilkuetarra gustora dago aurten egindakoarekin. *«Oñatiko garaipenagatik baino gehiago, urte osoan hobetzen joan naizela ikusi dudalako eta hori da garrantzitsuena. Karreretan aitzinean ibiltzea ez zait kostatzen, baina irabaztea arras zaila da, abiadura handia behar baita».*

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

### AURTITZ

**Azaroaren 10etik 14ra** Xehetasunak 18. orrialdean, Iturengo berrietan aurkituko dituzu.

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Azaroaren 5ean** Loon (Dublinekoak). Pop akustikoa egiten dute. Kasino ostatuan. Arratseko 10etan.

**Azaroaren 12an** Blow Oud (Iruñeakoak). Kasino ostatuan. Arratseko 10etan.

**Azaroaren 19an** Piztiak. Kasino ostatuan. Arratseko 10etan.

### LEZO

**Azaroaren 5ean** Ardi Beltza aldizkariari sustengua emateko kontzertua: La Venganza de la Abuela, Etsaiak eta La Polla. Arratseko 10,30etan polikiroldegian.

## POESIA

### SENPERE

**Abenduaren 15a** arteko epea eman die Hatsa elkarteak poesia idazten duten guzieri beren olerkiak igortzeko. Gero bilduma batean argitaratuko dituzte. Informazio gehiago 559 54 11 43 telefono zenbakian.

## BERTSOAK

### BERA

**Azaroaren 19an** Egaña, Murua, Enbeita, Elortza, Elizagoien, Legarreta. Kultur Etxean. Labiaga Ikastolaren 25. urteurrena.

## TELEBISTAKO TXOKOA

# ttipi-ttapa telebista

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEA KENA | ORTZEGUNA | ORTZIRALA |
|---|---|---|---|---|---|
| 11:00 | Berriak (errep.) Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) |
| 13:00 | Berriak (errep.) Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) |
| 17:00 | Berriak (errep.) Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) |
| 21:00 | Berriak | Berriak | Berriak | Berriak | Berriak |
| 21:30 | Jokoa Solas | Laburmetraiak | | Zuzenean | Herriz-herri |



## Aurpegi berriak
### TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Denboraldi berri honetan saio berriak agertzen ari diren heinean, nola ez, aurpegi berriak ere ikusi ahal izanen dituzue pantailan. Herriz herri saioan, adibidez, Bera eta Arantzako berriemaileak aldatu egin dira, eta dagoeneko aurpegi ezagunak eginen zaizkizue Asier eta Aitziberrenak. Bertzetik, programa berri bat sortu dela ere erran behar dugu. Lehengo kontu zaharrak gogoratzeko, jende adinduarekin elkarrizketak eginen ditu Tere Ibarrak.

## BASERRIA



### ZERRIKIA

- Zerrikumea (20 kilokoa): 3.900 pta.
- Zerri gizena (95-100): 116 pta/kiloa.
- Zerramak: 75-80 pta./kiloa, bizirik.



### BEHIKIA

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pta/kg. Kanal

Extra . . . . . . . . . . . . . . .540
1.kaa . . . . . . . . . . . . . .520
2.kaa . . . . . . . . . . . . . .500

- Urruxak: Pta/kg. Kanal

Extra . . . . . . . . . . . . . . .560
1.kaa . . . . . . . . . . . . . .530
2.kaa . . . . . . . . . . . . . .510

Oharra: Prezia hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- Aretze ttikiak (15 egun ingurukoak):

Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 27.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 30.000 eta idixkaak 40.000 Pta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizena: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

## Aldizkariak




«Zugarramurdiko Sorginak»
OSTIELA

Ostiela hiruhilabetekariak Zugarramurdiko sorginei buruzko gehigarri luzea ateri du bere hamaboskarren zenbakian. Ttipi-ttapan hamabortzero Zugarramurdiko berriak ematen dizkigun Koro Irazokik egin du bilduma interesgarri hori. Historikoki inkisizioak egin zituen sarraskiak datu zehatzekin ageri dira, baita sorginkeriarekin zerikusirik zutelakoan Zugarramurdin atxilotutakoen aitorpenak ere. Herri honetan 300 lagun salatu zituzten sorginkeriaren inguruko kasuengatik, eta 1610. urte inguruan 19 lagun hil zituzten eta bertze 40 kartzelaratu. Sorginkeriaren gaiari lotuta, Legazpikoa amona petrikiloari egindako elkarrizketa aurki daiteke, bertzeak bertze, azkeneko Ostielan. Oraingoan edizio haundiagoa egin dute, 3.000 alekoa hain zuzen, horrela Zugarramurdiko etxeetan ere banatzeko.

JAKIN BEHARREKOAK

# *Uste baino gene gehiago ditu giza gorputzak*

Incyte Pharmaceuticals Incorporated enpresako ikerlariek jakitera eman dutenez, gizakien gene-kopurua aurrez uste zena baino haundiagoa da. Aipatutako enpresako ikerlarien arabera, giza gorputzean 140.000 gene inguru egon daitezke, eta ez, aurrez uste zen bezala, 80.000 eta 100.000 artean.

Jakina denez, geneek gorputzeko zelulak programatzeko zeregina duten proteinak sortzen dituzte. Herentziaz jasotzen diren gene horietako batzuk gaixotasunak eragiteko gai dira berez, baina beste gaixotasunen jatorria genemultzo desberdinetatik sor daiteke. Gaixotasun horiei buruzko ikerketak are eta zailagoak izanen dira gene-kopurua zenbat eta haundiagoa izan, geneen arteko harremanak gehitu egiten direlako. Orain arte, herentziaz jasotako gaixotasun batzuen geneak aurkitzea ez da sobera zaila izan. Gaixotasun batzuetan –presio altua edo asma adibidez–, gene batek baino gehiagok du eragina, eta ikerlariek egin dituzten kalkuluak egiaztatuko balira, hemendik aurrera zientzilariek arazo gehiago izan ditzakete.



Orain arte 30.000 gene identifikatu dituzte zientzilariek.

Giza Genoma proiektuan lanean ari diren zientzilariek ere, kontuan hartu beharko dute Incyte enpresako ikerlariek egin duten kalkulua. Izan ere, proiektu hori 2.003. urtean bukatzekoa zen. Dena den, data hori, giza gorputzeko geneen mapa egitea helburu duen Giza Genoma proiektua 1990. urtean jarri zen abian, eta dagoeneko 30.000 gene identifikatu eta aurkitu dituzte proiektuan lanean ari diren 12 herrialdeek.

*Gaixotasun genetikoen gaineko ikerketak zailagoak izanen dira, geneen arteko harremanak ere gehitu egiten direlakoz.*

ELHUYAR TALDEA

## ☞ DISKAK




«Louisianara noa»

IMUNTZO ETA BELOKI

TRIKI-ELKARLANEAN

Aurtengo udan grabatu dute diskoa trikitilari beterano hauek. Ramon Azpitarte da «Imuntzo», gazte-gaztetatik soinua jotzen du, eta 86an txapelketa nagusian hirugarren egin ondotik grabatu zuen bere lehen diskoa. Eleuterio Jauregi, berriz, «Beloki», 88an panderojole hasi zen Imuntzorekin batera. Geroztik plaza, erromeria, txapelketa eta festetan ibili dira elkarrekin. 92an, gitarra eta baxujolea sartu zituzten taldean, soinu ttikiak bizi dituen garai berriei egokitu nahian. Orain arteko diskoetan Imuntzo eta Beloki arduratu dira konposaketaz, bainan azken honetan Arkaitz Miner taldeko gitarra jole berriak hartu du hein haundi batean lan hori, eta nabaritu nabaritzen da. Disko alaia, sentibera, frenetikoa, dantzagarria eta zuzena ateri zaie «Lousianara Noa» hau.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

### HITZALDIAK

**BERA**

**Urriaren 12an** Soziolinguistika Jardunaldiak Iamotenean. Arratsaldeko 6,30etan. "Euskara eta Nafar Foralismoa XX. mendean" Fernando Mikelarena. "Euskara eta Euskal Abertzaletasuna Nafarroan XX. mendean" Josu Txueka.

### EMANALDIAK

**BERA**

**Azaroaren 5etan** Iamotenea elkartean, arratseko 8etan, Gasherbrum Espedizioko diapostibak ikusgai.

### ARGAZKI RALLYA

**AZKAINE**

**Azaroaren 13an** Martzenia elkartean, goizeko 9etatik aitzin. Ikus 27. orrialdea.

### IKASTAROAK

**ELIZONDO**

**Azaroaren 6an** Mutildantza ikastaroak. Arratsaldeko 7,30etan, Elizondoko Lanbide Eskolan. Xauli Gazte Informazio Bulegoak antolatzen du ikastaroa.

### GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

**Azaroaren 1etik 7ra** Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

**Azaroaren 8tik 14ra** Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde), Goizueta.

**Azaroaren 15etik 21era** Igantzi, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdubi, Leitza eta Goizueta.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...** Hegoaldetik deitzeko / Iparraldetik 00-34- **948631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**ADOS**
**IRURITA.**
- Lur eremu eraikigarria salgai.
✆ 948 451 841

BERA. Pisua salgai. 3 logela, bi bainu, egongela eta sukaldea. Mobleztatua. ☎ 948 630 946 (eguerdiko 2-etatik atzinera).

BERA. Pisua salgai. 3 logela, bi bainu, egongela eta sukaldea. ☎ 609 402 443.

BEINTZA-LABAIEN. Baserria salgai pistaren ondoan. ☎ 948 450 039.

BERA. Pisua bere bajerarekin salgai Pio Baroja karrikan. ☎ 948 635 137.

LEITZA. Pisu bat salgai, prezio onean. ☎ 948 510 484.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**ADOS**
- Eskaera haundia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841

Etxea, baserria edo borda erosiko nuke. ☎ 948 306 502 (Lourdes).

Baserriak, etxeak, bordak, errotak, lur- eremu eraikigarriak, lur-eremu industrialak, zuhaiztiak, pisuak, apartamentuak, txaletak, herentzia osoak moble eta maizterrekin. Eskura ordaintzen dugu. ☎ 948 451 518 edo 600 38 74 08 edo 666 20 63 10.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

BAZTAN-BIDASOA: Etxe bat hartuko genuke errentan. ☎ 948 212 230 edo 948 271 249.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

BERA: 82 m²ko bajera bat salgai Eztegara karrikan. ☎ 948 630 786.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

**ARANTZA ZURGINDEGIA**
*Jose Miguel Errandonea*
Klase guztietako zurgin lanak
Osiñaauzoa ✆ 948-634068 • ARANTZA

## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK



© 948631076 • BERA

## LANA

### 301 ESKARIAK

28 urteko gazte bat eskaintzen da edozein lanetan aritzeko. ☎ 948 630 726.

EGA eta 5. mailako euskara titulua prestatzeko klase partikularrak (gainontzeko mailak ere bai). ☎ 948 630 557 (eguerdi eta gauetan).

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

Adineko pertsona zaintzeko eta konpainia egiteko neska edo andrea behar da. Ordutegiaz solastuko gara. ☎ 948 637 034 edo 948 637 780.

Mekanika eta elektrizitateaz ulertzen duen pertsona behar dugu Iruñean lan egiteko. ☎ 629 436 730.

Biltegian lanean aritzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 948 631 394.

Planoak interpretatzen eta soldatzen dakien pertsona behar da. Galdaragintzaz eta muntaiaz jakitea beharrezkoa. Bera eta Mugairi arteko norbait. ATM S.A. enpresa. ☎ 948 637 411.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

Opel Kadett diesela salgai, NA-AB. ☎ 948 631 177.

Citroen ZX 1.6 i, egoera onean. ☎ 649 782 858.

Rover 214 Si 16 v salgai. ☎ 948 631 351 edo 606 102 966.

Golf GTI serie III salgai. Egoera onean. ☎ 948 630 165.

Bigarren eskuko Suzuki Santana erosiko nuke. Luzea balitz hobe. ☎ 948 599 170 (arratsaldeko 5etatik aitzinera. Margari).

Yamaha 600 XT salgai, SS-AH. Egoera onean. ☎ 948 634 036 (gaueko 9tan).

Yamaha XT 600 salgai. Egoera onean. ☎ 610 991 670 (19,30etatik aitzinera).


TTIPI-TTAPA da gure herrietan gehien zabaltzen den komunikabidea, eta gainera...




...publizitaterik errentagarriena eskaintzen duena

Moduloaren prezioa, bakoitzak duen hedapenaren arabera

**TTIPI-TTAPA**
· Modulo eta aleko: **0,23 Pta.**

**DIARIO DE NAVARRA**
·Astez **5,7 Pta.** / modulo eta aleko
·Igandea **4,6 Pta.** / modulo eta aleko

**EL DIARIO VASCO**
·Astez **5,3 Pta.** / modulo eta aleko
·Igandea **5 Pta.** / modulo eta aleko

**GARA**
·Astez **10,3 Pta.** / modulo eta aleko
·Igandea **7,6 Pta.** / modulo eta aleko

**DIARIO DE NOTICIAS**
·Astez **13,8 Pta.** / modulo eta aleko
·Igandea **11,6 Pta.** / modulo eta aleko

**EGUNKARIA**
·Astez **28,8 Pta.** / modulo eta aleko
·Igandea **24,7 Pta.** / modulo eta aleko

Citroen Saxo 16 v salgai. NA-AY, berri-berria. ☎ 948 637 283.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

NISSAN
**BERABI tailerrak**
✆ 948 631 445•BERA
Mitsubishi 2.5 TD merkea, Nissan Vanette.
ETORRI ETA IKUSI NISSAN PRIMERA BERRIA

MENDAUR MOTOR
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Peugeot 306 TD, Terrano II, Twingo, Peugeot 306 D.
Suzukiak: Vitara eta Samurai aukeran.

## ANIMALIAK

### 601 OPARI EMATEKO

Hilabete terdiko 4 katakume eta bertze jaioberria opari emateko. ☎ 948 637 253.

Bi miga blonda arrazakoak salgai. Ernari daude. Behi gorria salgai, bere aretxearekin. ☎ 948 580 589.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Zakurkumeak salgai Lesakan. Sabueso arraza, erbi eta basurdetarako. 2 hilabete ingurukoak. ☎ 948 637 903 (ilunabarretan).

Cocker Spaniel ingles zakurkumeak salgai. Zuri eta beltzak. Pedigriarekin. ☎ 948 637 432/948 637 519.

Ernari dauden ahuntzak salgai. Ederrak. ☎ 948 637 772.

Boxer arrazako zakurkume arrak salgai Beran. ☎ 943 283 065 (goizez).

Ardi gizenak erosten ditugu hiltzeko. ☎ 948 450 160.

## ANIMALIAK

### 603 KLINIKAK

**ALBAITERITZA KLINIKA**
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
✆ 948631362 • Legia 13 • **BERA**
Txepetxa

## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

Cocker Spaniel ingles arrazako zakur beltza galdu da Lesakako Pagolleta inguruan. ☎ 948 637 432.

Berako parkean Euskal Herriko giltzari bat eta pare bat giltza harrautu ditugu. Deitu ttipi-ttapara.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

Egurrezko sukaldea oparituko nioke etxetik jausten laguntzen didanari. ☎ 948 630 516.

Bideo-jokua salgai, Sega Megadrive, 9 jokurekin. Berri-berria dago. 30.000 pta. ☎ 948 450 082.

Ibanez gitarra salgai, egoera paregabean, bere maletarekin (30.000 pta). Anplifikadorea (12.000 pta). ☎ 948 581 039.

Esne tankea salgai, 100 litrokoa. ☎ 948 635 170.

Bi berogailu-akumuladore salgai. ☎ 948 630 508 (eguerdi edo arratsetan).

Comesa autokargadora salgai, traktore-karroarentzat. ☎ 948 510 013.

Erremolke isotermoa salgai, 750 kiloendako. ☎ 948 599 008.

Antigualeko mobleak erosten ditut. ☎ 600 387 408.

Ume bat garraiatzeko bigarren eskuko silleta erosiko nuke. Arrue markakoa, Olinpiada modeloa. ☎ 948 631 136.

Bigarren eskuko liburuak erosiko nituzke. ☎ 943 632 818.

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

Pettik urriaren 24an urteak bete ditu. Zorionak etxeko guzien partetik, eta merezi duzun zorte guzia konpaktoarekin.

Gazteluko Anttoneri: ez utzi Elizondoko neska horrek engaina zaitzan. Lagun baten partetik.

Mª Judith Etxeberria Telletxea aranztarrak urtea beteko du azaroaren 12an. Zorionak atta eta amaren partetik. Muxu haundi bat.

KULTURKARI
**Inprenta lanak egiten ditugu**
- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!
✆ **948 63 11 88**

DONAMARIA

# Donamariako Udala

**OIHAN ENKANTEA, %10 MERKEAGO**

Donamariako Udalak enkante publikoa eginen du, hasierako prezioa baino %10a merkego, honako oihan aprobetxamendu hau esleitzeko.

Lote bakarra. Argibel izeneko alderdian, Erabilpen Publikoko Nafarroako Mendien Katalogoko 442. zenbakiko mendian, 2.063 pagok osatua, 385 metro kubiko enbor txiki egiten dutenak eta 2.180 metro kubiko zahar. Hasierako prezioa: 25.394.535 pezeta (%10 kenduta), BEZa kanpo.

Proposamenak, iragarki honen bukaera agertzen den ereduaren araberakoak, udal diruzaintzan lotearen balioaren %5 fidantzako utzi izanaren gordekinarekin batera, azaroaren 15eko eguerdiko 13:00ak baino lehen, aurkeztuko dira. Ezinbestekoa da enpresaren sailkapen agiria ere aurkeztea. Enkantea eta oihan probetxamendua arautuko dituen baldintzen plana onetsita gelditu da eta Udal idazkaritzan dago interesatuen eskura.

*Donamarian 1999ko urriaren 29an.*

***ALKATEAK, Ricardo Sagaseta***

PROPOSAMEN EREDUA

Izena..............................................., adinez nagusia, helbidea................, kalea..........zenbakia.

Nire izenean edo...............entitatea ordezkatuz, helbidea..............kalea..........................zenbakia duena, 1999ko urriaren 27an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko oihan probetxamenduaren berri izanik, Leurtza izeneko alderdiko lote bakarragatik,..................(pezeta (letra eta zenbakitan)..................eskaintzen dut. Halaber, enkanteari buruzko baldintzen pleguari lotzen natzaio eta espreski onartzen, ezagutzen baitut.

(eguna eta sinadura)

BEINTZA-LABAIEN

# Beintza-Labaiengo Udala

OIHAN ENKANTEA LEURTZAN

Beintza-Labaiengo udalak enkante publikoa eginen du, plegu itxien prozedura erabiliz, honako oihan probetxamendu hau esleitzeko:

Lote bakarra. Leurtza izeneko alderdian, Erabilpen Publikoko Nafarroako Mendien Katalogoko 525, mendian, 1.330 pago, 316 metro kubiko enbor txiki egiten dutenak eta 1.228 metro kubiko zur. Hasierako prezioa: 15.056.408 pezeta, BEZa aparte.

Proposamenak, iragarki honen bukaeran agertzen den ereduaren araberakoak, udal diruzaintzan lotearen balioaren %5 fidantzako utzi izanaren gordekinarekin batera, azaroaren 10eko eguerdiko 12ak baino lehen, aurkeztuko dira. Ezinbestekoa da enpresaren sailkapen agiria ere aurkeztea.

Enkantea eta oihan probetxamendua aratuko dituen baldintzen pleua onetsita gelditu da eta Udal idazkaritzan dago interesatuen eskura.

Labaienen, 1999ko urriaren 27an.

**Alkatea, Fco. Javier Vertiz Erasun**

PROPOSAMEN EREDUA

Izena................................................................................, adinez nagusia, helbidea.........................., kalea...........................................zenbakia.

Nire izenean edo..........................................................entitatea ordezkatuz, helbidea........................kalea......................................zenbakia duena, 1999ko urriaren 22an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko oihan probetxamenduaren berri izanik, Leurtza izeneko alderdiko lote bakarragatik,.....................................(pezeta (letra eta zenbakitan)..................................eskaintzen dut. Halaber, enkanteari buruzko baldintzen pleguari lotzen natzaio eta espreski onartzen, ezagutzen baitut.

(eguna eta sinadura)

# URTEBETETZEAK

*Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.*

**OHARRA:**
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



**Xebe Mitxelena**k urriaren 31n urteak bete ditu. Zorionak etxekoen partetik.



**Joxe Mari Gorosterrazu** iturendarrak azaroaren 15ean 33 urte beteko ditu. Zorionak! Sunbilla eta Iturengo familiak.



**Juanita Iraola** beratarrak urriaren 31n urteak bete ditu. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**Klemente Iriarte** sunbildarrak azaroaren 6an 31 urte beteko ditu. Zorionak Sunbilla eta iturengo familiaren, eta berexiki Maiderren partetik



Lekarozko **Joseba Argarate**k 25 urte bete ditu urriaren 17an. Zorionak eta muxuak zuk dakizun lekuan. Laneko zure fansak.



**Gemma Mitxelena** lesakarrak urteak bete ditu urriaren 23an. Zorionak zure azukre koxkorraren partetik.



**Ander Mitxelena Tapia** igantziarrak urriaren 26an bete ditu 8 urte. Zorionak amatxi, atta eta amaren partetik.



Arantzako **Idoia Etxeberria**k urriaren 21 ean urteak bete ditu. Aunitz urtez, ffffffitipaldi!



**Aitor Tato Iparragirre**ri zorionak bere hirugarren urtebetetzean. Muxu bat aitatxo eta amatxoren partetik.



**Oihana Leiza Alzuart** beratarrak urtea beteko du urriaren 31n. Zorionak eta muxu haundi bat aita eta amaren partetik.



**Agurtzane Santxez Goia** beratarrak urriaren 24an 18 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



**Sara Almandoz** aranztarrak 2 urte beteko ditu azaroaren 7an. Zorionak bere familiaren partetik, berexiki atautxiren partetik.



**Ibai Susperregi Galdos**ek 2 urte beteko ditu urriaren 25ean. Zorionak Pottoko, Berako familiaren partetik.



**Jose Agustin Mitxelenak** urriaren 21 ean urteak beteko ditu. Zorionak TTattin. Julen, Kepa eta Joseberen partetik.



**Jaime Sein Osinaga** doneztebearrak azaroaren 5ean 9 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat. Ama, aita eta Jon.



**Berta Arrillaga Irigoien** donostiarrak urteak beteko ditu azaroaren 24an. Zorionak Berako aitatxi eta osaben partetik. Muxu bat.



**Amaia Odriozola**: urriaren 24an zaharragoa izanen zarelako... aunitz urtez Txatxoo!



**Nahia Fagoaga Moreno** irundarrak azaroaren 11n 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu bat atatxi eta amatxiren partetik.



**Asier Sanjurjo Gil** lesakarrak 2 urte beteko ditu azaroaren 9an. Muxu bat familiaren partetik.



Chileko **Ane Larrainzar Ubiria**k 3 urte beteko ditu azaroaren 22an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**Xabi**: aunitz urtez azaroaren 8an urte bat gehigo betetzen dukelkoz. Iruñiko biajik zengatik ez ttuk probexten Belaten deszentsutako entrenatzeko?



**Iñaki** eta **Bittor** beratarrek urteak beteko dituzte azaroaren 17 eta 18an. Aunitz urtez Andera eta Unairen partetik.



**Jone Elgorriaga** lesakarrak 22 urte bete ditu urriaren 26an. Zorionak trikitixa taldearen partetik. Txanpain botilaren zain gaude. Aupa irrintzilari!



**Manolo Pikabea** beratarrak urriaren 31n 41 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



**Jone Elgorriaga** lesakarrak urteak bete ditu urriaren 26an. Zorionak lagunen partetik. Horren bestazalea eta alaia segi aitzinera!



**Mª Judith Etxeberria Telletxea** aranztarrak urtea beteko du azaroaren 12an. Zorionak gure printzesita, atta eta amaren partetik.



**Kontxita Ordoki** aranztarrak azaroaren 11n 45 urte beteko ditu. Aunitz urtez familiaren partetik.



**Igone Salinas Indakoetxea** lesakarrak 3 urte beteko ditu azaroaren 6an. Zorionak guraso eta Olaiaren partetik.



**Alaitz Arrobarren** lesakarrak azaroaren 7an 10 urte beteko ditu eta **Kixki** bere txakurrak 2. Zorionak Lesakako familiaren parteik.



**Arantxa Iribarren** doneztebarrak azaroaren 14an beteko ditu urteak. Zorionak zure familiaren partetik.



**Josu Telletxea** doneztebarrak azaroaren 14an beteko ditu urteak. Zorionak zure familiaren partetik.



**Nerea Maia Elizondo** lesakarrak azaroaren 12-an 16 urte beteko ditu. Zorionak eta ea noiz ateratzen duzun txanpaina! Lesakako lagunak.



**Beñat Maia Antxorena** etxalartarrak azaroaren 13an 5 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu bat familiaren partetik.



Lesakako **Enara Arrobarren Aranburu**ri zorionak Iratxe, Miren eta Nerearen partetik. Azaroaren 28an beteko ditu 15 urte.



**Sarai Etxartek** 3 urte bete ditu azaroaren 6an. Zorionak familiaren eta Bittoriren partetik.



**Jose Mari Iriarte** Coloradokoari zorionak Lesaka, Doneztebe eta Lesakako familiaren partetik, berexiki bere ama. Etorri bi anaiak bodara!



**Unai Bereau Mutuberria**k urriaren 23an bi urte bete ditu. Zorionak aita, ama eta familia guziaren partetik.



**Aitor Bengoetxea Olaetxea**k 10 urte beteko ditu azaroaren 12an. Zorionak familiaren partetik. Aupa xolete!




KULTURKARI

publizitatea t zerbitzuak



19 urteko esperientzia zure zerbitzura

# EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna

**INFORMAZIOA:** 948 451 518 / 600 38 74 08 / 666 20 63 10 (Doneztebe)

*Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero*



**ERATSUN**

- Borda ematen da errentan. 12.000 pta hilean.



**EZKURRA**

- Baserria kalefakzioarekin salgai. 225 m²ko hiru solairu. Bi familiendako egokia.
- Lur-eremu eraikigarria salgai.

**LEGASA**

-Familia bakarreko azkeneko etxeak salgai. 15.000.000 ptatik aitzinera.



**OROZ-SALAZAR**

-Herri erdian 300 m²ko pabiloi industriala salgai. 12.500.000 pta.

-Etxe bat egiteko lur-eremu eraikigarria salgai. 2.800.000 pta.



**ARANO**

- 100 m²ko borda eta 2.000 m²ko lur eremua salgai. Bidea 4x4rekin.

**GERENDIAIN**

- Golf zelaiaren ondoan, txaleta piszinarekin salgai. Prezio negoziagarria.



**ALDEANUEVA DEL EBRO**

- Hotela, jatetxea eta kafetegia salgai. 22 logela, bainuekin.



**LEITZA**

- 2 solairuko borda salgai, lur-eremuarekin.
- Baserria salgai. Mendi-hotela egiteko egokia.



**IGANTZI-BERRIZAUN**

- Etxea baratzearekin salgai. Prezio negoziagarrri.

**DONEZTEBE**

- Etxea salgai.
- Etxebizitza garaje eta kalefakzioarekin salgai.
- Lur-eremu eraikigarriak salgai.
- Bajera komertzialak salgai.
- Familiako negozioa errentan.
- Etxea errentan. Jardinarekin.
- Etxebizitza amueblatua errentan emateko, kalefakzioarekin.

**ARIZKUN**

- Etxea terraza eta garajearekin salgai.
- Luxuzko txaleta salgai.






# Zer izanen dut Gida honetan?

# DEN-DENA

Den-dena eskura eduki nahi baduzu, GIDA honetan aurkituko dituzu inguruotako ofiziale, komertzio, lantegi eta zerbitzu guzi-guziak. Informazio osoa eta goitik behera gaurkotua, erabiltzeko eta gauzak bilatzeko erraxago antolatua, eta guzi hori, etxetik mugitu gabe.

## telefono gida 2000

Inguru honetako etxe guzietan zure negozioaren berri izatea nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan lehenbailehen eta milaka pertsonek irakurriko dute zure mezua.

**ttipi-ttapa** • Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA

**(+34) 948 63 11 88**

# WOR
WARM OIL RADIATORS

Finantziazioa: 12 hilabetez %0 interesa

▶ Segurtasuna
▶ Garbitasuna
▶ Mantenimendurik gabe
▶ Gasik gabe


RADIO BIDASOA expert
Eztegara 14 • BERA • ✆ 948 630 377





| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 WOR 11 | 64.000 Pta. | 64.000 Pta 384,65 EURO |
| 2 WOR 7 | 2x49.500 Pta. | 99.000 Pta 595,00 EURO |
| 3 WOR 5 | 3x41.000 Pta. | 123.000 Pta 739,24 EURO |
| | DENETARA: | 286.000 Pta 1.718,89 EURO |

Finantziazioa 12-0
Sarrera: 23.833 Pta. 143,24 EURO — 23.833 Pta.ko 11 ordaintze 143,24 EURO










## Azkarra eta erraza
Instalatzeko ez du inolako obrarik beh
Paretan bi euskarri torlojuekin sartuz e
altzairu herdoilezinezko hankak paratu
kitto!
WOR berogailu guziak bi aldeetatik j
tzen ahal dira, instalazioa oraindik gel
go erraztuz.

## Ekonomikoa
Sistema iraultzailea erabiltzen d
Hutsean ontziratutako errendimen
haundiko bero-hedatzaile batean
narrituta, erradiadoreak bero emi
haundia lortzen du gastu elektri
guttiagorekin.

## Segurtasuna eta ekologia
Ez dute inolako erregairik erabiltze
Ez dute ez gasik ez usainik sortz
Erabiltzen duten bero zabaltzailea
da ez toxikoa ez korrosiboa.

## WOR berogailuek zera eskaintzen dute:
- Giro sano eta erosoa, giroa ido eta aldatu gabe.
- Aparailu bakoitzak bere programazio independientea du








### TERMOSTATOA
WOR erradiadore guziek
te, aparailu bakoitzean n
den tenperatura aukerat
ko. Gainera segurtasun t
mostatoa ere badute.

## AUKERAZKO OSAGARRIAK

### TENPORIZADOREAK:



*Digitala:*
Pantaila digitala eta egunero programatzeko erraza. Memoria galdu ezkero erreserbako bateria badu.



*Oxka*
Egunero erabiltze
modelo egok

| Modeloa | Potentzia | zabalera x altuera x fondoa | Prezioa | |
|---|---|---|---|---|
| WOR 3 | 150/300 W. | 320 x 650 x 90 mm. | 32.500 PTA | 195,32 EURO |
| WOR 5 | 350/700 W. | 500 x 650 x 90 mm. | 41.000 PTA | 246,41 EURO |
| WOR 7 | 500/1.000 W. | 680 x 650 x 90 mm. | 49.500 PTA | 297,50 EURO |
| WOR 11 | 600/1.200 W. | 1.050 x 650 x 90 mm. | 64.000 PTA | 384,64 EURO |
| WOR 11 C | 600/1.200 W. | 1.050 x 400 x 90 mm. | 62.000 PTA | 372,62 EURO |



### HANKAK:
Altzairu herdoilezine
hankei esker erradia
rea alde batetik bert
mugitzen ahal da eta
tik kontu inolako esfor
rik egin gabe.

Europar Batasuneko 89/336 eta 73/23 ebazpen eta xedapenen arabera